



# GABRIEL ARESTI

Euskal antzertian.  
Biola eta mailuarekin

*Eugenio Arocena*

*Gabriel Aresti. Euskal antzertian. Biola eta mailuarekin.*

---



***Gabriel Aresti Segurola***  
*Euskal Antzertian. Biola eta mailuarekin*

*Eugenio Arocena*



*Gabriel Aresti Segurola*

## **AURKIBIDEA**

AURKEZPENA .....	3
SARRERA .....	7
GABRIEL ARESTI, BERE BURUA AURKEZTEN .....	11
ARESTIK, EUSKAL ANTZERTIAN AURKITU ZUEN GIROA .....	19
• JESUS MARI OLANO, HERNANIKO "GOIALDE" ANTZERKI TALDEKO PARTAIDEAREKIN ELKARRIZKETA .....	20
KARLOS PANERA "MASKARADA" ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIAREKIN ELKARRIZKETA .....	33
ARESTIREN ANTZERKI PRODUKZIOA AZTERTZEN .....	41
• ARESTIREN ANTZERKI OBREN EGITURA .....	43
• ARESTIREN ANTZERKI OBREN EDUKIA .....	45
• ARESTIREN ANTZERKIEN HIZKUNTZA ETA ERRITMOA .....	67
MUGALDEKO HERRIAN EGINIKO TOBERA .....	75
• MONTAIERAKO ZENBAIT APUNTE: M. FORKADA .....	75
• MUGALDEKO HERRIAN EGINIKO TOBERA, ANTZERKIA .....	90
JUSTIZIA TXISTULARI ANTZERKI LANA .....	141
BIBIOGRAFIA .....	215



## AURKEZPENA

*Azpeitiako Euskal Antzerki Topaketak, ohiturari jarraituz, antzerkigile ospetsu bat omendu nahi du. Eta urte honetan autatutako per-tsonaia Gabriel Maria Aresti Segurola da, 2000. urte honetan Arestiren heriotzaren 25. urteurrena ospatzen dela eta. Idazle honen omenez, urte honetan han-hemenka egin diren eta egingo diren aipamen eta eskeintzen zerrendan Azpeitiko Antzerki Topaketak ere egon nahi luke.*

*Gabriel Arestiren idazlanak eragin haundikoak izan dira eta bizi-rik eta kementsu iraun dute gaur arteraino haren oiartzunak, guregana eta ondorengoena ere iritsiko dira ziurrenik. Bereziki bere poesi lanak. Arestiren idazlanetatik gutxien ezagutuak, antzerkiak izan dira, pentsatu nahi dut poesiaren eguzkiak, antzerkia itzalera eramán duela.*

*Euskal Antzerki Topaketa hauetan, gure asmoa antzerki hauek eguzki girora berriro itzultzea litzateke, ziur bainago oraindik eguzki dir-dira berauekin dutela eta irakurlea gozatzeko xarmaren jabe direla.*

*Liburu honetan Arestiren sormenezko antzerkiari errepasso bat ematen zaio eta gainera bi galde-elkarrizketez osatzen da, bat Arestiren sasoián antzerki mugimenduko antzerkilari bati Hernaniko "Goialde" antzerki taldeko Jesus Mari Olanori eta bestea gaur egungo antzerki zuzendari bati, Karlos Panera Maskarada taldeko zuzendariari, Aresti bizian ezagutzera iritxi ez zena baina gerora bere lanen bidez Arestiren pentsakera branka modura hartu duena. Liburuaren azken partean bi antzerki aurkezten dira, idatzitako aurreneko lana "Mugaldeko herrian eginikiko tobera" eta lan honen aurkezpen modura montaiarako per-tsonaien diseinuak eta azkenik "Justizia txistulari", Arestiren azken antzer-*

*ki lana. Lan hau oiartzuarrentzat idatzia izan zen.*

*Gabriel Aresti, euskalgintzan erreferente garrantzitsu bat izan da. Euskararentzat garai zailak ziren urte haietan, euskarazko idatziekin garai hartako euskal gazte kontestatarioen zaindari bat izan zela esan daiteke. Arestik, euskal teatroa era berritu batetan egin nahi zuten gazte taldeei eskeini zien bere lana, hauentzako antzerki lanak idatziaz. Oiartzun, Hernani eta beste hainbat herrietako taldeei .*

*Ni neu Aresti baino bi edo hiru belaunaldi beranduagokoa izanik, ez nuen bera ezagutzeko aukerarik izan, hala ere, nire belaunaldikoek Arestiren esistenziaren berri gaztetxo ginela izan genuen eta hau modu ximple batean izan zen. Ahotik-ahora zebilen poema bat izan zen: "Nire Aitaren Etxea" bezela ezagutzen eta entzuten genuena:*

Nire aitaren etxea  
Defendituko dut.  
Otsoen kontra,  
Sikatearen kontra,  
Lukurreriaren kontra,  
Defenditu  
Eginen dut  
Errentak,  
Interesak,  
Baina nire aitaren etxea  
defendituko dut.  
Harmak kenduko dizkidate,  
Eta eskuarekin defendituko dut  
Nire aitaren etxea;  
Eskuak ebakiko  
dizkidate,  
Nire aitaren etxea;

Nire aitaren etxea.  
Galduko ditut  
Aziendak,  
Soloak,  
Pinudiak;  
Galduko ditut  
Korrituak,  
Besorik gabe,  
Bularrik gabe  
Eta eskuarekin defen  
dituko dut  
nire aitaren etxea.  
Ni hilen naiz,  
Nire arima galduko da,  
Eta besoarekin defendituko  
dut  
Zutik.

*Eta ezin ahaztu Xabier Lete, abeslari eta poetak hamaika plazetan kantatutako "Urrilaren 28 egun" kantu sonatua, honen letra Arestirena da eta honela dio:*

San Simon eta San Juda:	Ez dugu zaldirik
Joan zen uda	Ez gara gu zaldunak.
Eta negua heldu da.	Ez dugu abererik
	Ez gara aberaxak.
Ez baletor hobe.	Euskara dugu guk,
Bizi gara pobre	Gu gara euskaldunak.
Eremu lac honetan.	
Ez gara hain noble	Orain baditugu lau motor:
Benetan	Nik euskara laja dut hor,
	Eta euskara ba dator.

*Sasoi hartan poema eta kantu hauek nork etzituen entzun, esan behar dut garaiko sasoiari hauek entzuteak gure euskal izpiritua berpizten zutela. Gainera abeslari eta poetaren ahotik entzutean "Oilo haragia" k gorputza hartuko ez zionik gutxi izango ziren eta oraindik ziur nago bati baino gehiagori "oilo haragia" sortu zaiola.*

*Arestiren lanek gure belaunaldien arterainokoen euskal izpiritua piztu duen bezala, orain belaunaldi berriengan ere eragitea nahi genuke. Horrexen helburua du nagusiki liburu honen argitalpenak eta honen inguruan ikastetxeetako gaztetxoek egingo duten galdera-erantzunen Irrati-Lehiaketak ere. Arestiren oiartzuna eta mezua belaunaldi berriek ere jaso dezatela beraz.*

Nekane Larrañaga  
Kultura Zinegotzia  
AZPEITIKO UDALA





## SARRERA

Gabriel Maria Aresti Segurola. 1933. urtean Bilboko hirian murratua. Bilboko kaleetan han-hemenka korrika hasi zeneko gerra amaitua zegoen. Berak zioen bezela gerra ondorengo ogi zuriaz ez zuen urdaila betetzerik izan. Bilbo inguruko olek, burdinolak eta itsasgorak botatzen zuten kiratsa amastuaz, hazi eta hezitu zen eta giro honetan sormenezko iturria ere aurkitu zuen. Aresti giro honetan asaben hizkuntza aurkitu, ikasi eta zabaldu zuen gazte sendo bat zen.

Gabriel, 1965. urtean, Oiartzunen ezagutu nuen, sasoi haretan herrian Lartaun antzerki taldea genuen eta egile hau antzerki bat prestatzen ari zen guretzako. Ekintza honi esker izan genuen Arestiren presentzia gure herrian. Ezin utzi aipatu gabe X. Lete, Lartaun taldearen kudeatzailea adiskidea zuela. 5.3

Oraindik, Gabriel begien aurrean jartzeko oroitzapenak ditut, bere betaurreko lodiak —hala iruditzen zitzaizkidan behintzat— begirada zuzenari trabarik egiten ez ziotenak, eramaten zuen jazkera gorbatarekin batera zijoana zen. Gorputzez lodi-antzekoa, goieraz gehiago zen baxua baino. Belarrian daukat herriko plazaren erdian jarrita atseginez esaten ziguna "Ohore bat da nitako euskaldun ospetsuen feudora-etortzea". 4.3

Idazten ari zen antzerkia "Justizia txistulari" zen, lehen ekintza azkar idatzi zigun baina bigarren eta azken atala gehiago kosta zitzaion eta azkenean ekarri zigunean Leteri baimena eman zion nahi zuen bezela antzerkia orrazteko. Urte bereko Eguarritan antzeztu genuen. Oroitzen nahiz oraindik bigarren eszenan antzezlariak multzoka eta bakoitza kolore desberdinez argitu behar zela eta eguarritan herriko plazan koloretako

~~bonbiletz hornitutako pinuak jartzen ziren, ilunabar batean joan eta bonbilak lapurtu genituen, aipatutako eszena prestatzeko.~~

Ondorengo hamarkadan Arestiren lanak, iritziak eta ekintzak desadostasun asko sortu zituen, akusazio bortitzak ere jaso zituen. Hala ere gure gizona ez zen kokiltzen eta berean jarraitu zuen.

Gaur, heriotzatik hogeita bost urtera hausnarketa zenbait egiteko garaia dela uste dut. Arestiren bizitzan egindako kritikak neurri batean zuzen edo oker nire errespetoa dute. Baina Gabriel hil eta handik hiru urtetara Donostiako Ikastola batean antzerki lantxo bat prestatzera deitu zidaten eta ikasleak hamabost urte inguruko gazteak zirenez egoki iruditu zitzaidan "Justizia txistulari" antzerkia prestatzea. Jakin zuen gaur egun goi mailako kargu publikoan dagoenak -saso haretan ikasketaburu- eta galerazi egin zidan gaztetxoekin antzerkia aurrera eramatea. Nire antzerki bizitzan bi antzerki egile izan dira "INDEX"an sartuak izan direnak, bata Pierres Larzabal, Franquismoko zentsurak eta bestea Gabriel Aresti euskal integristen zentsurak.

Azpeitiko Topaketetan parte hartuko duten gaztetxoei esan nahi diet, petralkeriz eta gizatasun gutxiko pertsona horiei muzin egiteko antzutasunaren eredu direlako. Bestalde ziur nago Arestik egindako lanak aztertu eta gainera egile honen lanekin gozatuko dutela. Azken finean hori baita guztion nahia. Ala izan bedi.

# EGAN



4-6

1961

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País  
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa



## GABRIEL ARESTI, BERE BURUA AURKEZTEN

(Hernaniko herrian 1965. Urtean "Euskeraren izen poetikoa" iriz-  
narekin emandakohitzaldiaren lehenengo zatia:

○○ Irudi honek textuaren zati bat dela adierazten du.

Baina besteez mintzatzeko, ni nirengandik hitzegin behar dut. Eta besteez dadukan iritzi hau konpreni dezazuen, ni konpreni behar nauzue lehenik.

Nik hiru urte kunplitu nituenean, espainian gerra zen. Ni orduan erdalduna nintzen. Ez beste arrazoirengatik ezpada nire gurasoek, nahiz eta euskal apelliduak izan, cuskaraz ez zekitelako, erdal herri batean jaio, nintzelako, Bilbaon, Bizkaiko hiriburu berrian. Gizonak asko sufritzen du. Baina are gehiago sufritzen du haurrak. Gerla batean bizi den haurrak. Nahiko alimenturik, nahiko elikaturarik ez duen haurrak. Hala genbiltzan gu, haur flakoak, lur zihorkatu haretan; ikatza lapurtzen genuen; garia eta ogia ostutzen genuen; tabakoa eta ardoa ebasten genuen. Lortu genuen kultura apurra ere aginka eta ukabilka hartu genuen liburu debekatuetatik. 13.43

*Bilbaoko kaleak / gora eta behera / errekatik mendira, / batzuk artezak, /  
gehienak zehiarrak, / lurra estali da, / etxez eta gizonaz, / gizonak leku bate  
tik beste ra / eramateko / makinez, / bizioz eta bekatuz, / karitatez eta krime  
nez, / plaza biribilak, / zumardi zabalak, / zuek niri / gogora / ekartzen dida  
zue, / nire asmo zaharra, / behin egin nahi izan nuen / eta / inoiz egin ezdu  
dana, / Autonomia, / adiskidetasuna, / libertatea, / bakea, / Foruak, / maitatu  
ditudan gauzak, / Urkijo ministroa, / Gardoki kardinala, / Mazarredo almi  
rantea, / Egia Generala / Arrikibar ekonomista / Higuindu ditudan gizonak, /  
kaleak, / kale motzak, / kaleak hemendik, hortik, / handik / edonundik, /  
Gorbeiarra joateko gutizia sortzen zait barrenean, / bertan organitzatzeko eus*

*keraren salbazioa, / bainan hemen geratzen naiz, / kale artehonetan / milagro baten zai, / egunero bizarra kentzeari uzteko / nahikoa kurajerik ez baitut.*

• Eta horrela etorri ginen, gizon izatera. Bitartean, gizon ikasiek ikasi behar dituzten hizkuntzak estudiatu genituen: frantzesa, Ingelesa, alemana pixka bat, orduan modan zegoelako esperantoa,.... eta gainera, gure asaben eta aurrekoen mintzaera zelako, baita euskera ere.

Euskera salbatu behar zela, eta salbatu behar zela,... Sakonki estudiantu genuen. Altuberen eta Azkueren eskola nagusietan amildu ginen, lehenengo eskritore zaharrak irakurri genituen. Oraindik gogoratzen naiz zenbat ordu galdu nituen urrakari honek, Axularren "Gero", Errebista Internazionaletik eskuz kopiatzen,... Auskalo non aurkituko den nire eskuzko kopia hura. Bainan sinetsi nahi ez didanari, "Erderismos"ena irakus dezaioket.

Erdal kulturaren gertatu zitzaiguna, euskal kulturaren ere gertatu zitzaigun. Orduan Bilbaon bazeuden euskaltzale borrokatuak, haien izenak aipa ditzaket, baina lotsa hau aurreratu nahi diet. Ez dakit zer gertatzen den. Ni ardi beltza naiz, poeta madarikatua, desegokitasunak esaten ditudana; baina, mutil prometagarri bat azaltzen denean gure alorrean, berehala oldartzen naiz bere gana, nire laguntza eskeintzen diot; ez diot galdatzen, zer pentsatzen duen, bakarrik bere balioari begiratzen diot.

Ihazko Agorá sarian Xabier Lete saristatu genuenean, beste mutil bat geratu zen saririk gabe, Bilbaotik egin nuen orduan bidaje aproposa, ez zedin desanima, bere poesia ere ona zela, eta aurrera joan zedin euskerarekin. Eta, aurtan Lizardi saria eman diogu. Eta haek, orduko haek, nire mutil denborako behi sagratua haek? Euskaltzale garbiak ziren, beinere pekatuak egin gabekoak. Gure ohitura zaharrak, gure fede sendoa,

eta beste gainerako lelo aspergarri guztiak egunero ahoan zeduzkatena ziren.

Baina haientzat ere zigorra izanen da.

Beti bakarrik, euskeraren mamia eta errai sekretuak gozatu nituen; komediak eskribatu nituen, inor eraman nahi izan ez zituenak teatrorra. Nere lehenbizikoa laster Hernani honetan estrainaldiz emana duzuen, Tobera hura, eskandalagarria zan. Tiriok eta Troianoek deskomekatu ninduten. Badago edo bazegoen orduan Bilbaon liburu sorta bat "Enbor" izenekoa, euskotar integristena, nire Toberagatik esateko guztiak esan zituen. Erdal egunkari, "La Gazeta del Norte" ere ezen atzera gelditu.

Biok, hain etsai izanik, Euskotar integrista eta gaztelatar integristak, zergatik firmatzen zituzten pakeak euskaldun poeta eta teatrolari zoro honen kontra?

Zenbait urte iragan arte, ez nuen erantzunik bilatu. Gizonari aho tapatu nahi zioten:

*Etzazue tapa / gizonaren ahoa. / Defendi dadin. / Hainbeste bidegabe / egin zaio / azken ehun, mila urte honetan.. / Orain, / besoak / indargabeturik ditu, / burua erdibitan, / ez diozue /kopetan adarrrik / ernatzen/ utzi, / ebaki dizkio zue / eskuak / ez dezan / ezpatarik astin, / hor defendi diteke / indarrez. / Bakar, bakar, bakarrikan /geratzen zaio / hitza. / Baina ez zazue, / baina ez zazue, / ez zazue tapa / gizonaren ahoa, / hitzaz / balia dadin, / hitzaz / zerbitzu dadin. / Honela konpreni / deza zuen /zertarako / jaiotzen den / mundura. / Ez, / ez zazue tapa/ gizonaren ahoa.*

Baiña geroago, nire ahoa haundiegia zelako edo euren eskuak eta



mordazak txipiegiak zirelako, ez ninduten ixilarazi. Batzuek niregan sinetsi zuten eta nire, "Harri eta Herri" agertu zen, bertan nire olerki bakan batzuk atera ziren argitara.

Gehienak etxean geratu ziren gordeta, gainerako guztiak, baina atera zen apurra naikoa zen, eta harriak ere enteratu ziren Bilbaon poeta ero bat bizi zela. Eta orduan nirekin adiskidetu ziren. Bilbaoko "La Bilbaina" burges elkartera ere gonbidatu zidaten behin; argazkia ere badago. Zein kariño ederrarekin tratatzen ninduten!. Honela esaten zidatela zirudien: "Bueno, mutil, orain naikoa duk, gizondu haiz, familia dadukak, eta lehengo zoroaldiak, aldera batera utzi behar dituk. Orain gure tarteko bat izan hinteke".

Oso errezelo haundiarekin erretiratu nintzen etxera. Haul nintze-nean etsai nituen haek, orain adiskide ditut, zergatik izanen da?

Baina erantzuna laster etorri zitzaidan, Barcelonara deitu zidaten euskal estudianteeek, gero, Tolosara, Ibarrolaren pintura erakusketa baten inauguraziora. Eta bertan aurkitu nuen erantzuna, bertan kausitu nuen ihardespena, bertan topatu nuen arrapostua. Euskaldun gazteria, nirekin zegoen, nire poesian gauza berri eta desatuak ikusten zituen, eta, gazteria haren gurasoak bide honera ekarri nahi zuen/euren seme-alaben simbolo bat zen hura: Eskuaz luzatu zidaten baina ni ez nintzen konforme geratu, eta bizkarra itzuli genien.

Umeengana, oldartu nintzen eta honela esan nien:

*"Hartutako bidea ez da lehen pausoa haizik Kontent zaudete nerekin, baina hemendik gutxira ez zarete kontent egonen, gizonduko zarezte, elkarrekin ezkonduko zarezte, eta bizi-beharraren akulu zorrotza sentituko duzue giltzu rrunetan... Orduan etorriko zaizkizu gurasoak beso zabalik: "haek gazte den*

*borako zorakeriak izan dira, eta artegira bihurtu behar duzue, ez zabiltzate txantxetan. Euskeraren salbazio hori alperrikako gauza da. Hori ongi dago gure negozioak zile giztatzeko aitzakia bezala, baina egin dazagun dirua, zabal ditzagun fabrikak, zabal ditzagun komertzioak! Asko dibertitu zarezte orain artean."*

Eta nik esan nien neska mutilei: "Hartutako bidea ez da txantxetako, benetakoa baizik. Ideal bat daukagu, eta azkeneko kontsekuztziataraino joan behar dugu. Har zazue nire ejemploa". Zergatik orduan betetzen ziren 600 urte Gernika fundatu zela, eta bertan mintzatzera gonbidatu ninduten. "Joanen naiz -pentsatu nuen, esan nuen nere kolkorako- eta nire hitzalditik, nere konferentziatik, ongi asko etorriko da euskeraren probeturako.

Bizkaiko alkateekin bildu nintzen, nire eskariz, hauek, Bizkaiko presidenteari kontsegitu zioten Diputazioko eskola guzietan euskerara sartzea. -Promesa behin-tzat. Eta orduan izan ziren bestimenta urraketak, haienak eta intzirinak... Prezio horretan ez dugu salbaziorik nahi. Gure ohorea, nun gure honra!?

Orduan ni lan gabe nengoen, bi hilabete egin nintzen



etxera dirurik ekarri gabe, gero, herriz-herri ibili nintzen, nire zerbitzuak eskeintzen, azkenean Bilbaoko portura bihurtu arte.

Erderaz eskribatzen nien nire alabei barkatu baina erderaz da, badakit pekatu dela, baina pekataria naiz ni:

*A tus hermanas dile tú, pequeña / por qué razón no hay pan en casa, diles / que el pan se compra, pero no, ni abriles, / ni el honor de tu padre. Voz sedeña, // cantarines murmullos de la aceña, / esplicales que existen, viven, miles/ de hombres desesperadamente viles / en quienes el dinero se despeña. / Mas día llegará, quizá mañana / en que la libertad, moza gañana, / os cantará en vascuence con la sopa // Y el árbol de guernica, amanecido, / ese cadaver hoy desconocido, / se colmará de fruto hasta copa.*

Askotan galdetu diot ene buruari ea zer den lehenago, arraultza ala oiloa, ea pentsatzen dudan bezela pentsatzen dudalako naizen naizen bezela, ala naizen bezela naizelako pentsatzen dudan pentsatzen dudan bezela. Baina, egia ongi azterturik, ezagumentura etorria naiz arraultza dela oiloa baino lehenagokoa, gizona bere inguruak egiten duela.

—Lau

Teatro Arestiar



## **ARESTIK, EUSKAL ANTZERTIAN AURKITU ZUEN GIROA**

Gaur egungo gizarteko lehen bi belaunaldiko gizon-emakumeak, gerlaren triskantzaren zurrunbiloan murgilduak bizi izan dira. Hauek pairatu dituzte ondasunen galerak, hezur eta haragietan gosearen eragina eta nahigabearen eraginaz ispiritua eta fedearen ahultzea. Hala eta guztiz ere antzerkia eskeintzen hasten dira berriro, behar bada sufrimenduaren urradurak aurpegi zimelduetan irri pixkabat sartzearen, izan liteke.

Gerlan, Nazionalekin ibilitako gudari karlista batek hala esan zidan egun batean "Gerla honek, agintariei ez ezik, kaltea herri guziari ekarri ziguk eta euskaldunei are eta gehiago".

1946.tik aurrera Oiartzun eta Deba bezelako, han-hemenkako herrixketan, antzerki emanaldiak eskeintzen hasten dira. Gerlak hondamendira eramandako euskal giroa, berriro berpiztearren. Aurreneko emanaldiak apalak izan ziren, franquistek pauso handirik ematen ere ez baitzuten uzten eta honen froga N. Etxaniz-ek ematen digu ("Nemesio Etxaniz teatro zaleen gogoan") honek 1947.ean, Deba eta Itziarko gazteekin sortu zuen "Alostorrea" antzerki taldea eta "Irulearen negarra" antzerkia taularatzeko asmoetan hasi ziren unean, galerazi egin zireten. Zenbat honelako ukapen gertatu ote ziren. Euskal antzerki emanaldiak herri mailan eskeintzen ziren eta baimen kontua, herriko "Komisarioen" (Alkate, Guardia Civilen) eskutan egoten zen. Baina urteak aurrera zihozten heinean taldeak ugartu eta gorpuzten zihozten moduan eta emanaldiak herri batetik bestera hasi zirenean, Donostiatik erabakitzen zen emanaldiaren baimena.

1953.urtean Donostiako Iztunde Eskola berriro euskal antzerkiak eskein-tzen hasten da, berpizte honek euskal antzerkiari babes haundia

ematen dio, gerla aurretik itzala haundia izan baitzuen euskal antzerkian eta honek hainbat eta hainbaten fedea berpiztu zuen.

Modu honetan errautsetatik agertzen dira gerla aurreko suaren txinpartak eta ez bakarrik taldeen emanaldiak baita egileen antzerki berriak, nahiz eta hauen lanak gehienetan etxeko kutxetan gelditu, ez baitzegoen inolako zabalkunderik. Antzerki lanak ezagutarazteko bide bat besterik ez zegoen, taldeetako antzerkilariekin harremanetan egotea.

Urtea joan eta urtea etorri, herriko antzoki, frontoi, eta beste edozein lekuetaz baliatzen ziren antzerki emanaldiak emateko eta herriko emanaldiaz gain inguruko herrian beste bat ematen bazen ekintza haundia bezala kontsideratzen zen. Honela gertatzen zen 50. Hamarkadaren amaiera arteraino.

### **Jesus Mari Olano Hernaniko Goialde antzerki taldeko partaidearekin elkarrizketa**

50-60. Hamarkadan Tolosatik-Hondarribira, Zarautzetik-Oiartzu-nera eta Leitzatik Donostiara, sortu zen kultur kurpilaren ardatza Hernani izan zen, bai zirela antzerki emanaldiak, bai zirela hitzaldiak, kantaldiak eta abar. 1966. Urtean Hernaniko Aitor antzokian kantu emanaldi bat eskeini zen eta emanaldi hau izan zen "Ez dok amairu" taldearen sorreraren lehen urratsa.

Euskal kultur mugimendu guzti honen kudeatzailea, Juanito Olano hernaniarra izan zen beste adiskide batzurekin batera. Juanitoren akolitoa, bere iloba Jesus Mari Olano izan zen. Nik gertutik jarraitu dut azken honen ibilbidea eta biok gaztetako oroitzapenak oroitzuz, galdera-

erantzunetan jardungo gera. Bestalde, oso gertutik eta adiskidetasun estuan bizi izan zuen Gabriel Aresti.

Eugenio.- Jesus Mari, zure lehen urratsak euskal antzerkian noren eskutik eman zenituen?

J.M<sup>a</sup>.Olano.- Antzerki munduan eman nituen lehen urratsak hernaniar egile eta kudeatzaile baten eskutik, Pello Sarriegi (1906-1968) maisutzat izan nuenarekin, izan ziren. Sarriegi, antzerki zale porrokatua zen, sasoi batean bera zan Hernaniko antzerki mugimenduaren arima, egile, antzezlaria, kudeatzaile eta ez dakit zenbat ekintzetan zebilen. Sarriegik egile bezala zazpiren bat obra idatzi zituen eta ezagutzen ditudanak hauek dira: "Jokaldi txar bat"; "Etixerako... nor?"; "Zauritutako lorea", "Gazteak"; "Biotzaren neurria" "Jose Mariren urre puxkak" eta "Ama izaten lanak dira orratik". Antzerkiak idazteko makina batez baliatzen zen eta maisu honen kasuan bazuen meritu itzala. Begira, gerla hasi eta Hernanira frankuistak sartzera zihoazela eta, udal-gizonak, udalean bildu ziren eta Pelloren adiskide batek zeraman pistolari tiroa eskapatu zion. Nori jo eta Sarriegiri besoan. Gertaera honek, ez zuen aparteko intzidentziarik izango, zauriak etzukean garrantzirik bainan gerla bitarteko zala ez zuen besoaz gogoratzeko denbora askorik izan eta gerla amaitu zenean besoaren bizia ere gerlak eraman zuen, eskubiko besoa ezgauza gelditu zitzaion eta antzerkiak idazteko makinatxo bat erosi zuen, ezkerreko eskua-  
rekin tekleatzen zuen bere Olivetti makinatxoan, eta hizkiz-hizki idazten  
zuenez, orri bat idazteko askotan egun oso bat pasatzen zuen.

Gerla aurrean Hernanin bazegoen antzerki talde bat han hemenka "Hernaniko Eusko Batzokia" izenarekin plazaratzen zena, Miguel Toledo adiskideak zuen ofizialki kudeatzailearen titulua, bainan askotan bezela



gure Sarriegik banbalinen atzetik antzerkiaren branka zuzentzen zuen.

Gerla ostekoa naizenez, gaztetxo nintzelarik aipatzen ari garen antzerkilari hauekin harremanak nire osaba Juanito Olanoren bitartez izan nituen.

Eugenio- Jesus Marik, bere osaba Juanitotaz ez du esango, euskal kulturaren, garrantzi haundiko gizona izan zela eta honek, aipatzen ari garen Donostiako bailara honetan euskal kulturari itzal haundia eskeini ziola, ekonomiz, ezagueraz, jakituriz eta abar. Sarriegiri ere bere antzerki gaien aukeraketan laguntzen zion.

Jesus Mari, gerla aurreko antzerkilari hauekin harremanak nola-koak ziren?

J.M<sup>a</sup>.Olano.- Begira, egun batean, Sarriegi, etorri zen nere osabarengana eta kuestioa zen Hernanin antzerki talde bat sortu behar zela. Nere osabarekin nengoen beste askotan bezela eta hirurok aho batez adostasuneko asmoa izan zela adieraziz, erabaki genuen antzerki talde bat Hernanin prestatu behar genuela eta Sarriegiren aholkuari jarraituz "Goi-Alde" izena eman genion. Herriko gazteekin, beste hainbat herrietan egiten zen moduan, hasi ginen lanean eta antzerkia izanik ardatza beste euskal ekintzetara ere zabaldu ginen, euskal kulturaren eskasia gaingidtzeko.

Hau esatearekin, nire oroitzapena adiskide batzucna bijoa hilik dauden Pedrotxo Zabaleta, Juanito Arratibel, Juan Mari Aurtenetxe eta Juan Miguel Lazkano oso gazterik joan baitziren.

Gerla aurrean ibilitako antzerkilari asko zeuden Hernanin eta hauen lana ez ahaztutzearren pentsatu genuen, haucn partaidetzarekin

emankizun bat antolatzea, eta baita taularatu ere. Ikusbizun batean bi antzerki, "Bost urtian") bi ekitaldiko antzerkia eta ekitaldi bakarreko "Ezer ez ta festa") bi lanak T. Alzagarenak. Lan honek arrakasta handia izan zuen eta han hemenka emanaldiak eskeini genituen. Lan honetan "Oroitrazle" lanetan aritu nintzen. Orduko antzezlarieratik, oso oker ezbanago, egun bizirik daudenak "Kristina Egiguren" eta "M<sup>a</sup> Luisa Zubiria" dira.

Eugenio.- Jesus Marik dioena irakurleak hobeto kokatzeko, besteen artean Sarriegiren sasoiari antzerki munduan idazten zuten antzerkilarien zerrenda honela osatu dut:

### **BIZKAITARRAK:**

ARESTI, G.- Sei antzerkirekin. Liburuxka hau Bilbotar honi buruz denez, liburuan zehar, egile honi buruzko iritziak aurkituko ditugu.

• ZUBIKARAY, A.- Zazpi antzerkirekin. Ondarrutar honen antzerkiak hamarkada honetan, Ondarruko Kresala antzerki taldeari lotuak zeuden, gehien bat. Augustin berak taldea kudeatuz bere antzerkiak taularatzen zituen. Idatzitako antzerkiak izan zitezkeen ohiturazkoak eta baita giro errealismo-sozialekoak ere.

• GERENO, X.- Seiren bat antzerkirekin. Gerora produkzio zabala izango duen egilea. Gazteentzako eta euskara ikasteko moduko irri antzerkiak dira.

### **GIPUZKOARRAK:**

• ALBISU, A.- Zortziren bat antzerkirekin. Anastasio Azkoitiako

parrokiako apaiza zenez zenbait antzerki doktrinako gatzetxoentzako modukoak dira eta beste batzuk berriz, pertsonaia garrantzitsu zenbaiten bizitzari buruzkoak.

• ARKOTXA, J. A. Hiru antzerkirekin. Nahiz eta Joxe Antonio erlijiosua ez izan, sasoi honetako antzerkiak zintzotasunean oinarritutako komedi-dramatikoak dira.

• ETXAIDE, Y.- Lauen bat antzerkirekin. Produkzio honetatik bi ko-medi-dramatiko egituran ondo tajutu eta sakondutakoak.

• ETXANIZ, N.- Sei antzerkirekin. Ihazko Azpeitiako Topakete-tan omentutako antzerkialaria. Bere antzerki lanak giro teologikoan osatuak daude.

• KARRASKEDO, J.- Lauren bat antzerkirekin. Jazintoren antzerkien oinarria ohiturazkoa da.

• LABAYEN, A. M<sup>a</sup>.-Zortzi antzerkirekin. Tolosar hau erbestetik etorri bezain laister antzerki mundura murgiltzen da. Antonio Mariaren antzerki produkzioan irri-antzerkiak, komedi-dramatikoak eta antzerki-historikoak ere aurkitzen dira.

• URRUZOLA, E.- (Uxola). Zortziren bat antzerkirekin. Egile oparitsua izan zen. Bere bizi guzian euskal antzerki zaleok ez duguna behar dugun tokian ipini. Aipatzen ari garen hamarkada honetan egile honek gerla eta errepre-sioaren ondorioak bere haragian sufritu

TEATRO VASCO	
TEATRO PRINCIPAL	
10 OCTUBRE	11 <sup>1</sup> / <sub>2</sub> MAÑANA
"GOIALDE"	
Grupo de Hernani	
REPRESENTA:	
"BOST URTIAN"	
Obra original de I. Alzaga en 2 octos	
REPARTO	
Pantxo .....	Jesús Eguiguren
Lukas .....	Iñaki Zubeldia
Axun .....	Kristina Eguiguren
Txillerra .....	Manuel Mujika
Damoxa .....	M. <sup>a</sup> Lucia Zubiria
Patrizio .....	Pedro Saincorgui
Terex .....	M. <sup>a</sup> Cruz Uria
"EZER EZ TA FESTA"	
Obra original de I. Alzaga en 1 octo	
REPARTO	
Xoloardi .....	Pedro Saincorgui
Batista .....	Jesús Eguiguren
Kuzimiro .....	Kristina Eguiguren
Marcelo .....	Antonio Arbelaz
Antoni .....	Iñaki Zubeldia
Juxto .....	Iñaki Zubeldia
M. R. S. N. 04265	M. Aguirre

zituen. Pertsekuzioa eta kartzela ezagututako gizon honen antzerkiak mikatzak, zorrotzak dira, egitura dramatikoan eskeiniak eta euskera herrikoian emanak.

### **IPARRALDEKOAK:**

DIHARTZE, J.M.-<sup>1</sup>(Iratzeder)<sup>1</sup>Erlijioso honen antzerkiak, komediaren egitura dira batzuk eta serioak erlijioari dagozkionak. Denetara zazpi antzerki idatzi zituen. Larzabalek honela dio egile honetaz "Lurra zikin zaiola iduri luke. Xoria aldaxkan bezela, doidoia da noizean behinka lurreratzen. Lanoetan barna, zeru zola arrasean, izarren artean hegalkada ibiltzea zaio laket".

ELISSAGARAY, M. Bi obra baizik ez ditu idatzi. Hazparnetar honen lanak ondo tajutu eta euskera errezean idatzitako irri antzerkiak ditugu.

LAFITTE, P.- Lau edo bost antzerkirekin. Erlijioso honek sasoi honetan antzekizunak bultzatu zituen Donibane Lohitzunen, Irri-antzerkiari bidea emanaz.

LARZABAL, P.- Hamairu antzerkirekin. Guztien oinarria; apez ikusmoldearen oinarriak galdu gabe: irri-antzerkiak, Dramak eta pertsonaia garratzitsuen bizitzak antzerkira eramatea.

MONZON, T. Lauen bat antzerkirekin. Gizon ospetsu hau, Bergarakoa izanagaitik erbesteratua zegoen eta antzerkia ifarraldean osatu zuen. Idazkera poetiko batean sortu zituen antzerki gehienak. Komedi egitura gehienetan euskaldun giro jatorretara mugatzen zen, antzerkietan koreografia eta kantua hainbatetan sartuaz. Bainan sasoi honetan antzerki egile baino, kudetzaille bezela ezagutuagoa zen.

/ Gerla aurretik antzerki mundura murgilduak zeuden egileei -•iru-

ditxo hau aurretik ipini diet-, eta gerla amaitzearekin berriro lehengo eskolari heldu zioten. Hots Iparraldeko egileak ez zuten alde honetako gerla sufritu bainan bai ingurutik jarraitu. Berauek gero gerla europarraren ondorioak haragian sufritu zituzten.

Hainbat eta hainbat egile aipatu gabe utzi ditut berauen antzerki kopurua ez zaidalako garrantzitsua iruditzen.

J.M<sup>a</sup>.Olano. Zuk aipatu dituzunez hainbat egile, oroitzapen bat bururatzeko zait. Garai haretan antzerki lanik ez zen publikatzen ez eta zabaltzen, pentsa zer motako giroan bizi ginen, nire osabak liburuxka bat erosi zidan. Orixerena zen "Urte guziko meza bezperak" deiturazkoa. Euskeraz eta latinez idatzia zegoen eta liburuxka hau Juanitok lortu zuen Donostiako denda elegante batean eta denda hau ez zen liburutegia, larruzko produktoak saltzen zituzten.

Dendako nagusiak abertzaleak izaki eta kontraseina bidez aipaturako liburua eman zioten, osabari. Antzerki lanik ezinezkoa zen alde honetako liburutegietan aurkitzea. Idazle baten obraren jabe egiten baginen Goialdekoek neri ematen zidaten makinaz transkribatzeko, asteburuetako egunetan makinaz idazten nuen nire osabaren almazen batean. Hain pozik sentitzen nintzen, nire izeba bat etortzen zen eta propinatxo bat emanaz, lagunekin jolastera bidaltzen ninduen. Oroitzen naiz zortziren bat antzerki makinaz pasako nituela. Kontuan izan antzezlarari bakoitzari antzerki bat eta baimenak eskatzeko gutxienik hiru kopia bidali behar zirela Gobernu Zibilera.

Hernanitik irteten hasi nintzen inguruko antzerki mundukoekin harremanak hartzeko eta aipatzen hari garen hamarkada horretan aintzindaritza zaramaten taldeak Donostiakoak (Jarrai eta Iztunde Eskola)

ziren. 1960. urtean euskal gizarteak berriztatzearen abiadura hartzen du arlo askotan eta antzerkian ere zer esanik. Gerla ostean errautsetako txinparta bailira han-hemenka euskal antzerki taldeak zalaparta handirik gabe ikusten dira, eta 60ko hamarkadaren hasieran bere onera etortzen dira. Aipatzen ari garen hamarkada honen azken hiru urteak euskal gizartearentzat oso gogorrak izan ziren eta nola ez, euskal antzerkiarentzat ere, 68ko Exzepzio Legeak, 69ko ondorioak eta 70ko Burgosko auzia medio, antzerki mugimendua ia desegina gelditu zen. Han hemenka talde bat edo beste gelditu bazen ere franquismoaren zentsura ere gogortu egin zen. Bestalde esan behar da antzerki mugimenduaren osatzaileek nahia go izan zutela kalera irtetea franquismoaren aurka borrokatzera.

Eugenio.- Jesus Mari aipatzen duen hamarkada honetan han hemenka zebiltzan antzerki taldeen zerrenda, garai haretako Antzerki Biltzarrak ateratzen zuten informazioko orrietan aurkitutako antzerki taldeek osatzen dute neurri handi batean. Antzerki mugimendu honek zuen helburua, zeuden errekurso apurrak hobeto erabiltzea zen. Hemen agertzen dira taldeak ziren herrien izenak:



Hernaniko Goi-Alde antzerki taldea "Neskazar" antzerkia antzetzten. Ezkeretik zutik lehena dagoen jokalaria gaztea Jesus Mari Olano dugu

**Bizkaian:** Bilbo (Kriselu eta Txinparta taldeak), Durango, Mendaxa, **Gipuzkoan:** Aizarnazabal, Aizpurutxu, Andoain, Antzuola, Aretxabaleta, Ataaun Azpeitia, Berastegi, Bergara, Brinkola, Deba, Donostia (Arrastua eta Jarrai taldeak), Elgoibar, Hernani, Errenderi, Errezil, Getaria, Idiazabal, Irura, Itxasoko Alegi, Lazkao, Legorreta, Lezo, Motriku, Nuarbe, Oiartzun Oñati, Oriako Alegi, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Urnieta, Urretxua, Zaldibia, Zarautz (Ondartza eta beste talde bat), Zestua, Zizurkil eta Zumaia.

Hemen agertzen diren herrietako antzerki taldeak osatzen zuten gutxi gora behera aipatutako biltzarra, elkarte honetatik aparte ere beste antzerki talde askok ere jokatzeko zuten eta aipamen bat merezi duena "Donostiako Iztunde Eskola" da.

Dudarik ez dago euskal antzerki mugimendua Gipuzkoan zegoela eta Gipuzkoaren muina Donostialdea zela bertan baitziren euskal antzerkiaren eredu izan zitezkeenak, biltzarrena Jarrai taldea eta biltzarretik kanpo Iztunde Eskola. Bilboko Kriselu antzerki taldeak bazuen eragina, sasoi honetan Brecht-en "Xistima zoriontsu bat" (La excepción y la regla) Arestik euskeratua eta Salvat-en "Ez dio ardu-*ra non jaio zeran*" G. Elorzak euskeratutako antzerki lanak antzeztu zituen. Baina zegoen tokian ez zuen inguru egokirik aurkitzen eta zaila izan zitzaion lurralde honetan zabaltzea. Bizkaiko beste taldeak berriz gehiago biltzen ziren Gipuzkoako taldeetara. E. 77

Donostiako antzerki mugimenduak iraunkortasun gehiago zue-  
nez Jarrai eta Iztunde Eskola-ren lanen zerrenda doakizue:

**JARRAI antzerki  
taldearen eskeintza**

**IZTUNDE ESKOLAREN  
eskeintza**

<b>Antzerki lana</b>	<b>Egilea</b>	<b>Urtea</b>	<b>Antzerki lana</b>	<b>Egilea</b>
		1953	Ramuntxo	Loti, P
		1954	Andre Joxepa Tronpeta	Alzaga, T.
		1955	Mutilzar	Alzaga, T.
		1956	Bost urtian/Ezer ez da festa	Alzaga, T./Soroa, M.
Urtaen sortzen ad		1957	Lagun txar bat	Barriola, A.
Antzerkien irakurketak eskeintzen dituzte.		1958	Lourdes 7ko lorea/ Au dek maltzurkeria	Gheon, H. Agirre M <sup>a</sup> D.
Motza errian, Elxe aldeketa Nor da eruduna	Artola, J. Karraskedo, J. Seca, M.	1959	Dollora/Goi argi	lizondo, J./Barriola, A.
		1960	Ehun dukat/Damu latza	Lekuona, A./Larzabal, P.
Ito edo...ezkondu	Ruiz de Añibarro, V.	1961	Zorigaitzoko eguna Beorraren ostikoa	Barriola, A./ Monzon, T.
Kristaiczko iruditxoak/ Odol bidea/ Menditarrak Ertzaina etxean	Williams, T. Monzon, Telesforo Priestley, J.B.	1962	Amal/ Etxahun	Tagore, R. Larzabal, P.
Arresi latza/Udaberriko gau artan lorik ez	Calvo S.J. Poncela, J.	1963	Txalupak jaberik gabe	Casona, A.
Bestelakoak/ Nor alkate/Beste mundukoak eta zoro bat	O'Neill, E. Larzabal P.Aresti, G.	1964	Zurgin zarra/Garo usaia	Monzon, T./ Karraskedo, J.
Andere etxea/ Historia triste bat	Ibsen, H./ Garmendia, X	1965	Oriko txoria/Orin	Lozano, A.
Gizon zuzenak/ Su itzailiak	Camus, A./ Frish, M.	1966	Txapela bete euri/ Impernuko dirua/ Inugarren itza	Gazzo, M.V./ Larzabal, P./ Casona, A.
Denak ziren nere semeak Gizona ta kidca	Miller, Artur Durrenmaunt	1967	Erreptorioko antzertiekin ibili ziren	
Azken maizterra	Ionesco, E.	1968	Iturri agor/ Etzan ate joka etorri	Garcia I.E./ Calvo S.J.

1968 eta 1969.urtean izan ziren Exzeptzioko legeak zirela eta bi talde hauek 7 oporrak hartu beharrean suertatu ziren.



Ikusten den bezela itzulpenak ugari ikusten dira bi taldeen zerrendetan, Jarrai taldean hamabi eta beste hainbeste Donostiako Iztunde Eskolan ere.

Gabriel Aresti Oiartzunen ezagutu nuen, zenbait bider Oiartzunen izan genuen Lartaun antzerki taldekoekin mintzatzera etorria eta bereziki X. Leterekin, bera baitzen guk jokutzen genuen taldearen kudeatzailea.

Jesus Mari zuk non eta nola ezagutu zenuen Aresti?

J.M<sup>a</sup>. Olano.-Hirurogeiko hamarkadaren haseran antzerki taldeekin harremak estutzen genbiltzan batean eta uste dut Elorrión, Bizkaiko herrixkan, izan zitkeela, lehen aldiz Arestirekin aurrez aurre topatu nintzen eguna. Orduan berarekin batera periodista bat zegoen hau Luziano Rincon zen, orain urte batzuk hil dana. Orduetik Arestiri jarraitu nion ahal bezain gertuen eta berak ematen zituen hitzaldi gehienetan ere, presente egoten nintzen. Oraindik gogoan daukat 1961ean Donostian eskaini zuen hitzaldia "Nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean" deiturarekin. Izugarritzko zartada sortu zidan barruan, han Arestiren ahotik hain sendo entzutean euskal antzerkiaren etorkizunari buruzko oinarritzko zutabeak zein ziren eta hori nola lortu behar genduen guztiok batera. Bati baino gehiagori begiak ireki zizkigun, oraindik oroitzen nahiz han mintzatutako zatietaz:

*...eta gertatzen da gaurko euskal teatroa ezte la gaurkoa, joan den mendekoa baizik. Horretarako bildu gara hemen, zahartasun zipriztin hori gure artean behin eta betiko alduritzeko. Gure teatroa moralista da, badirudi sermoi edo prediku bat entzuten dugula, euskal komedia ikusten dugunean...*

.....  
*Hori da gure lehen akatsa. Bigarrena hau da. Askotan esan da: Teatro txikian,*

*baina gure. Zergatik sartuko gera txikitasun zeken batean, gauza haundiak egiteko kapaz geranean?.....*

*Berdin kostatuko zaigu ona egitea edo txarra egitea, teatro haundia egitea edo teatro txikia egitea. Beraz, munduko teatroa estudiatu behar dugu, bertan zer ongi dagoen ikasi, eta bide horretatik perma eta abia.....*

*Metodoak eta teatroa egiteko bideak asko aldatu dira azken urte honetan.*

*Moduberri hoek ikasi behar ditugu, eta gure teatroan aplikatu.....*

*tu.....*

Hitzaldi mamitsua guretzat, Donostiako Jarraiko Mikel Forkada eta Iñaki Beobidek errez asimilatu zuten, hauek gu baino jantziagoak bai zeuden teatro unibersalean, eta gainera pentsa, ni nere herrira itzuli eta zer motako teatro egiturekin aurkitzen nintzen, gerla aurrereko antzerkilariekin tradizio mota bati erantsiak eta gainera ikuslearen harrera onarekin. Bestalde ohartu nintzen Arestik aipatu zituen baldintzak goizetik gauera ezin nituela gure baitan ipini. Nik neronek esaldi hauetan kontrasesanak baintuen, nolatan Goialde taldekoei adierazi?. Niri gertatu zitzaizkidan herrietako talde askori gertatu zitzaien.

1964.urtean euskal herriko taldeetako ordezkari zenbaitzuk bildu ginen harremanak sendotzeko. Baita Zaldibarren antolatu Euskal antzerki topaketak, hitzaldiak, elkarrizketak, eta abar. Hiru egunez luzatu ziren eta bertara azaldu ziren Ifarraldetik 14 talde eta Hegoaldetik 36. Arestiren presentzia ez zen faltatu eta gure harremanak estutzeko parada izan genuen.

1967.urtean Aresti hitzaldi bat ematera Hernanira ekarri genuen, hitzaldiaren gaia " Euskeraren izen poetikoak". Hitzaldi honetan presente egon ziren P.N.V.ko zenbaitzuk eta baita ELADIOko kideak ere, hauek E.L.A. sindikatutik kanpo gelditu zirenen taldetxo bat besterik ez zen. Guzti hauen helburua izan zen Aresti españolistaz akusatzea. Alperrikakoa

izan zen pertsonaia hauen maltzurkeria zeren hitzaldian entzule ginen herniarrentzat argi gelditu baitzen Arestiren zintzotasuna eta euskalduntasuna.

Dudarik ez dago Aresti gizona izanik bere akatsak eta bertuteak zituela, baina garaiko antzerkilari xehearentzat errebultsiboa izan zen. Bere eskeintza doainik zenez herri honek ez zuen artekoz hartu bere hainbat eta hainbat ekintza. Burrukalari aparta, eta beti galtzaile bezela jokutzen zuen. Beti itxaroten nuen Zeruko Argia aldizkaria erosteko "Gazte naiz" atalean idazten baitzuen beste zenbaitzuen artean.

Aurrena jakin nuen gaixorik Ea Bizkaiako herrira joan zela eta handik zenbait denborara berria etorri zitzaidan hil zela. Benetan sentitu nuen. Arestiren heriotzarekin kulpabilitatearen amorrua hartu nuen bere "Mugaldeko herrian eginiko tobera" antzerki lana ez taularatu izana, dena prestatua genuen, eszenografia eta pertsonaien karakterizazioaren diseinuak Mikel Forkadak inglaterraatik bidali zizkigun, baina gure lana hastera gindoazenean Legé Exzepzioa harri haundi bat bezela gainera erori zitzaigun eta ez genuen adorerik izan montaiarekin jarraitzeko.

Asko dago garai honetako antzerkietaz mintzatzeko baino nik uste honekin nahikoa izango dela.



Aresti, Jarrat laldekoekin, "Beste mundukoak eta zoro bat" antzerki ondoren, ikuslegoa agurtzen.

## **KARLOS PANERA "MASKARADA" ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIA- REKIN ELKARRIZKETA.**

Elkarrizketa hasi aurretik esan behar dut, Carlos Panera Bilbotar antzerkilari gazte honen unibertsoa, euskal antzerkia dela, hots, antzerki unibertsalaren iturrietatik edatea ahaztu gabe. Azpeitiako herria beti izan da gazte honentzako eta honek zuzentzen duen taldearentzako antzerki plazetatik preziatuena eta lan gutti izango dira Maskaradaren produkzioetatik azpeitiarrok ikusi gabekoak.

Carlos Panera, hobeto ezagutzeko liburuxka honetan atal bat eskeintzen diot beraren "curriculum vitae"a eta Gabriel Arestitaz dituen iritziak jasoaz.

### **Curriculum Vitae**

Carlos PANERA Mendieta, Arte Ederretan Lizentziatua. Gaur egun, Maskarada antzerki taldeko zuzendaria, Leioako UPV/EHU Teatro ikasgelan irakasle eta zuzendaria. Getxoko antzerki eskolan ere irakaslea. Bilbon, 1956. Urtean jaioa.

### **Antzerki zuzendari moduan:**

- 1980. Jimmy Pottolo eta zapataria. (Bernardo Atxaga)
- 1981. Logalea zeukan ekilibristaren kasua. (Bernardo Atxaga)
- 1982. Danbor majikoa (G. Rodari)
- 1983. Pistolaren begi zuribeltzak. (Dario Fo)
- 1984. Gabonetako ikuskizuna (Pedro Ingnazio Barrutia)
- 1985. Ezagutu Bizkaia. (Maskarada)

1985. Gastibeltzaren karabinak. (Marc Legasse)  
1986. Harrizko Aresti hau. (Gabriel Aresti)  
1987. Gernika 16:30 H.S.O. (E. Jimenez- Maskarada)  
1988. Kontrabajua. (Patrick Suskind)  
1989. Akerlarrua. (Maskarada)  
1991. Las carabinas de Gastibeltza. (Opereta popular)  
1992. El caso del equilibrista que no podia dormir. (Bernardo Atxaga)  
1993. Muera Cesar (Angel Gonzalez Mirou)  
1994. Monstruo Sakratuak. (Maskarada)  
1995. La importancia de llamarse Ernesto/Ernesto izatearen garrantzia.(O. Wilde)  
1996. Mundopolis –El chinago. (Jack London)  
1997. El cartero de Neruda / Nerudaren Postaria. (A. Skarmeta)  
1998. Izarretako bitakora (Stanislaw Lem)  
1999. Ikaro (Maskarada- J.C. Perez.)

### **Eszenografi moduan:**

1980. Makina beltza  
1982. Danbor majikoa.  
1988. Kontrabajua.  
1993. Muera Cesar  
1994. Monstruo Sakratuak  
1995. Ernesto izatearen garrantzia / La importancia de llamarse Ernesto.  
1996. Nerudaren Postaria / El cartero de Neruda.

### **Aktore gisa:**

- 1973. Retablo Urbano.
- 1974. Fábula con burro
- 1975. Cronicas del doctor Z.
- 1976. Vivir en Bilbao.
- 1977. Tripoontzi jauna.
- 1978. El jardin de la oca
- 1978. Nafarroa 1500
- 1979. Gizontxoak
- 1979. Prakaman.
- 1980. Makina beltza
- 1980. Jimmy Pottolo eta zapataria
- 1981. Logalea zeukan ekilibristaren kasua
- 1981. Pantzart
- 1982. Danbor majikoa
- 1983. Pistolaren begi zuribeltzak.

### **Zinea, telebista eta bideoa:**

#### **ZINEA:**

- La fuga de Segovia. (Imanol Uriberena. Aktore.)
- Cronicas de las guerras Carlistas. ( J.M<sup>a</sup>. Tudurirena. Aktore.)
- Urte ilunak / Los años oscuros. (A. Lazkanorena. Aktore.)

#### **TELEBISTA:**

- A ze paraa ETB.k ekoiztutako seriea. Zuzendari.
- Aktore gisa: "Duplex", "Jaun ta Jabe", "Bi eta bat".....

#### **BIDEOA:**

- 1982. Jimmy Pottolo eta zapataria.
- 1982. Logalea zeukan ekilibristaren kasua.
- 1983. Danbor majikoa.

1983. Zaunka egiten ez zekien txakurra

1984. Mattinen buruko min berezia

1994. Martzelo

1995. La roptura.

Honez gain Eusko jaurlaritzaren Beka lortu zuen Arianne Mnouschkian-ekin lan egiteko "Theatre du Soleil" konpainian, Parisen "Histoire du Pays de Leur rêves" (H. Cixous-en lana). Antzezteko.

Kurtso ezberdinen zuzendari eta hizlari, beste askoren artean UPV/EHU. Ikasgelan eta Graduondokoa. Getxoko eta Bilboko Antzerki Tailerretan. T.A.S.O.C-en laborategi artistikoan eta abar.. ASKEREN partaidea.

### **Elkarrisketa**

Paneraren aurkezpena egin ondoren jarraian elkarrizketari lotuko gatzaizue:

Eugenio.- Noiz eta non ezagutu zenuen, Gabriel Aresti?

C. Panera.- Aresti ez nuen pertsonalki ezagutu, eta haren lana ere berandu samar. 1975.urte inguruan izan zen. 1980. Urtean Maskarada antzerki taldea Bilbon sortu genuenean eta antzerki talde honen lehen urratsak ematen zituenetik, euskal antzerkian eta euskal kulturaren problematikan, hainbatek oroituazi ziguten, Aresti bizi izan balitz bera izango zela gu lagunduko zigun antzerkilaria. Egun batean eta bestean beti kantu bera entzuten genuen: .....Aresti bizi izan balitz... Gu, laguntzaile euskaldunen bila abiatzen ginen bakoitzean gure elkarrizketetan Arestiren izena ahoan eta belarrietan jartzen ziguten eta hainbat bider entzun ondoren,

umezurtz sentitu ginen.

Maskaradaren lehen urtetako umezurtza eta Arestiren presentziaren ezak buruari hainbat bira ematera bultzatu zigun eta beste alde baita ere Aresti egunetik egunera gehiago ezagutzera bultzatu. Berari buruzko antzerkia "Harrizko Aresti hau" prestatzen hasi ginenean benetan Aresti ezagutu nuen, bere ispiritua berpiztu nahian, hau da bizitzan zehar izaera pertsonalak taularatzea nahi izan genuen.

E.- Ze ondorio ekarri dizute, Arestiri buruzko oroitzapen guzti hauek.

C.P.-Aresti Bilbotarra zen, kaletarra, euskaldunberria, teatrozalea, berritzailea, ausarta, konprometitua..... lehenengo momentutik asko identifikatu ginen berarekin, ni eta Maskaradako partaide guztiok, eta beti pentsatu dut denboran koinziditu izan bagenu elkarrekin lan egingo genuela.

E.- Zure zuzendaritzapean, Maskarada antzerki taldeak "*Harrizko Aresti hau*" ikuskizuna taularatu zuen. Zer motako esperientzia izan zen?

C.P.- Arestiren familiarekin eta lagun-ezagun askorekin hitzegin genuen, argitaratutako lan guztiak bildu genituen, bai eta liburutegietan aurkitutako lanak (Aldizkari eta egunkarietako artikuloak, gutunak eta abar.) ere eta, material guzti honetatik behar genuena edo egoki iruditu zitzaiguna hartu genuen haren lana eta bizitza isladatuko zuen puzzle bat osatzeko.

"*Harrizko Aresti hau*" antzerkia Arestirena zen, bainan dudarik gabe gurekin konpartitua. "Arestiren ispiritua" oinarritzat hartu genuenean era bat horretara murgildu ginen, aurrez esan dudan bezela ahal



genuen gehiena irakurriz, ikuskizuna osatu genuen, eta guretzako osaketa hau izan da Arestiren adierazpen zehatzena. Eta lan honi esker Maskaradak ondorengo hainbat eta hainbat ekintza branka berritik antolatu ditu. "*Harrizko Aresti hau*" ikuskizunak Maskaradan zaletasuna eta kemena eskeini zuen eta ondorioa oso ona izan zen, taldekideen lan-batasuna, lan-era berri bat lortu genituelakoz eta honi lotu behar diogu partaide guzien adierazpen artistikoaren koherentzia; honela iritxi ginen hainbat aldiz aipatu dudan "Arestiren izpiritu"ra.

Niretzako Aresti intelektual bat izan zen, jakin, bazekien euskal kultura eta gaztelerakoaren arteko zubia ipini eta batetik bestera ibiltzen nahasketarik sortu gabe; bereizten zituen giro progresista eta errektionarioa, eta momentu guztiz bazekien non egon behar zuen, "Txin, txin, diruaren hotsak" ez zuen lilurutzen ez eta menpeko erortzen. Giro urbanoan jaio arren baserrikoa ez zuen bazterrean uzten hartakoz hartzen zuen, merezi zuen tokian jarriaz.

"*Harrizko Aresti hau*" antzerkiak esan duten moduan behar bada euskal eszenan ikusitako lehen antzerki post-modernoena izan da. Antzezlanak, zirkuitatzeko zaila zen. Jende askok hartzen zuen parte: 7 aktore, Oskorri abeslari taldeak zuzenean eskeintzen zituen abestiak, eskenografia nahiko pisutsua zen, teknikari ugari..... Kostu haundiak eta baita tekniku aldetik asko zirenez, ezinezkoa zitzaigun herriz-herri programatzea. Eskeini genituen emanaldiak hauek izan ziren: Bilbon 10 emanaldi, Gasteizen 1 eta Donostian 3. Ikusle goaren harrera ona zela esan behar, emanaldietan ikusle kopurua, haundia izan bai genuen.

E.- Maskaradak zergatik ez du Arestiren antzerki lanik taularatu?

C.P.- Zergatik ez haren beste lan bat? Betiko galdera –zergatik ez euskal

idazleen antzerkilariek?- eta erantzuna: Antzezlan bat muntatzea oso zaila da, arrisku handi bat da talde profesional eta ez-instituzional batentzat. Oso ondo aukeratu behar da, eta faktore asko hartu behar dira kontutan. Faktore garrantzitsu bat norberaren gustoa eta ideologia da, baina beste faktore batzuk ere hartu behar dira, distribuzioa adibidez.... Gure antzezlanak edo antzezlanetarako ideiak literatur unibertsalean (bai eta zinea, egunkari edo telebistan ere) bilatzen ditugu, eta hala ere zaila da aukeraketa.

E.- Zure ustetan, gaur egungo antzerkilariek ezagutzen dute, Aresti?

C.P.- Oker egon naiteke baina susmoa dut Euskal Herriko antzerkilariek gutxi ezagutzen dutela. Inork gutxi ezagutzen du ondo Arestiren lana eta askoz gutxiago haren teatroa.

E.-Azpeitiako Antzerki Topake-tek, aurtengo urtean Aresti omentzeari buruz, zer pentsatzen duzu?

C.P.- Arestiren irudia eta lana omentzeko eta ezaguerazteko egiten den guztia oso ondo iruditzen zait. Ahal bezain gehien sakondu behar dugu Arestiren irudian, ez da aski bere lan literarioekin, baita ere bere izaera, euskeraren egoeraren aurrean sendo eta ausardiarekin erantzuten jakin zuelako.



## ARESTIREN ANTZERKI PRODUKZIOA AZTERTZEN

Arestiren sormenezko antzerkiak sei dira eta beste hainbeste itzulpen. Lan honetan aztertuko ditugunak sormenezkoak dira.

Disgresio labur bat eginaz berriro Arestik itzulpenetaz zuen iritzia hona ekarri nahi dut, zeren nahiz eta nik bi ezagutu badirudi gehiago izan direla. Interesgarria da hau irakurleak jakitea:

Euskal teatro berri baten beharra: Euskal komedia (1964.urtean emandako hitzaldia)

*Euskal teatroak dadukan bigarren problema horixe baita: idazleen falta. Askotan galdetu zait niri, ea falta hori kanpoko antzerkiekin bete litekeen, ea zilegi den, gure artean teatro idazle onik eztagoen bezela, kanpoko, atzerriko antzerkiak aukeraz jartzea. Eta zer esanen dut? Ezetz esanen banu, zorakeria litzake. Nire iritzia da gure artean munduko idazlerik hoberenak baleude ere, antzerki itzuliak eman beharko genituzkeela.*

*Nire asmo oso zahar bat izan da beti, liburu bat egitean. Orain diodan liburua oraingo teatro modernoaren erakusgarri bat izanen da, bilduma bat, azken hirurogei urteotan eskribitu diren antzerkiarena. Bertan sartuko nituzke: Eugene O'Neillen "Anna*



Christie"; Thomas Stearns Elioten "Famili Biltzarra"; Paul Claudelena "Mariari eginikako Diosalea"; Diego Fabbriren "Jesuseb kontrako hauzia"; Graham Greenen "Gure bizi-lekua" Thornton Wilderen "Gure aginetako larrua"; Bernard Shawaren "Ama santa Joana"; Henrik Ibsenen "Arima erratuak"; Fritz Hochwälderena "Hotel du commerce"; Ugo Bettiren "Erreginaren etsaiak"; Samuel Becketten "Godoten zai"; Eugene Ionescoren "Kadirak"; Alejandro Casonaren "Bukatu gabeko sinfonia"; Luigi Pirandelloren "Eman nizun bizitza"; Albert Camusena "Kaligula"; Arthur Millerena "Salengo sorginak"; Ramon Valle Inclanena "Jainkoaren hitzak"; Leonidas Andreiefferena "tzad Garod"; Federico Garcia Lorcarena "Bernarda Albaren etxea"; Anton Chejoven "gerezitako baratzak"; Tennessee Williamsena "kristalezko Tresneria"; Jean Paul Sartrearen "esku zikinak"; eta Bertolt Brechten "Galileoren bizitza". Honekin piskat antza berri eman nahi izan nion gure teatroari; eta oso geldi lan egin badut ere, zerbait egin dut eta hogeitabaten antzerki hoietatik lau euskeratu ditut: Lorcarena; Txefofena; Vallerena eta Hochwälderena. Euskaldunen arimetan adore piska bat ikusiko banu, arinago lan egingo nuen, baina jentea zein gutxi arduratzen den ikusirik, gogoia galdu nuen.

Baina denporak aldatu direla dirudi; oraingo euskaltzaletasuna ezta orain lau urtekoa, teatro gaietan behintzat

Susa, argialetxeak, Arestiren lan-osoak argiratu ditu hamar liburuetan "Gabriel Arestiren literatur lanak". IX. liburua izena "Itzulpenak II", bertan bi itzulpen agertzen dira, bata Ugo Bettiren "Ahuntz-Herriko bide-gabea" eta Ramon Valle Inclanena "Jainkoaren hitzak". Patri Urkizuk idatzitako "Euskal antzertia" liburua agertzen da Bertolt Brechten "Xistima zoriontsua".

Arestik aipatzen dituen itzulpenak, Susak argituratutako bi itzulpenak eta Urkizuk adierazten dituen itzulpenak kontuan hartuaz deneta sei antzerki itzulpen diferente agertzen zaizkigu.

Sormenezko antzerkietara itzuliaz azterketako ez nahiz zehatz

mehatz ikerketa literariora eroriko ez eta antzerkiak taularatzeko erabiltzen den azterketan geldituko. Bietan oinarrituaz gazteci errezago egingo zaion lantxo bat agertu nahi nuke eta horretarako hiru alor nagusietan oinarrituko nahiz 1.- ANTZERKI OBREN EGITURA, 2.-ANTZERKI OBREN EDUKIA, 3.- ANTZERKIAREN HIZKUNTZA ETA ERRITMOA.

### **Antzerki obren egitura**

Gabriel Arestiren antzerki produkzioa, ezagutu eta argitara eman dako 6 antzerki lanek osatzen dute. Antzerki hauen fitxak honela agertzen zaizkigu:

#### **ANTZERKIAK:**

##### **"Mugaldeko herrian eginekako tobera"**

Antzleriak	Emakume.	Gizonezk.	Ekintzak	Egitura	Antzez.Era	Idatzia	Sariak
11	2	9	2	Komedia	Irrealista	1961	T. Alzaga-1961

**ARGITALPENAK: EGAN 1961. 4-6 / "Lau teatro Arestiar". Lur Donostia 1973 / G. Aresti Literatur Lanak-7: Antzerkiak". Susa Donostia 1986.**

##### **"Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme Santua"**

Antzleriak	Emakume.	Gizonezk.	Ekintzak	Egitura	Antzez.Era	Idatzia	Sariak
8	2	6	2	Parabola	Realista	1962	-

ARGITALPENAK: EGAN 1963. 4-6 / "Lau teatro Arestiar". Lur Donostia 1973 / "G. Aresti Literatur Lanak 7: Antzerkiak". Susa Donostia 1986.

**".....Eta gure heriotzeko orduan"**

Antzleriak	Emakume.	Gizonezk.	Ekintzak	Egitura	Antzez.Era	Idatzia	Sariak
6	-	6	3	Trajededi-Dramatikoa	Realista	1962	-

ARGITALPENAK: "G. Arestiren Literatur Lanak 7: Antzerkiak". Susa Donostia 1986

**"Oilarganeko etxola batean"**

Antzleriak	Emakume.	Gizonezk.	Ekintzak	Egitura	Antzez.Era	Idatzia	Sariak
7	1	6	3	Trajededi-Dramatikoa	Realista	1963	-

ARGITALPENAK: "G. Arestiren Literatur Lanak 7: Antzerkiak". Susa Donostia 1986

**"Beste mundokoak eta zoro bat"**

Antzleriak	Emakume.	Gizonezk.	Ekintzak	Egitura	Antzez.Era	Idatzia	Sariak
10	4	6	4	Komedia	Irealista	1964	-

ARGITALPENAK: "Euskal Elerti 69". Lur Donostia 1969/ "G.Arestiren Literatur Lanak 7: Antzerkia" Susa. Donostia 1986.

### "Justizia Txistulari"

Antzulariak	Emakume.	Gizonezk.	Ekintzak	Egitura	Antzez.Era	Idatzia	Sariak
13	3	10	2	Komedia	Irrealista	1965	-

ARGITALPENAK: "EGAN 1967 1-6" / "Lau teatro Arestiar" . Lur. Donostia 1973 / "G. Arestiren Literatur Lanak 7: Antzerkiak". Susa. Donostia -1986

#### **Antzerki obren edukia**

Antzerki obren edukia hainbat zutabeetan oinarrituz aztertu dezakegu baina ibilbide nahasian ez erortzeko, oinarritzko hiru zutabeetan Giroa, Gaia eta Gatazkan oinarrituko gara.

Nahiz eta Arestiren antzerki produkzioa ez ugaria izan guztiak bi alorretan banatzen ditut. Ondorengo sail hauetan:

- 1.- Ankerkeriaren nagusikeria.
- 2.- Hipokresiaren sareetan.

#### **1.- Ankerkeriaren nagusikeria.**

Arestiren antzerkiko produktioetik hiru, sail honetan sartzen ditut: "Mugaldeko herrian eginikako Toberak"; "Justizia txistulari" eta "Oialarganeko etxola batean" antzerkiak dira.

#### **Mugaldeko herrian eginikako Tobera.**

- Giroa



Antzerki honen denbora kokatzeko historian atzeratu behar dugu Frantziako iraultzaren ondorengo edozein egunetara. Mugaldeko herrjxka txiki batean aurkitzen gera. Noblezia apurru eta beste ordena ipintzen den lehen denboratan. Errepublikako soldadoak, Agintari baten agindupean herrian sartzen dira. Errepublikako soldadu eta agintariaren presentzia adierazteko herrian bandoa ematen da. Atabalaria, herritarroi honela mintzo da:

☺☺ Irudiak, textuaren zati bat dela adierazten du.

.....erreboluzioak bentzutu zuenetik aurrerantzean, mugartear guztiak gara anai, gara libre. Erregeen denpora zikinetan, premia ematen zitzaion goikoari,goian zegoelako, eta kastigua behekoari, behan zegoelako. Egun eztago ez goirik ez beherik, guztiok gaude altura berean, guztiok gara anai, beydin eta libre.....

Antzerki honen giroa tobera antzean oinarritzen da eta guzti honen azalpena herriko apaizaren ahotan modu honetan agertzen da:

☺☺  
"... Herriko norbaitek bizitza ez ona daramanean, eta senar emazte arteko harrema netan gauza itsusi bat dagonean, mutilek haiengatik burla egiten dute. Bertsolari bat ekarriz egiak esaten dizkiete. Askotan, bertsolariak bertso papera ateratzen du. Hori egiten dute, andre alargun bat mutil gazte batekin ezkontzen danean, mutxurdin bat donado batekin ezkontzen denean. Andreak bide okerra hartzen duenean, mutilek toberak ateratzen dizkiote gizonari, eta honek erremedio bilatzen ezpadio egoerari, haren zezen adarrekin kontent geratzen baldin bada, orduan tobera mustra bat muntatzen zaio"

#### • Gaia

Berriro ere Gaia zehazteko unean egileak pertsonaien ahotan, kasu honetan "Mandararia"ren ahotan ondokoa ipintzen du:

*Probatu behar dugu lehenbizi soldadua hil zutela, edo hobeki esanik hil zela, etzela estranjeriara eskapatu. Gero hil zutela, etzuela berak bere burua hil, eta heritasun batez etzela hil*

• Gatazka

Hilketaren ikerketa da, Errepublikak berriko agintarien zeregina. "Atabalariaren" ahotan edo bandoan gatazkek nondik norako bidea hartuko duen, herriari eta denbora berean ikusleari adierazten zaio:

○○

*.....Judizioak garantia guztiak eduki dezan, soldado konpainia bat etorri da, eta orain altzatzan dute haien kanpamendua herriaren inguruetan. Konpainia honen manuan, oso kapitain agurgarri eta bizartsu bat etorri da, apaiz jaunaren ostatua hartuko duena. Apaiz jaunaren etxean neskamerik baldin badago, despedi dezala harek, gure kapitainak franko higuintzen baititu andreak. Mandatari Berezi jaunak berriz eskola maisu jaunaren etxean hartuko du ostatua, eta eskola maisu jaunaren etxean neskamerik baldin ezpadago, har dezala berehala neska pare eder bat, gure Mandataria oso andre zalea baita.....*

Gatazkaren sarearen lokarria ankerkerizko linoa erabiliz egindakoa da eta egileak sarearen maila osatzen duen heinean ankerkeria argiago gelditzen da.

Egileak gatazkaren uneak bi ekitaldietan banatu ditu eta ekitaldi bakoitzaren bestearekiko lotura honela planteiatu du:

*I.- ekintza:*

1.-Atabalariak herriari adierazten dio, errepublikako Mandataria eta soldaduen presentziaren arrazoia. Une berean ikusleei Atabalariaren

bandoak ankerkeriaren lokarria mailaz maila nundik nora joango den esaten die. Ankerkeriaren argitasunaren printza bat; Atabalariaren ahotan:



*Probatu behar duzue erreboluzioaren seme leialak zaretela. Leialtasun hori probatzeko lehenbiziko urratsa, etorri garen soldado guztion alimentua, osta tua eta libertasioa zuen kargura korrituko da, judizioak dirauen bitartean. Honela traba eta oztopo gutti iminiko diguzue.*

Herria mendekutz hartzen dute eta gerla denboran egiten den modura indar harrotzen aginduetara herriak makurtu behar du, Atabalariak honela jarraitzen du:



*...baldin inor inora joateko premia haundian badago, gure Mandatariaren eskuak firmaturikako pasaporte berezi bat eduki beharko duela....*

2.- Mandatariaren agerpeña herriko plazan egiten da eta bertan daudenak herriko bi bertsolari mozkor dira. Hauek giroa bizitzen dute, Mandatariarekin mintzatuaz. Herriko Alkatea, Medikoa, Maisua eta apai-zaren bila Mandatariak soldadoak bidaltzen ditu, bitartean Mandatariak bi bertsolari xurruteroekin mintzatu nahi du eta Kapitainari honela dio:



*Mundu honetan bi person klase daude bakarrik egiak esaten dituztenak, haurrak eta hordiak.....*

Denbora guzti honetan herritarrak etxeetan gorderik daude.

3.-Mandataria eta Kapitaina solasten dira, bi hordiak expetxeratzeko agindua eman ondoren. Kapitainak Mandataria loriatzen du, honen harropuzkeria gehiago puztuz. Mandatariak, honela erantzuten dio:



*...gizartearen giltzarria gara, mundua sustengatzen duen oinarria, aberatsa*

*ren segurantz eta pobrearen esperantza.....*

3.- Mandatariaren presentzira soldaduek: Alkatea, Medikoa, Maisua eta Apaiza ekartzen dituzte. Elkarrizketa Alkatearekin hasten da eta Mandatariaren lehen erabakia Alkatea bere agintetik destituitzea da. Ondoren banan-bana pertsonaiekin elkarrizketatzen da giroa pixka bat baretuaz.

## *II.-ekintza:*

4.- Lehen ekintza amaitzen den antzera hasten da bigarrena pertsonaia berdinak mintzatuz, hasera lasaia, Mandatariak Apezakin solasaldi luzea egiten du. Toberak zer diren eta montatzearen arrazoiak agertzen dizkio apaizak. Mandatariak Alkatea eta Medikoa bere presentzira agertzea eskatzen du eta Mandatariari nahi zuena esan ez diotelako afusilatzea agintzen du. Honetarako ematen dituen arrazoiak hauek dira:

*....ixiltzen den inozente bat, inozent tonto bat da. Eta tonteriak kastigoa merezitzen du. Biak urkatzen edo afusilatzen baditugu.... kriminal bat edo tonto bat afusilatuko dugu. Munduak eta gobernuak gure ekintza estimatuko dute.....*

5.- Epaiketak aurrera jarraitzen du, Mandatariak epaiketara testigu datozen pertsonaiei gogoratzen dizkie Alkatea eta Medikoa gertatutakoak eta kontuz ibil-tzeko zori berdina ez badute izan nahi. Maisuaren elkarrizketatik pertsonaia berri baten izena agerian gelditzen da eta hau Belen da.

6.- Belen Mandatariaren aurrera ekartzen dute. Honek emakume gaztearen edertasun liluragarriaz gozatu nahi du eta gure pertsonaia anke-

rra ez da adarretatik ibiltzen, honela zuzentzen zaio neskatxari:



....*Begira, neska, nirekin artez ibil... Eztut nik txantzetan ibili nahi. Horregatik gauzak argiro esanen dizkitzut. Herri honen etorkizuna nire eskuetan dago. Eztuzu ikusi nola afusilatatu diren oraintxen gizon bi? Honela afusilatuko ditut hemengo gizon andre guztiak nire gutziari amore ematen ezpadiozu. Entzun.*

Epaiketara Maria, hildako soldaduaren emaztea sartzen da eta Mandatariari esaten dio bere senarraren hiltzailea herriko jendea dela eta justizia egiteko.

7.-Mandataria, Belen lore ederraz gozatzeko irrikak erabaki zehatza hartzera eramaten du: ankerkeriaren gailurrera iritxiaraz, Epaiketako sententziak bi alde dauzka: Maria hildako soldaduaren emaztea erruduna bada, urkatzera eta bestea herritarrak badira errudunak, herria suntsitua izango da, Erabaki hori hartzeko "Leon Kastillo" jokutzen du; moneda aidera bota eta erregearen aurpegia bada Maria urkamendira eta gurutzea ateratzen bada herria suntsitu, honetarako erabiltzen duen txanponaz honela dio:



*Diru ona da, erregearen diru zaharra, zilarra.....*

Azkenean, gurutzea gora begira gelditzen da eta Mandatariak Kapitainari agintzen dio erabakia betetzeko, bitartean berak Belen indarez berarekin eramaten du.

Justizia txistulari.

- Giroa

Antzerki honen denbora Erdi-Aroaren haseran kokatzen da. Egileak nobleen neurri gabeko agintaritzako denboretara eramaten gaitu.

Agintaritza honen adierazgarri dugu Egileak Juan Garcia, Mujikako kondeak herriko apaizari esaten diona:

... Goiko jaunak hemen dagoen guztia neri eman didala, adimentu haundiz dena gobernatu dezadan. Eliza ere nerea da, eta barruan dagoen guztia ere..... Elizatik kanpora ere dena da nere, lurrak, eta soroak, etxeak, estalpeak eta mandioak, errota, ola eta perratokiak, arbolak, beren fruitak agostoko uztak, errekaen barreneko arraiak, basoko ehizak eta baita eguardian zeruan argitzen den eguzkia bera ere, jabetasun hau, propietade hau, ezin diskutitu liteke. Eta nik nere soldadoak ditudan bitartean ez da diskutituko.....

Jaun kondeak ederki adierazten dio apaizari, bera dela Jainkoaren hurrengoa eta bere dominioetan arnasa hartzen duen guztia bere menpeko dela. Horregatik belaunaren eskubidea ere kondearen pribilegioa zen. Neska ezkon berriak, lehen gaua kondearekin pasatu behar izaten zuen, kondeak nahi izaten bazuen behintzat. Gozameneko eskubide hau saldu zezakeen.

- Gaia

Mujikako konterrian aurkitzen gara eta kondeak bere nolazbaiteko belaun-eskubideari eutsiaz, ezkondu nahi duen Eder neskatxarekin seme bat izan nahi du. Eder-en senargaia Pilotak ez du onartzen eta beste gazte batzuekin batera burrukatzera mendira joaten da. Mendiratutako mutil gazte bat honela mintzo zaie herrian dabilzan bi profetei:

....Herri gaztea armetan mendira atera da. Zuen promesa austen baduzue, bihar probintziako mutil guztiak zuen kontra etorriko dira.

- Gatazka

Belaunaren-eskubidean oinarritzen da Gatazka. Jaun Kondea alde

batetik eta Txordon Pilota bestetik. Antzerki honen Protagonistak: Gabon-Eder, Txordon Pilota eta Fernando Txistu dira. Antagonistak: Kondea, Mōsen apaiza eta kondearen gudariak.

Protagonistak elizatik boteak izaten diren unean hauen sentimenduak bide desberdinetik doaz, batzuentzat lotsa eta besteentzat amorrua, Eder berriz dantzatzuz iñortsok jotzen ez duen txistu doinuan zerura igotzen da.

Bigarren ekintzan Protagonista eta antagonista lehen ekintzako giroan mantentzen dira. Antzerkia giro berri batera murgiltzen da. "Enredoeko komedia" baten antzera. Lehen ekintzako pertsonaiak agertzen dira, Txordon eta serora erlijio berria zabaltzen, Jaun Kondearen emazteak Txordon Pilotarekin seme bat izan nahi du, eta nahaste guzti hau zuzentzen duten bi Profeta, hauek azkenean bi Inkisidore izanik. Antzerki honetan ere Ankerkerizko linoaz baliatzen da egilea gatazkaren sarearen mailak osatzeko, ondorengo moduan:

### *1.-ekintza:*

1.- Gatazkaren lehen sarearen maila Aita-alabak osatzen dute. Alabak aitari ezkontzeko baimena eskatzen dio herriko mutil gazte batekin. Aitak bere onespena ematen dio. Belaunaren eskubideaz mintzo dira eta aitaren ustez Kondea diru zalea denez eskubide hori salduko du.

2.-Bigarren sarearen maila, aurreneko bi pertsonaiak eta senar-gaia den Pilotak osatzen dute. Pilota Kondearengana doa belaunaren eskubidea erosteko, baina konde jaunaren asmoak beste batzuk dira, honela mintzo dira protagonistak

*Pilota.- Ez du saldu nahi.*

*Eder.- Zergatik? Ze arrazoi eman du?*

*Pilota.- Zurekin seme bastardo bat izan nahi du.*

3.-Hiru protagonistak ez daude amur emateko eta elizara abiatzen dira, injustiziaren aurka jaun erretorearen laguntzaren bila:



.....gizonen legearen gaitetik beste lege sendo bat badago, Jainkoarena. Berak agintzen du bere lege santuan, lagun urkuaren andrea ezin desiatu litekela

Elizako ministrua den Mosen apaizarekin mintzatzen dira, honck gazteen animoak baretu nahi ditu, gogorkeria ez erabiltzeko Kondeak agintea eta soldaduak dituela gogoratzen die, eta gazteei esaten Kondearekin mintzatuko dela. Apaizak Kondea elizara datorrela ikustean hau dio:



...Zuzen dago ezin serbitu litezke bi jaun..... Baiña horra nerea non datorren.

4.- Kondea eta apaiza aurrez aurre mintzatzen dira, eta Kondearen ankerkeria eta apaizaren morrontza, modu honetara agerian gelditzen dira:



....Orain ni ere barrura, elizara, sartuko naiz, eta nere lekuan jartzen naizen momen tuan bertan, mezaren sakrifizioari hasiera eman baiño lehen, hirurak boteak eta jaurtikiak izan behar dute Jainkoaren etxetik..

Apaizari, koldarkeria eta Kondearekiko morrontzak etekin onak ematen dizkio:

...Orain egitera nijoana ez da nere atsegiñekoa, baiña ala ere egin beharra da; Bi menedeetako ez baigera, eta iñork ez baititu mundu honetan bi bizitz, eta



*eguzki horren azpian geratzen zaizkidan urte pixarrak ez ditut galera batean  
arraun lodi bati katez lotuta igaro nahi:.....*

5.- Apaizak gure hiru protagonistak elizatik "Anatema!  
Anatema"! Karraxi eginaz eta sorginkerizko ekintzak direla adieraziz  
indarrez bidaltzen ditu.

6.- Elizaren atarian lurrera boteaz uzten dituzte. Hiru pertsonaiak  
adierazpen desberdinak egiten dituzte: Txistuk elizatik botzearen esanahi  
mingarria gaınditzeko edozein gauza egiteko prest dago, Txordon pitotak  
ez du onartzen eman dioten tratua eta Kondea borrokatuko du eta Ederrek  
dantzatzeko gogoak irrikatzen du eta aitak txistua jotzen ez duenez txis-  
tua berak bakarrik aditzen duen doinuan dantzatzuz zeruan izkututzen da.

## *II.- Ekintza.*

1.- Bigarren ekintza hascrako sare maila bi pertsonaia berezik  
eratzen dute Arlote eta Doktore bi pertsonaia bereziak aurreneko elkar ez  
idira ezagutzen eta ondoren biak aita bera dute, baina toki desberdinetan  
jaioak. Biak herri honetan agertzearen arrazoia Nahasmendua da.  
Ederren kasua Miraria edo sorginkeria, Fernando Txistu, doktriña berria  
irakasten han eta hemen dabil, Txordon Pilota herriko gazteriarekin  
burruka armatuan altxatu da, kondearen aurka. Kondeak Txordon ezin  
harrapatu eta kondesak berriz txordonekin seme bat izan nahi.

Antzerki honetan agerian gelditzen da Jaun Kondcaren ankerke-  
ria bere menpeko direnekin. Emakumeen duintasuna lokaztu nahi du  
horretarako eliza eta soldaduak erabiliz.

## Oilarganeko etxola batean.

*(Bilbo inguruan zeuden mehatz-barrutiko, Morro; Oilargain eta Mirivilla dei turazkoak, garapen haundiena izan zutenak izan ziren. Gaur egun Bilbo sarre rako "Malmasin"go lurpidebidea nork ez du ezagutzen, bada mendixka honen hegari, ibaialdean dagoenari Oilargainea deitura ematen zitzaion. Aipatutako garapen honen deira etorritako etorkinak magal honetan eraikit zen zituzten etxolak eta 60. hamarkadan Gobernuak langite-etxeak erakitzen hasi zen etxolak aurrez boteaz)*

### • Gaia.

Antzerki honen giroaren denbora (1961) urte ingurua da eta Bilbo hiri nagusian aurkitzen gara. Lehen ekintza Bilbo Zaharreko zazpi Karrikako ostatu batean eta beste bi ekintzak Oilargane deritzan mendixkako etxolatan.

Antzerkiaren ardatza Tereza neska gazte bat da.

### • Giroa

Antzerkiaren gaiaren laburpen egokiena Tereza pertsonaiak egingen du, modu honetan:

«...Batuek oro dadukat, eta beste askok ezker a gure gorputzaren jabe ere. Gaur egunean ohorea eta dirua batera doha.

Ez da harritzekoa Tereza horrela mintzatzea, probintziako neska gazte bat da, hiri nagusiko aberatx baten seme ezkonduaz liluraturik dagoena eta honen ostatuan lan eginaz bizi dena. Aberatsen semeak Tereza haurdun uzten du eta eskeintzen dion etorkizuna maitalearena da. Terezak horrelako proposamena entzuten duenean gorrotoa azalera atereaz bere guztizkoa izan zena orain txautu, suntsitu nahi du, bere erraie-

tan duen semea ere hiltzeko prets dago.

• Gatazka

Antzerki honetan protagonista (Josepe Zubia) eta antagonistaren (Tereza Urresti) rol-a garbi dago, bien arteko gatazkak inguru guziaz desegitera darama. Aurreneko ekintzan Tereza-k jakiten du, bere sabelean duen haurraren aitak ez duela haurra onartzen eta bera emagalduren mailan ipintzen duela. Ekintza honetan bere sabelean duen haurraz eta bere buruaz honela mintzo da:

.....Hobe hilik jaiotzen bada, eta haurra egiten dudanean nik ere harekin arima entregatzen. Hobe izanen da niretzat.

Lehenik Tereza-k bera eta bere haurra lurra irenstea nahi du, baina bengantzaren xarmak ere kilikatzen du eta ekintza ostatuari su ematen diola amaitzen da:

.....eta hartuko dut eskuan zuria, eta erreko dut zure etxe guztia..... jantziaren zurtasuna nola igartzen zen suaren azpian! Graziak ematen dizkizut, jauna, egun zoriontsu honetan bizi izaten utzi didazulako!

Bigarren ekintzan Tereza Oilargaineko etxola batean bizi da. Hernando (aurreko ekintzan) ostatuko morroia berataz maitemindua dago. Tereza bereganatzeagaitik edozein gauza egiteko prest dago. Terezak, Hernandoren gutizia zein den jakinik eta Josepe Zubiari oraindik min gehiago egiteko asmoz biak haurtxoa hiltzea erabakitzen dute, beraz ekintza horretan Hernandok laguntzea nahi du. Arratoi goseti bat harrapatu eta haurraren seaskara botatzen du Hernandok. Honela mintzo dira:

Tereza.- Zure laguntza emanen didazu, Hernando?

Hernando.- Bai, Tereza. Zuregatik edozer gauza egingen dut.

Tereza.- Haur txiki bat hil baino eztago munduan beste gauza errezagorik. Baina bidegabea ezkutatzea gauza gaitza da. Justiziak ez gaitu harrapatu behar.

Azken ekintzan aurkitzen gara, Josepek jakinik bere semearen heriotza, poliziari salatzen dio. Hauek ikerketa hasten dute eta Hernando erruduna aurkituaz kartzelaratzen dute. Josepek eta Tereza aurrez aurre jartzen direnean, Terezak, Joseperi ondoko labankada ematen dio:

Tereza.- Hernandok hil zuen, bainan nik eragin nion. Harekin ezkonduko nint zela prometituta nion.

Josepe.- Eta orain hola abandonatu duzu?

Tereza.- Zutaz mendekatzeko. Zure semea zen. Gainera beste gauza bat esan behar dizut (sakeletik paper bat ateratzen du) hau zer den badakizu? Zure aita ren gutun bat. Barkazio eskatzen dit, eta nere haurraren heriotzagaitik dolu minak presentatzen dizkit. Gainera dirua eskeintzen dit. Zuri tokatzen zitzazun partea niretzat izanen da. Zer deritzazu, Josepe? Ez naiz ondo mendekatu?

Josepek, Tereza golpe bat emanez korderik gabe etxola barruan uzten du. Une honetan etxola dagoen mendian eztanda gertatzen da eta lur jausi batek etxola azpian hartzen du, Terezaren biziarekin amaituaz. Dударik ez dago antzerki unkiagarria dela eta berriro ere jauntxokeriaren ankerkeriak neska gazte bat gorrotoan ipintzen du.

Diderot antzerkilari ospetsuak zioen "Antzerki lan baten osaketa bikien lana izan behar zuela, batek obraren argumentua prestatu eta besteak obraren elkarrizketa." Egileak antzerkiaren aurkezpenean honela dio:

"Hemen presentatzen diren jenteak eta lekuak egilearen buruak sortuak dira. Pasadizu guztiak berriz, Bilbo honetan gertaturiko

*ak dira, baina leku diferentetan eta jente diferenter. Egileak elkarrekin tajutu besterik eztitu egin, gure denborako Bilbo hone tako lekukotasun bizi eta bakar bat nahirik"*

### **Hipokresiaren sareetan**

Hipokresia alorrean sartzen diren Arestiren obrak hiru dira: "Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua"; "...eta gure heriotzeko orduan" eta "Beste mundukoak eta zoro bat".

Aurreneko bi antzerkien azterketak eramaten dit pentsatzera momentu batean egileak beste asmo batzuk zituela eta gaur, hogeita hamar urte beranduago bururatzen zait, Arestik bi antzerki hauekin antzerki trilogikoa egin nahi zuela, honela banatua:

- 1.- Etxe aberatseko seme galdua
- 2.- Maria Madalenaren seme santua
- 3.- ... eta gure heriotzeko orduan

#### **1.-Etxe aberatseko seme galdua.**

- Giroa.

1963.urte inguruan, Bilbo hiri nagusian aurkitzen gara eta joko espazioaren giroa egileak honela adierazten digu:

*"Tolerantzi-etxe bateko atarian, bilboko Cortes Karrikan. Emagaldu batzuk ikusten dira, paretan kontrako aulki luze tapizeria oneko batean. Batzuek fumatu egiten dute. Oro daude jantzirik haien ofizioak eskatzen duen uniforme desberdinarekin.*

Agertzen diren pertsonaia guztiak giro honetan murgiltzen dira

giroaren oinarria sexua da. Sal-erosketako produktoa.

- Gaia.

Berriro gaiari buruzko iritzia pertsonaia bati entzutea hobe dela iruditzen zait:

○○

*".....gaurko Diojones berri baten modukoa naiz ni, Matilde. Eskuan bihotz bat daramadalarik, andre baten bila nabilena. Orain arte ez tut aurkitu. Beraz, puta-etxe batera etorri naiz, ea hemen aurkitzen dudan, etxe prestue tan aurkitu ez-nuena....."*

Azken batean gaiaren funtsa etxe oneko mutil bat emakume baten bila puta-etxe batera doala da, lagun baten aholkuari jarraituz, gizonetzko "Celestina"ren aurrean aurkitzen gara.

- Gatazka

Antzerki honen gatazka hiru pertsonaiek osatzen dute, modu honetan banatuak; "Progonista" Marti eta "Antagonistak": Matilde eta bere izkutuko semea "Seraphicus" Protagonistari buruz dakiguna etxe aberatxeko semea dela da. Bere burua asentatzea pentsatzen du, familia bat osatu eta horretarako emazte bat aurkitzen du, hau emagaldua da.

Matilde, "antagonistari" buruz; pertsonaia batek hondoko deskripzioa egiten du:

○○

*.....zerbitzuko neskamea zen, Gaztelako baserri batetik Bilbora etorri zena, bai-lanbila eta senar-bila. Hemen gizon lotsagabe bat ezagutu zuen, haurdun utzi zuena, eta gero gure gizarte gogorraren konprensio-faltaren aurrean, haurrari edukazioa eta elikatura emateagatik, hau beste ofiziorik edo mantentzerik etzuen aurkitu....*

Antagonista aldean beste pertsonaia "Seraphicus" da eta honetaz

bere ama, Matilde honela mintzo da:

○○  
.....haur batek bere amaren esnea hartu behar du. Baina hemengo gaizta  
keriaz ez nuen nahi ukan, kutsa zedila eta euskal baserri batera bidali nuen.  
Han egon zen hamar urte eduki zituen arte. Gero fraile-komentu batean sartu  
nuen. - B-42

Gatazka, ekintza batean gertatzen denez sarearen osaketa maila oso ximplea eta laua da. Bilatzen ari den emakume prestua non aurkitu eta puta-etxe batean. Maitasun hau indartzen da Marti-k jakiten duenean bere emaztetzat hartu nahi duen emakumeak seme bat duela eta gainetik komentu batean erlijio ikasketak egiten ari dela.

Gizartearen hipokrisiaren jostailu, emagaldua da, eta honek seme bat du. Ama nor zen jakin ez zezan beste sendi bati ematen dio hazi eta hezitzeko. Hots, beti ere diruz lagunduaz.

## 2-"Maria Madalenaren seme santua"

- Giroa.

Joko espazioa egilearen arabera honela kokatzen da:

○○  
Ama Birjina Epaltzakoaren Monasterioan gaude, bertako Abade Nagusiaren  
gelan..

Bertan hiru frailerren arteko elkarrizketa. Aipatutako espaziotik atera gabe.

- Gaia

"Iragana eta etorkizuna" Meza berria emandako fraileen artean.

• Gatazka

Seraphicus frailearen arabera iragana meza ondoren beste modu batera ikusi behar da eta honela dio:

.....Zutzaz erditu zen ama, ditia eman zizun ama, hori eztala zure ama. Zure ama munduko edozein andre, munduko neska dela. Zure anaia eztela zu egon zinen sabelean egon den gizona. Zure anaia dela edozein andreren egon den gizona.

Honela mintzo zaio Seraphicus beste anai fraile bati honek ahaztu ezina egiten zaion sendiaz. Seraphicusek, Jainkoaren jarraitzaile sutsu bezela jokutzen du eta galdetzen diotenean bere jatorriaz honela esaten dio Angelicus anaiari:

.....Euskal baserri batean egon nintzen ttiki denporan, baina badakit eta banenkien orduan ere, eznaizela hango semea, baina kontsolatu naiz beti, Jainkoaren semea naizela pentsatzearekin. Batzuk urrezko sehaskan jaio dira, eta gehienok eztugu kumarik eduki. Baina jaio, mundu honetara etorri, denok etorri gara odol eta zikin keriaren artean.

Abade nagusiaren gelan egotearen arrazoia da mixioetara joan aurretik Sanctus abade nagusiak bi fraileei berri zenbait ematea. Abade Nagusiak, Angelicus fraideari esaten dio berak gehien maite duena hil dela, Ama; eta orain arteraino etziola esan meza ematea atzeratu egingo zelako eta gainera mixiotako bidaiak egitea zaila egingo zitzaioela. Seraphicus fraideari Sanctus abadea zuzentzen zaio esanaz bere ama emagaldu bat dela eta orain abadearen iloba batekin ezkondu dela. Seraphicusek erreakzio bortitza izaten du eta abade nagusiari zuzenduaz honela dio.

.....beste gizon bat izan balitz, berehala hartuko nuke eskuekin lepotik, mihin



*zikin hortrek haren zila tapa lezan arte, more bizian, hala Jainkoa, zeruetan dagoena!*

Azkenean bere onera etortzen da eta Abade nagusiari barkazioa eskatzen dio.

Hemen Seraphicusek erakusten digu zer erreza den nor berari ez dagokionean mintzatzea eta zein zaila den nor berari gertatzen zaionean.

### 3-...eta gure heriotzeko orduan

- Giroa

Joko-espazioa Afrika beltzeko edozein herrixka, mixio-etxean aurkitzen gara

Afrikan gure fraideak mixioetan dabilta baina Afrikako lurralde hau nahastua dabil erreboltariak direla eta.

- Gaia

Beltzen eta txurien arteko ezin ulertua, bi mentalitate desberdin daudenez elkar jotzen dira eta konbibentzia ere ez da erreza. Pertsonaien ahotan ipintzen dira, "Negroak" eta "Blankoak" expresioak, mauri basatiak eta xuri zibilizatuak adierazteko.

- Gatazka

Gatazkaren sarearen osaketa honela egiten da:

### I.-Ekintza

Beste fraideen artean aurrez ezagututako Fraide Angelikus eta

Seraphicus aurkitzen dira eta hauen artean beste fraide beltz bat ere bada-  
go. Sarearen maila bat ekintza honetan osatzen da eta gatazkaren iturria  
Albinus fraide beltzak eskeintzen digu.

.....Ifarreko Ameriketean, hango estadistikek dioten arauera, berrogei miloi  
negro daude. Negro hoek orain europeanoak dira, haien lur amarekin edozein  
lokarri apurturik dadukate bihurrerarik eztago. Hango Klansman askok Liberia  
berri bat fundatu nahi lukete Afrikan, baina lehengo saioarekin nahiko da. Ez  
lirake aklimatatuko. Gainera, zergatik eztoazi amerikako blanko guztiak  
Europara, bertan Esklabia bat fundatzera?

Fraideen artean Ntxutxuma erreboltaerien soldadua agertzen da eta  
berri bat ematen die bere fraide adiskideei.

.....Zuentzat notizia txarra dakart. Soldado errebelatuek Aita Sanctus hil dute

Giro honetan amaitzen da ekintza hau.

## II.-Ekintza

Bigarren ekintza honetako sarea bi hausnarketetatik doa alde  
batetik Aita Nagusia hila dagoenez beste berri bat hautatu beharra eta  
bestetik erreboltaariak duten kontzeptua erlijiotaz; lurralde horretan  
mixiolariak onartuko dituztela baldin erromarekin dituzten loturak haus-  
ten badituzte. Ntxutxuma beltzak gobernuaren nahia honela adierazten  
du:

.....Gure gobernu berriak Aita Santu beltz bat nahi du Afrika guztirako, eta  
gure Winifredo Odumagan, zuen Aita Albinusengan pentsatu dute. Horregatik  
gazteatu diot..... Izenez aldatu behar du, Aita Albinus izan gabe,  
Aita Nigrus izateko.

---

Ekintza honetan sareari beste maila bat erantsi beharrean gaude zeren Aita Albinusek Aita Saindu beltza izateari ezetz esaten dioenean Ntxutxumak badaki erreboltariak fraideak hilko dituztela eta honela dio:



*.....Martiri kristau zaharren moduan sufrituko duzue. Badakit. Baina nik ezti zuet hola hiltzen utziko, arratoiak bazinate bezala. Zuen bizitzak azken momentuan defenditu nahi badituzue, hemen uzten dizuet nire metraileta.*

### III.-Ekintza

Erreboltariak noiz etorriko fraideak mixioan daude. Bitartean bakoitzak iraganeko hausnarketak egiten ditu. Metraileta hotsak entzuten direnean aita Seraphicusek lurrean dagoen metraileta hartzen du, baina aurrez honela dio:



*Nire ama emagaldu bat zen, Bilboko etxe bateko ugazabandrea. Baina nik eznenkien. Eta egun batean, Aingeruri (Angelicus fraidea) bere amaren heriot zaren berria jakin zuen egunean bertan, ama bat nendukala esan zidaten. Eta ofizio likits haretako izanagatik ere, munduko andrearik prestuena zela, gure denboretako Maria Madalena berri bat. Gogoratzen zara Aingeru? Madalena eta Kleofe Andredona Mariarekin gurutzearen oinetan belauniko. Ja-Jai! Trinka ederra gera gu! Lau martiri egoki ; Gartzelarik ederrenean sartzeko koadrila aproposa! Lapurra, hiltzalea, sodomita eta ama nagusiaren semea....*

Seraphicusek lurrean duen metraileta hartuaz bere anai fraideei honela esaten die:



*.....nire bizitza defenditzeko eskubidea dadukat, eta defenditu egingen naiz.....kobardearen moduan bizi izan banaiz, gizonaren moduan hilen naiz. Ahalik eta beste negro hilen dut. Agur, mutilak. Infernua aurkitu ko nauzue.*

Eta beste fraideak errezuan gelditzen diren bitartean Seraphicus, kanpora atereaz beltzekin burrukatzen da.

Antzerki honi buruz egileak honela dio, bukaeran:

*" 1963urteko maiatzaren bi igandetan izan zen " .....eta gure heriotzeko orduan" tragedia hau eskribatua.*

*Beste mundukoak eta zoro bat*

Antzerki hau Donostiako Jarrai taldeak 1964.urtean Donostiako Antzoki Zaharrean aurkeztu zuenean Egileak esku-programan, ondokoa zioen:

*egilleak; hemendik, norbaitek egingo dion akusazio bat ukatu nahi du alde zurretik, Luigi Pirandello'ri eskola hartu diola, italiar Nobel-sariaren lana ezagutu arren, ez baitu atzerriko airerik euskal teatrora ekarri nahi izan (gure artean oso beharrezkoak izan arren, bestela). Euskal tradizio zar bat berrizta tu nahi izan du (orain gure artean ilda dagona). Tradizio horrek. Mondragoetar antzerki-gille Pedro Ignazio Barrutia eta Basagoitia eskri bauarengan hartuzuen gorputza eta egilleak haren gandik hartzen du eskola. Haren ikaslea aitortzen da.*

• Giroa.

~~Etxe arrunt bateko bi gelatan aurkitzen gara eta antzerkiaren lau ekintzetan ez da aldatzen. Sendi batean senar-emazteak bizi dira eta emaztearen lau anai-arrebak ere bai.~~

• Gaia

~~Kepa da etxe honetako buru egiten duena hiru deabruk, bere anima galdu nahi dute eta horretarako edozein bidez baliatuko dira.~~

• Gatazka

"Protagonista" (hiru deabruak) eta "antagonistak" (saindu bat) sortzen duten gatazka. Objektua Kepa da, eta gainerako pertsonaiak eszena zenbaituetan betegarri gisa agertzen dira.

I.-Ekintza

Ekintza honetan pertsonaia guztiak modu batean ala bestean aurkezten dira eta honen adierazgarri dugu kepa publikoari dioena:



*.....zorionez, hau guzti hau komedia bat da. Bestela izugarria izanen litzake hemen gertatuko dena. Baina euskaldun poeta barregarri batek eskribitutako komedia bat da. Zuen artean, jaun andreak, poeta barregarri hori baldin badago, Gabriel Aresti zorioneko edo zoritxarreko hori baldinbadago, mesede bat eskatu nahi diot hemendik. Begira, ni hezurrezko eta haragizko gizon bat naiz. Teatro honetara ekartzeko, izenez aldatu nau, baina oso ederki bizi nintzen ni, nire etxean.....*

II.-Ekintza eta III.-Ekintza

Sarearen lehen maila; Keparen koinatuen inbidiak, mintzatzen direnean biziki kritikatzeko baidute Kepa, nahiz eta koinatu guztiak honen kontura bizi diren. Eszena honek hirugarren ekintzan ere jarraitzen du.

Sarearen beste maila bat osatzen da Deabruen estrategiaren azalpenean; Keparen arima bereganatzeko mundutiar poliziaz disfrazatzen dira eta historiako une batean pertsonaia bitxi baten anima Keparen gorputzean sartzen dute.

Sarearen zenbait unetan "inbertsioa" egiten dute non bertan deabru eta sainduen elkarrizketa Bizkaiko fueroaz eta burnitegiei buruz den.

#### IV.-Ekintzan

Kepa mintzatzen da publikoari eta bere burua zuritzen du, esanez, mundu guztiak zorotik asko duela. Entzun diezaiogun:



*.....hoek ni bezela teatro batean daudela dakite. Mundu guztia teatro baten barnean sarturik dago eta kandilejen gainetik publikoa ikusten du. Ez ikusia egin behar da. Ni, zuekin hitzegiten dut, eta zorotzat ematen naute.....*

#### **Arestiren antzerkietako hizkuntza eta erritmoa**

Atal honetan Irakurleak jakin behar du "Hizkuntza" irakurtzera-koan ez naizela erabilera gramatikalaz mintzo, antzerkiko pertsonaiak eraikitzean eskeintzen zaizkion rol-ak, une bateko garai eta giro jakin batetaz ari nahiz.

Atal hau bitan banatuko dut, irakurleak erreztasunez ulertzeko. Sailkapena honela egiten dut. 1.- Irudimenezko antzerkiak eta 2.- Politikazko antzerkiak.

#### Irudimenezko antzerkiak

Sail honetan sartzen ditudan antzerkiak hiru dira: "*Mugaldeko herrian eginikako tobera*", "*Beste mundukoak eta zoro bat*" eta "*Justizia txistulari*"

B-49 Arestik antzerki hauek errealismo girotik at jartzen ditu eta sinbolismoaren alorrera eramaten ditu. Aurreneko eta azkeneko antzerkiak historiako une jakin batzuetan ipintzen ditu baina ez da historizismoan erortzen. Antzerki hauetan nahiz eta denbora eta espazioa urrutian egon, antzerkiko pasadizu asko, orain berri gertatutako pasarte askoren antzekoak dira.

Arestik irudimenezko antzerki hauetan nahiz eta joko espazioak irrealismoz osatuak izan pertsonaien eraikuntzan kontu haundiarekin jokatu izan du eta guzti honi erantsitzen badiogu aipatutako antzerkietan pertsonaiak egiten duen "inbertsioa" (Antzerki hizkuntzan inbertsioetaz ulertzen da protagonistaren ibilbidea, bai dala garaipenera edo heriotzera, alderantziz ipintzen denean muturkaketa baten bidez eta honek amaiera, batzuetan aldatu eta besteetan atzeratzen du.) antzerkiak pentsa ezi-nezko abiadura hartzen du.

Irudimenezko antzerkietako hizkuntza eta erritmoa bakarka aztertuko ditut.

- Hizkuntza

Arestik aurreneko eta azkeneko antzerkiak aurrez aipatu bezela kondairaren une jakin batzuetan ipintzen ditu, lehena "*Mugaldeko herrian eginikako tobera*" Frantziako iraultzan kokatzen da eta "*Justizia txistulari*" berriz Erdi Aroko lehen garaietan. Nahiz batean nahiz bestean "protagonistak" jauntxokeriaren eredu badira, morrontza dugu "antagonistaren" eredu.

Bi antzerki hauetako agintaritzako pertsonaien eraikuntza eta arima despotismoaren iturrietatik asetutakoena da, hala berean gainontzeko pertsonaiak morrontzako egituran eraikitzen dira.

Hirugarren, antzerkian "*Beste mundukoak eta zoro bat*", egileak pastoraletako giroa kontuan izan duela dirudi, pertsonaien eraikuntzaren arima eskeintzeko "protagonistak" hiru deabruak osatzen badute, "antagonistarena" berriz Sainduak egiten du. Konflikto honen sujeta Kepa da, bi aldeen arteko tirabiretan, haizeak hara eta hona darabilen hostoa da.

Hiru antzerkietako pertsonaiak erabiltzen duten euskera prosazkoa izan arren zenbaitzuetan giro poetikoa ere hartzen du. Pertsonaien ahotan giro inprobisatua nabaritzen da eta nahiz eta axaleko elkarrizketaren sentazioa iruditu, pertsonaiak noiz behinkako eztenkadak, irudi eta metaforak erabiltzen dituzten. Bati, goizeko ihintzan bustiaz hartzen duen freskutasunaren sentazioa iruditzen zaio eta antzerki hauetako pertsonaiak erabiltzen duten euskeraren erritmoak, entzumenean gozamina sortzen du.

- Erritmoa

Irudimenezko antzerki hauetan, egileak, pertsonaien pasarteak ez ditu beti bide laua eta errezetik desarroilatu. Antzerkia mamitzen doan heinean une batean edo bestean "protagonista" pertsonaiei "Inbertsio" egoerak nora eza sortzen dio, baina berriro, pertsonaia hauek poliki-poliki abiadura hartzen dutenean erritmoa goi mailara eramaten dute.

"*Mugaldeko herrian eginikako tobera*" Antzerkian lehen ekintzan egiten den "inbertsioa" bi hordien eskutik dator, eta despoten abiadura gelditzen da. Arestik irudimen haundiz bi hordi bertsolari jartzen ditu pasarteari izugarrizko giro ironikoa eskeiniatz. Bigarren eszenako "inbertsioan" despotismoaren abiadurak beste behin atsedena hartzen du, oraingoan apaizaren azalpenengaitik: tobera bat zer den explikatzen saiatzen da. Atsedena honen ondoren bihotzaren taupadak erritmo bizia hartzen du. Mandatariak, gailurra –Belenen loreaz gozatzeko lerdenkatzeko baitago.

"*Justizia txistulari*" antzerkian inbertsioa oso modu egokian prestatzen du, antzerki honetako agintariak despotismoaren adierazgarri dira eta bereziki Kondea eta Apaiza. Beste aldean Txordon Pilota eta gazteak egon arren, garrantzi haundiko protagonismoa dute kokildutako herritarrek.



Aurreneko ekintzan antzerkiaren olatua hondarraren goi mailara igotzen da eta bigarren ekintzan olatua itsas barrura sartuaz ez dakigu zein bidetik etorriko zaigun, bi pertsonaia ditugu honen errudunak Doktore eta Arlote, bi profeta taularen erdian. Aurreneko ekintzan antzerkiaren olatua hondartzan goi mailara igotzen ikusi dugu, baina bigarren ekintzan olatua itsasoak irensten du, baretasun honetan, esandako bi pertsonaiak, eszenaren erdian kokatzen dira, eta eszenaren hertzetan, erdi-ilunpean multzoka banatuak aurreneko eszenan agertutako pertsonaia guztiak. Olatua itsasoaren erraietatik atera eta hondartzan gora doa berriro gailurrera iritxi arteraino, bitartean bi profetak identifikatzen dira, inkisodoreak dira. Olatuak une honetan goi-mailan gelditzen dira, inkisidoreek pertsonaia guztiak zigortzen dituzten artean.

*"Beste mundukoak eta zoro bat"* Antzerki honen planteamendua; egileak barrutia oinarritzat hartu duela dio baina nire ustetan pastoralen antzekoa da, alde batean Zintzoak edo Giristinoak eta bestean Gaiztoak edo turkak. Sujeta Kepa, bi giro hauek sortzen duten zurrunbiloan nora ezcan dabilen orbela da. Emaztearen anai-arrebak gaiztoen aldean ipintzen dira eta Keparen emaztea zintzoen aldean. Antzerki honetan "inbertsi<sup>o</sup>ak" Aita San Nereok sortzen ditu eta antzerki honetan hondartzako olatuak bailira jokatzeko dute deabruak maila batera iristen direnean sainduak berriro itsas barrura eramaten ditu eta berriro olatua beste bide batetik hondartzara igotzen da, modu honetan jolasten dute.

Amaiera zoragarria du sujeta ikuslearengana zuzentzen da, adierazteko -guztiok antzoki batean gaudela eta gainera antzezkiaren bateko partaide garela-.

### Politikazko antzerkiak

Deitura hau eman diot, antzerki hauek momentuko errealismo-sozial batean oinarritutakoak direlako. Gelditzen zaizkigun hiru antzerki hauek, "*Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua*", "*.....eta gure heriotzeko orduan*" eta "*Oilargaineko etxola batean*", dira. Hiru antzerki hauetako pertsonaiak Euskal Herriko hirurogeiko gizarte giroaren amuan harrapatutako arraitxoak dira, han-hemenka aidea dabilta dagokien habitatetik kanpo. Hori gizartearen ordenak ez du onartzen eta suntsituak izango dira.

Antzerki hauetan ere hizkuntza eta erritmoa aztertuko ditugu, baina aurrekoetan "inbertsioak" zer esana izan badu oraingo hiruetan "deskubrimendua" dugu (honekin adierazten da "inbertsioaren" alderantzizkoa, pertsonaiaren edo sujetaren identitatea ezagutzea da, honetako ibilera laua izaten da eta hau, luzea ala motza izan liteke.)

#### • Hizkuntza.

Irudimenezko antzerkietan adierazitakoak sail honetako antzerkientzako ere baliagarriak dira. Horregatik ez nijo errepikatuzera, baka-rrik aipamen berezia merezi du euskera aldetik " *.....eta gure heriotzeko orduan*" antzerkian pertsonaiak erabiltzen dituztela: negroak eta blankoak deiturak Afrika beltzeko eta Europako zibilizazioen ezaugarri bezela.

#### • Erritmoa

Hiru antzerkietan "deskubrimendua"ren teknikak erritmo astitsuagoa erabiltzea dakar. "*Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua*" antzerkian aurreneko ekintzan ezagutzen ditugu Marti eta Matilde emagaldua. Emakume honentzako garrantza da agertzea seme bat duela, bere girotik kanpo dago eta gainera gaztetxoak

ez daki ama bizi duela. Hau da ekintza honetako "deskubrimendua" eta bigarren ekintzan honela agertzen zaigu, fraile egiten da Seraphicus izena hartuz eta mixioetara abiatzeko unean jakiten du ama bizi dela eta gainera emagaldua dela.

"..... eta gure heriotzeko orduan" antzerkian aurreko antzerki-ko Seraphicus frailea Afrikako mixioetan aurkitzen da. Ondorengo bi ekintzetan "deskubrimenduko" pertsonaia berak Afrikan mixioetan aurkitzen dira. Abisuan fraileak jartzen dituzte beltz-erreboltariak etorriko direla eta hilko dituztela, esalariak, etxolatik joatekoan lurrean metraileta bat uzten du. Erreboltariak etxola ingurura azaltzen direnean eta fraileen kontra tiroka ekiten diotenean Seraphicus-ek lurrean utzitako metraileta hartu eta etxolatik kanpora ateratzen da ahal duen beltz gehien hiltzeko asmotan. "Deskubrimendu" esanguratsua nahiz eta fraile-pertsonaien artean beste masaila jartzen ikasi behar dela irakatsi, azken orduan gure Seraphicus fraileak ikasgai hauek ahazten ditu.

"*Oilargaineko etxola batean*" antzerkian Tereza dugu sujeta eta nahiz eta Deskubrimendu lauan desarroilatu gertaerak, mingarriak dira. Aurreneko Josepek maitale bezela nahi dioenean, bigarrena semea hiltzen duenean, eta azkenean "Deskubrimendua" da Tereza, bera etxola barruan hiltzea.

Arestik bere sormenezko antzerkientzako pertsonaiak eraiki zituenean, ez zuen asko pentsatu hauek bere bizitza propioa hartzen zutela. Antzezlari hauek, begien aurrean, bai dela irakurtzerakoan eta bai an-tzeztzerakoan, begiraleaz ahazten dira bere egileak ahazten duen bezela, eta egungo bizitzako pasarte eta toki jakin batzuetan bailitzan jokutzen dute. Arestik pertsonaia hauek pasio eta konpromisoz, bihotz eta animaz, hornitu ditu eta nahiz eta metikulusitatean hauek hainbat

hutsune egin espontaneidadearekin aipatu ditugun hutsuneak kitatuak gelditzen dira.



Donostiako Jarrai taldea "Beste mundukoak eta zoro bat" ikusten diren antzezleriak ezkerretik eskubira, exerjita daude: Joseba Goñi, Joxe Mari Aristi, Joxeba aldanondo, eta zutik Xabier Guenaga eta Juan Antonio Arocena.



## **MUGALDEKO HERRIAN EGINIKAKO TOBERA**

**Montaierako zenbait apunte: M. Forkada**


Mikel Forkadaren lanari bi hitz. Donostiar honek ikasketak Madrilen eta ingalateran egin zituen eta ondoren euskal antzerki mugimenduan ibili zen orokorrean eta Jarrai taldean bereziki.

Hirurogeiko hamarkada honetan euskal antzerkiarekiko konpromezua hartakoz hartu zuen. Antzokietan eskeintzen ziren antzerki emaldiak orokorki bide bati heltzen zioten "ohiturazko" giroari - Eszenografia, pertsonaien jazkerak, eta abar- Espazioa eta karakterizazioetaz ahazten ziren.

Mikel Forkadaren lanak aipatutako ohiturazko giroakin etentzen du antzerkia beste ikuspuntu batera eramaz: Eszenografia espazioarekin batera lotu eta pertsonaien karakterizazioa, jazkera, izaera eta psikologia ere aurkezten ditu. Guzti honek zuzendariari antzerkiaren nondik norako bideak eskeintzen zizkion.


Mikelen lanei esker euskal antzerkia euskal mugak gaitituaz antzerki unibertsalaren korronteetara inguratu zen, hots inoiz ahaztu gabe herriko arazo eta izaera.

Oiartzuarrei ere, laguntza behin baino gehiagotan eskeini zigun. Adibide modura esan behar dut Intxixu antzerki taldeari eskeini ziola antzerkien antzezpeneen zabalkunderako anagrama bat, oso arrakastatsua izan zena eta gaur egun ere Oiartzungo Gau-eskola eta erretegi batek erabiltzen dutena.






Intxixu taldearentzako, M. Forkadak, diseinutako irudia

023-07
















## I.- IRTENBIDEA

### I.-AKTOA

Eskenatokia ilun, danbor erredoblea entzuten da –foko batek atabalaria argizatzen du. Faltsetean (emakume ahotsean) eta lelo tonuan textua esaten du. Textua esatearekin batera, gerturatu eta inguratzen duten konkor humanoideen multzo uniformeak agertzen doaz. Badirudi adi-adi entzuten ari direla Atabalaria zerbait garrantzitsua dioen momentuetan, multzo horiek mugitu egiten dira beraien artean xuxurlaka ariko balira bezela edo urduri baleuden. Biba eta goratan mugimendua haundiagotuko dute Atabalarien textua moztu egin behar da. Bukatzerakoan, eskenatokia ilun eta guztiak desagertzen dira. Aatabalariaren eta multzo humanoideen marrazkiak ikusi.

### II.-KUADROA

Zerutiar tronpeten joaldia bukaerako desafinoaz. Argi indartsua, Jainkoaren tronua agertzen da soldaduz eta aingeruez inguraturik, eskenategira zenbait soldaduk behaztopoka 1<sup>a</sup> eta 2<sup>a</sup> Hordiak sartzen dituzte. Elkarrizketak akzioa eta komizitatea asko nabarmenduaz. Bi pertsonaiak oso ajolagabeak izan beharko dute. Tronoaren seriotasunarekin desberdintzeko, tronuaren eta 1 eta 2.go Hordien marrazkiak ikus.

Tronuaren seriotasunak faltsua izan beharko du. Guztiak gezur usaina izango du eta itxura solemnea.

### III.- KUADROA

Bi Hordiak soldaduek eramanda desagertzean, Mandataria tronu-

tik jeitxiko da, ileordea eta bizarra kendu, zigarro bat piztu eta Kapitainarekin elkarrizketan hasiko da. Azken honek beti itxura duin eta martziala gordeko du. Irrigarri utzi, elkarrizketa honetan herrira ekarri dien arrazoa ezagutuko da. Horrela I.go kuadroko Atabalariaren textua ken liteke.

Atabalari eta Mandatariaren arteko elkarrizketa ezabatzen da.

#### IV.-KUADROA

Mandataria berriz tronura igotzen da eta bi Hordiak ekartzen dizkiote. Hauek "Tobera-Mustra" kontatzen hastean, mimo bidez eskenaratu dute. 2 edo 3 pertsonaia berri agertuko dira zeinak bi Hordiei eskemifikazioan lagunduko dieten batek Beñat Larresoro-ren papera jokatuko du, soldaduz irrigarri jantzia (Marraskia ikus) forma humanoideak ere agertuko dira taldea ingurutuko dutenak. Asko mugituaz eta gertatzen ari denaren aidura. Eskena hau argi irrealaz (urdina, orlegia, eta abar) argiztatuko da, eta tronua atzekaldean erditzalean geratuko da. Eskena asko entsaiatu, oso garrantzitsua da, antzezlan guztia honen inguruan baitabil. Zirilkatzea jokatzen den honetan tobera soinuak geroa eta indartsuago entzungo dira. Bukaeran ihesialdi handi baten ondoren erabateko ixiltasunean bi Hordiak geratuko dira lurrian etzanda.

Tronua berriz ere argiztatuko da, eta zutiturik elkarrizketa jarraituko dute.

#### V.-KUADROA

Mandataria eta Kapitainaren arteko elkarrizketa III koadroari mol-

daketak pentsatu.

## VI.-KUADROA

Alkatea, Medikua, Irakaslea eta Apaiza agertuko dira. Talde trinko eta beldurtia osatzen dute. Ikus marrazkia

## LEHEN AKTOAREN BUKAERA



## II EKITALDIA

### I.-KUADROA

Atabalariak eskenategiaren erditik epaiketa aurkezten du, tronua lehen baino apainduagoa agertuko da. Aingeruek justiziarri buruzko kartelak ager ditzakete, berdintasuna, egokitasuna, eta abar.... guztiak pitxieria areagotuz. Mandataria eta Kapitaina elkarrizketan ari direla Apaiza sartzen da. Elkarrizketaren lehenengo zatia kentzen da eta apaizak jasan-dako tratuarekiko kexuak agertzen dituen beste batengatik aldatzen da, beti ere Jainkoa aipatu gabe.

Elkarrizketa hauek moztu daitezke eta batez ere gertatutakoa aipatzen duen bakarriketa.

### II.-KUADROA

Mediku, Irakasle eta alkatearen elkarrizketa, kuadro hau Mediku eta Alkatearen fusilamenduarekin amai daiteke. Hau eskenategian egin behar da, Atabalariak erredoblea jo dezake, soldaduak fusilamentuari ekiten diote Jainkoak bere tronotik bedeikapen gogaitu bat botatzen dien bitartean. Presoak alderantziz ezarritako aulkietan eseriz egongo dira, ikusleari begira, behin hilik, soldaduek eramango dituzte aulki eta guzti, ondo aztertu beharra dago kuadro honen estetika.

Garrantzitsua da guztiak itxura zentzugabea izatea.

### III.-KUADROA

Elkarrizketak Apaiza eta irakaslearekin. Irakaslearen elkarrizke-

ta moztu. Ihesaldia eta jazarpena joka daitezke, baino ez dut beharrezkoa ikusten.

#### IV.-KUADROA

Belen agertzen da. Elkarrizketa

#### V.-KUODROA

Maria Joanategi agertzen da. Forma humanoideak ere agertzen doaz. Txanponaren bi alderdiak asko famatu, guztiak Jainkoari begira txanpona jaurtitzean, txanpona ez da existituko, keinua bakarrik. Guztiok batera mugituko dute begirada txanponaren goruuntzeko bidea jarraiki, irtenbideak eman: Guztiak goruntz begira gelditzen dira hipnotizatuak baleuden, Jainkoa Belenekin ihes egiten duen bitartean, edo txanponarekin batera begirada jeitxiaz doaz lurreraino, musika glorioso bat "in crescento" entzuten den bitartean (Hendel-en aleluya izan liteke edo antzekoa). Guztiak geldirik, ondo argiztatuak, bitartean Jainkoa eta Belenek ihes egiten dute. Goiko aldetik Jainkoaren ileordekoa, bizarra eta tunika zuria eroriko dira lurrera.

#### OIHALA

## II.- IRTENBIDEA

### I.-AKTOA

I.-KOADROA: Idem. Bukaeran besaulkietako jendetik irtetzen dira biba eta gorak. Beraz, ez dira agertzen forma humanoideak eskenategira.


II.-KOADROA: tronoaren ordezkari epai mahai bat agertzen da. Epailerekin (Mandatario) ahal den barrokoena (ileorde zuria, toga beltz haundia eta aulki haundia). Soldadoak besaulkietara jeitxi eta jende tartetik lehen eta bigarren Hordia ateratzen dituzte. Lehenengo irtenbidearen jantziak mantentzen dituzte.

III.-KOADROA: Idem.

IV.-KOADROA: eszenaratzea lehenengo irtenbidean bezala egin liteke.

V.-KOADROA: Idem.

VI.-KOADROA: Alkatea, Medikua, Irakaslea eta Apaiza soldaduek besaulkietatik igotzen dituzte zarata eta eskandalu haundia antol dezakete pertsonaiei burla eginaz, jendeari beraietaz galderak eginaz, eta abar...



## II.-AKTOA

I.-KUADROA: Hemen ez da beharrezkoa Apaizaren elkarrizketa kentzea, jasotako tratuz kezaka, gainontzekoa lehenengo irtenbidearen berdina.

II.-KUADROA: Idem. Hemen esekuzioak ken litezke.

III eta IV: KUADROA. Idem.

V KUADROA: lehenengo irtenbidean baino era errealistagoaz aurkitu beharko da irtenbidea. Ezin izango du eduki zama poetikoa txanpona besaulkietara botako du, bitartean horretan Kapitain eta soldaduak jende tartera mehatsu eginaz jeitxiko dira.

## OIHALA

--Euskal Literatura 72

--Gaurko literatura gaztearen azalpen bat: G. Aresti, B. Atxaga, M. Azurmendi Intxausti, L. Haranburu - Altuna, X. Kintana, A. Lertxundi, I. Sarasola, A. Urretavizcaya, A. Zelaieta.

## **Mugaldeko herrian eginiko tobera**

Bi zatitan konpondurikako komedia

*Euskal itxurako herri bateko plazan. Aurreneko zatian, ezkerrean eliza ikusiko da, eta haren kanpandorrean, eta eskuman pelota tokia. Erdian etxe zahar batzuk bat arkitekturaonekoa, atariaren gainean noblezi ezkutua bat duena. Mugalde da herria. Mugarte deritzan erresumako azkena; hura iraganez gero, girlandaz eta galardoaz horniturik agertuko da, udaberriko arratsalde bero eta argi bat izanik Erreboluzio tribu nabe bat bilduko baita zuleria batean, herrian gertatu ziren egintza batzuk judikatzerara.*

**OFIZIOEN IZENAK:**

1º.-Atabalaria. 2º.- Mandataria. 3º.-Kapitaina. 4º.- Apaiz jauna. 5º.- Eskola maisu jauna. 6º.- Medikua jauna. 7º.-Alkatea. 8º.- Lehen Hordia . 9º.-Beste Hordia. 10º.- Maria Joanetegi. 11º.-Belen. Guztiz: bederatzi gizonezko eta bi andrazko. Gainera: Herriko jentea eta soldadotzako jentea.

**KOMEDIAREN DENPORA:** Edozein.

## AURRENEKO ZATIA

*Egunaren lehen orduak dira. Orientean eguzki-berriaren argi brintzak agertzen dirade. Noizean behin, oilar baten kukurrukua entzunen da. Napoleonen denporako uniforme batekin jantzirik, ATABALARIA sartzen da.*

### ATABALARIA.

*(Atabala kolpe batzuk eman ondoren.)* Erreboluzioaren izenean, entzun bezate herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiak, Mugarte benedikatu honetako Buruzagitza Nagusiak, Mandatari Berezi bat bidali duela honera, orain hilabete batzuk hemen gertatu ziren egintzak harrigarriak iker eta idikatzeraz. *(Atabalean kolpe batzuk ematen ditu. Haien oihartzunean jente batzuk agertuko dira, elizatik apaiz jauna, beltzez jantzi-riko serora zahar eta misteriotsu batzurekin; karrika kantoi bate-tik senar emazte batzuk haur mukitsu bat eskutik harturik dakartela, ardandegitik tabernari jauna eta hordi pareaz.)* Judizioak garantia guztiak eduki detzan, soldado konpainia bat etorri da, eta orain altxatzen dute haien kanpamendua herriaren inguruetan. Konpainia honen manduan, oso kapitain agurgarri eta bizartsu bat etorri da, apaiz jaunaren etxean ostatua hartuko duena. Apaiz jaunaren etxean neskamerik baldin badago, despedi dezala harek, gure kapitainak franko higüintzen baititu andreak. Mandatari Berezi jaunak berriz eskola maisu jaunaren etxean hartuko du ostatua, eta eskola maisuaren etxean neskamerik baldin ezpado, har dezala berehala neska eder pare bat, gure Mandataria oso andre zalea baita. Eta ni, alkate jaunaren etxean sartuko naiz, eta bertan haurrik baldin badago, igor detzala izeba baten etxera, ezti-zadaten atabalikan apur. Enteratu dira oro? *(Iskanbila galanta*

*aterako da herritarren artean. Iskanbila guztia atabalaren kolpe-  
etan isilduko da.)*

#### ATABALARIA.

Herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiek jakin bezate, herritik eztuela inork alderik eginen, eta baldin inor inora joateko premia haundian badago, gure Mandatariaren eskuak firmaturikako pasaporte berezi bat eduki beharko duela. Inguero baserrietan nobia dadukaten mutileri, etzaie pasaportetik emanen. Erreboluzioak ezpaitio amorioari amorerik ematen. *(Lehenago baino iskanbila handiagoa egiten da. Atabalariaren kolpek eta deiadarrak eztira kasik iskanbila horregatik entzuten. Jentea mututzen denean, atabalariak bere hitzaldiari jarraikiko dio.)*

#### ATABALARIA

Gauza ezaguna da, eta gure Buruzagitza Nagusiak sobera daki bakarrik bortxaz eta indarrarekin bentzutuko duela, nola Mugaldekoko herri laborari eta baserritarren artean, erreboluzioak eztuela oihartzun faboregarririk eduki, progresoaren eta libertatearen etsai direlako. Jakin bezate baserritarrek, borondatez egiten ezpadirade erreboluzioaren adiskide, derrigorrean eginen direla. *(Kolpe batzuk ematen dizkio atabalari.)*

#### ATABALARIA

Ejenplozko justizia partizera etorri gara. Gure soldado bat hil zen herri honetan, orain hilabete batzuk eta gure Buruzagitza Nagusiak ezin dakuske honelako egintza nardagarri bat, neurri gogorak hartu gabe. Badaki, edo pentsatzen du, lintxamentu bat izan zela hilketa hura, ezta dukala horregatik persona bakar batek bidegabe haretako erantzun beharra, honela erakutsi zuela herri honek erreboluzioari dion gorrotoa eta gaitzestasuna. *(Jentearen artean protesta batzuk entzuten dira, baina atabalaren kolpe biz-*

*kor pare batek itoak dira.)*

#### ATABALARIA

Ezkara kastigatzera etorri. Erreboluzioak bentzutu zuenetik aurrerantzean, mugartear guztiak gara anai, gara berdin, gara libre. Erregeen denpora zikinetan, premioa ematen zitzaion goikoari, goian zegoelako, eta kastigua behekoari, behan zegoelako. Egun eztago ez goirik ez beherik, guztiok gaude haltura berean, guztiok gara anai, berdin eta libre. Enteratu zerate? *(Isiltasun sakon bat da galdera honi ematen zaion erantzuna.)*

#### ATABALARIA

Judikatzena etorri gara, leialari premioa eman eta desleialari kastigua ematera. Buruzagitz Nagusia herritar guztien aita maitakorra da. Mandatari Berezi bat bidali du honera. Harek, entzun egingen zaitu. Harek entzun eta zuek berriz probatu, probatu behar duzue erreboluzioaren seme leialak zaretela. Leialtasun hori probatzeko lehenbiziko urratsa, etorri garen soldado guztion alimentua, ostatua eta libertsioa zuen kargura korrituko da, judizioak dirauen bitartean. Honela, traba eta oztopo gutti ipiniko diguzue. *(Atabalaria mintzatzen bukatu baino lehen, hutsik geratuko da plaza. Bakarrik hordi biak geratuko dira.)*

#### ATABALARIA

Herri honetako andre-gizon, neska-mutil eta atso-agure guztiek jakin bezate, Erreboluzioa eztela egin txantxetan ibiltzeko, baizik pobrearen bizi moldea hobetzeko, esklaboari libertatea emateko, gizon guztiak izan ditezen anai, berdin libre. Helburu ezin hobe eta haundi hauetara kontrastatzen diren, eta haien kontra altxatzen diren gizon doilor eta prestu ez guztieri, odolarekin eta urkamendiarekin burrukan egingen zaie, eta eztute barkaziorik merezituko. *(Inoizkoak baino kolpe pizkorragoekin kastigatzen du atabala.)*



## ATABALARIA

Herritarrak, Erreboluzioaren mintzoa entzun. Muagarteko Buruzagi-tza Nagusiak bidalirikako Mandatari Berezia zuen aurrean dago. Harekin, soldado konpaini bateko kapitaina dator. Herritarrak, nirekin batera deiadar egin: Erreboluzioa eta libertatea, biba, biba!

## LEHEN HORDIA

Fuera, fuera!

## ATABALARIA

Gatiberioa eta miseria fuera, fuera!

## BESTE HORDIA

Biba, biba!

*Hiru soldadu eta beste gizon bat sartzen dira. Azken hau lebitaz, kopa kepelaz eta txarolezko zapataz jantzirik. Soldadoak Napoleonen denborako uniformeez, ATABALARIAK dadukanaren parekoaz, baina zaharrenarena agirian dago gradokoa dela; beste biak grado gabeko SOLDADOAK dira. Soldado aurrena, zaharrena, KAPITAINA da, eta lebitadunarekin dator mintzaten, SOLDADOEK eskolta ematen dieten artean. Sartzen diren momentuan bertan, pelota-tokitik doa ATABALARIA. Baina HORDI biak bertan geratzen dira.)*

## MANDATARIA

Osasun, herritarrak!

## LEHEN HORDIA

Hala dakartsula Jainkoak zuri ere, gizona.

## KAPITAINA

Egun on dizuela!

BIGARREN HORDIA

Hala ekar!

MANDATARIA

Gu errezibitzeko komisioa al zarete?

BIGARREN HORDIA

Gu... bada...

LEHEN HORDIA

... tabernan geunden....

BIGARREN HORDIA

... eta hainbeste zarata entzunik...

LEHEN HORDIA

... zer gertatzen zen jakitera ....

BIGARREN HORDIA

... irten gara.

LEHEN HORDIA

Hori duk eta!

MANDATARIA

Eta zer egiten zenuten tabernan, eguneko ordu goiz hauetan?

LEHEN HORDIA

Bada, guk...

BIGARREN HORDIA

... kontu bat gendukan tabernariarekin...

LEHEN HORDIA

Hori duk eta!

BIGARREN HORDIA

Baserritik...aa... etorri ginaden bart...aa....

LEHEN HORDIA

Kontuak guri artez gustatzen zaizkigu, bai?

BIGARREN HORDIA

... nola tabernariak eztadukan hemengo dirurikan...aa....

LEHEN HORDIA

... bada...

BIGARREN HORDIA

... nola bere diru guztia Mugandira ateratzen duen...eee...

LEHEN HORDIA

...bada...

BIGARREN HORDIA

... bada...arnotan diogu kobratu!

LEHEN HORDIA

...u!

BIGARREN HORDIA

A,e,i,o,u!

LEHEN HORDIA

Kukurrukuku!

MANDATARIA

Lotsa gabeak!

LEHEN HORDIA

Zure pareak!

MANDATAEIA

Alde hortik!

*KAPITAINAK sablea ateratzen du maginatik eta ebakitzen eztauen aldetikako kolpeekin jaurtikitzen ditu lekutik. Bien bitartean SOLDADO biak firmeko posizioan geratuko dirade, eta bepururik eztaute mugituko.*

KAPITAINA

Hau da soldadotza bati emanikiko ongi etorria!

MANDATARIA

Horikeria gizarteko izurri pozoitsu bat da.

KAPITAINA

Izurri eta heritasun hori gizartetik kendu arte ezkera geldituko.

MANDATARIA

Gizona ezta libre izanen osasuntsua ezten bitartean.

KAPITAINA

Hori da gure filosofiaren oinarriko premisa lehen.

*Biak paseatzen dira plazatik, urduri.*

MANDATARIA

Kapitaina!

KAPITAINA

Zer?

MANDATARIA

Nun daude herri honetako agintariak?

KAPITAINA

Eztakit, Mandatari jauna. Baina Mugaldeko herrixka koxkor haucetan, jentea ezta goiz zalea, pixka bat alferrak eta nagiak dira. Segurutik eztirela ohetik oraindiko jaiki.

MANDATARIA

Etor ditezela lehen bait lehen.

KAPITAINA

Soldadoak!

MANDATARIA

Ekar dezatela alkatea! Harekin eskola maisua, medikua eta bikarioa.

KAPITAINA

Soldadoa, bost minutu baino lehenago hemen egon behar dute herritar hoiak!

SOLDADOA

Zure aginduetara!

*Badoazi biak.*

#### MANDATARIA

Entzun, kapitaina. Badakizu oso arduratzen nauela zer egin honek. Alde batetik, hango jente guztiak bere doan eman du judizioaren gainean. Herri honek Mugarteko jeografiatik kendua izan behar duela. Baina Buruzagitzak problemaren sustraeraino ailegatu nahi du, ea hemen Erreboluzioaren kontrako zerbait mamitu den, edo kontrara, harekin lokarririk gabeko gauza bat izan zen hilketa hura.

#### KAPITAINA

Hori, soldadoak Mugandira ihesik egin ezpazuen.

#### MANDATARIA

Kordel guztaik lotu behar dira ongi. Probatu behar dugu lehenbizi soldadoa hil zutela, edo hobeki esanik, hil zela, etzela estranjeariara eskapatu. Gero hil zutela, etzuela berak bere burua hil, eta heritasun batez etzela hil. Gero nork hil zuen. Eztadin okerbiderikan egon, eztadin bidegaberik egon. Erreboluzioaren justizia eta zuzenbidea bere bizitasun guztian argi dadin.

#### KAPITAINA

Eta nola egin liteke guzti hori?

#### MANDATARIA

Adizu, Kapitaina, egidazu mesede bat. Lehen hemen egon diren mozkorti biak ekar zaizkidazu honera lehen bait lehen, haiek esanen baitigute egiaren pizka bat. Mundu honetan bi person klase daude bakarrik egiak esaten dituztenak, haurrak eta hordiak. Zoaz, arinki eta korrikan, hemengo agintariak ekarriak izan dituzten baino lehenago, ea.

*Badoa KAPITAINA. ATABALARIA sartzen da.*

ATABALARIA

Osasun dizula, Mandatari Berezi jauna.

MANDATARIA

Zer ikusten da herritik? Jentea kontent al dago gure etorrerarekin?

ATABALARIA

Eztirudi.

MANDATARIA

Nola eztirudiela?

ATABALARIA

Leiho eta ate guztiak hertsirik daude. Berria barriatu bide da, gu heldu garela. Eztira herri honetan gure adiskide. Noizean behin, leiho bateko gortina, pizka bat altzaten da, eta andre jakin nahi baten aurpegia agertzen da, baina berehala, senarraren eskuak eraginik, ezkutatu egiten da begitartea. Zakurrik eta katurik ere ezta ikusten, jauna. Gure bildur dira.

MANDATARIA

Orduan egiazkoa izan zen gure soldadoaren hilketa. Beste probamenturik ezta behar, akusatuaren aitorketa baizik.

ATABALARIA

Dena dago ixilik. Eulien hegaldaka bera ere ezta entzuten. Badirudi hilerri batean sartuak garela. Kanpain dorrearen gurutzua, altzipres bat iruditzen zait batzutan.

MANDATARIA

Izugarria izanen da gure zihorketa. Eztut hemen harriaren gainean harririk utziko. Eskuaren mamia bezain zelai geratuko da herria.

ATABALARIA

Eta eliza baten santotasunean biro baten antzean, ixiltsun sakon eta misteriotsu honetan, gizon mozkorti eta horditu bi dabilta hortik kalez kale, oihuka eta irrintzika, barrez eta kantuz.

MANDATARIA

Bi gizon daude behintzat, gure herabe eztirenak. Arnoak ematen duen gizontasunarekin.

ATABALARIA

Hor datortza, gure Kapitain jaunaren sableak eraginik, bultzaturik.

MANDATARIA

Badaki horrek bizioa nola trata.

ATABALARIA

Soldadoa hobeki portatzen da haren aginpean.

*Eliz ostetik eta bi hordiak agertzen dira.*

ATABALARIA

Nolako planta ederra dadukan! Lebitaz jantzirik ere, ezagutuko litzaioke kapitantza. Barka bezait, baina hemen ikusten banau, sano hasarratuko da nirekin. Nire obligazioa bete behar dut.

*Atabala joarekin ATABALARIA. KAPITAIN eta HORDI bi MANDATARIARI hurbiltzen zaizkio.*

MANDATARIA

Aguru ibili zara kapitaina, zimio pare hau-ekarten:

KAPITAINA

Haien zantzo kantek laster eraman naute haiengana.

MANDATARIA

*(Hordi bieri)* Herritarrak! Zuek, zer diozue?

LEHEN HORDIA

Ezkara gu kulpadunak.

MANDATARIA

Nola?

LEHEN ORDIA

Eztela gure errua, eztadukagula hemengo gertaerekin zer ikusirik.

MANDATARIA

Niri esan didate zuek izan zinetela gehien ikusi zirenak.

BIGARREN HORDIA

Ez, gu ezkara hemengoak.

LEHEN HORDIA

Gure etxera heltzeko hiru legoa egin behar dira, oinez.

MANDATARIA

Baina zure bernak hazkarrak dira. Gainera etzarete etxeroak, etxean egotea etzaizue gehiegi gustatzen.

LEHEN HORDIA

Bada... egia da...

BIGARREN HORDIA

...eztagoela ez jairik ez bestarikan herri honetan...

LEHEN HORDIA

...gure presentzia gaberik zelebra ditezinak...

BIGARREN HORDIA

Badakizu? Ihazko Santijagoak...

LEHEN HORDIA

Andre Mari eguncan zelebratu ziren...

BIGARREN HORDIA

... hau plumoniarekin zegoelako.

MANDATARIA

Eta gero Madalenetan zer gertatu zen?

BIGARREN HORDIA

Toberak eduki genituen.

LEHEN HORDIA

Ederrak gero!



BIGARREN HORDIA

Barreak egin genituen Beñat Larresorokoarekin!

LEHEN HORDIA

Mutil galanta Beñat Larresoroko!

BIGARREN HORDIA

Koplari fina! Hura baino finagorik ezta hemen sekulan ikusi!

LEHEN HORDIA

Urrikari Beñat!

BIGARREN HORDIA

Heriotza torpea eman zion soldado harek!

LEHEN HORDIA

Bai, madarikatua izan bedi!

BIGARREN HORDIA

Honelako gizonak moldatu ditu, Erreboluzioak!

LEHEN HORDIA

Doilorrak, etoiak, prestuezak, barkaziorik gabekoak!

BIGARREN HORDIA

Senar bat bere andreak engainatzen baldin badu...

LEHEN HORDIA

Lasturko zezenek baino adar luzeagoak baldin baduzka...

BIGARREN HORDIA

... eta konturatu ere eztu egin nahi...

LEHEN HORDIA

Ze eskandalo herrian!

BIGARREN HORDIA

Bularreko haurrak berak ere mintzatzen ziren hartaz!

LEHEN HORDIA

Gizon batek oiloa bezelakoa baldin badaduka andrea...

BIGARREN HORDIA

...eta harek eztu ezagutu nahi izaten...

LEHEN HORDIA

...eta gainera dio Ama Birjina baino prestuagoa eta santuagoa dela...

BIGARREN HORDIA

... orduan zuzen da...

LEHEN HORDIA

... bere zuzenbidean eta eskubidean dago herria...

BIGARREN HORDIA

... Inungo toberak egiten badizkio!

LEHEN HORDIA

Kontu egizu!

BIGARREN HORDIA

Soldado ezkondu bat!

LEHEN HORDIA

Nun zegoen erresumaren ohorea!

BIGARREN HORDIA

Oilo baten eskuetan, alegia!

LEHEN HORDIA

Ze oilo eta ze zezenko!

BIGARREN HORDIA

Eskarmentua hartu zuten, ederra eta pare gabekoa!

LEHEN HORDIA

Ez ahaztutzekoa!

BIGARREN HORDIA

Eztakizue zer egin genuen?

BIGARREN HORDIA

Zuleria bat montatu genuen plaza erdi erdian.

LEHEN HORDIA

Eta komedia bat asmatu genuen!

BIGARREN HORDIA

Tobera mustra.

LEHEN HORDIA

Beñat Larresoroko izan zen gauza guztiaren arima. Haren ohorean aitortu behar da.

BIGARREN HORDIA

Mutil argia!

LEHEN HORDIA

Soldadoaren ofizioa hartu zuen harek komedian.

BIGARREN HORDIA

Hemen, lagunak, soldadoaren andrearena.

LEHEN HORDEA

Eta honek, zikiratzailearen ofizioa.

BIGARREN HORDIA

Ongi egon zinen zu, mutila!

LEHEN HORDIA

Eta zu, Haizturrekin? Artaziekin?

BIGARREN HORDIA

Ederki egin zenituen zuk haur egietaren minak!

LEHEN HORDIA

Eztitu nire andreak alferrik hamabost seme alaba, oro nireak, mundo honetara ekarri.

BIGARREN HORDIA

Eta gero, bere fruitua sabeletik bota zuenean? Eztakizu nolako semea eduki zuen? Eztuzue igarriko! Katu beltz bat! Ha, ha, ha! Hirian eztuzue gure toberaren berririk jakin? Zelebrea!

LEHEN HORDIA

Honek egurrezko guraize haundi pare bat ekarri zuen, gizon baten bernak baino luzeagoa!

BIGARREN HORDIA

Egun egunekoa, gero!

### LEHEN HORDIA

Harekin egin zuen zikiratzailearen ofizioa! Guztien artean, anketik eta besoetatik harrapatu genuen Beñat Larresoroko, soldadoen ofizioa egiten zuen mutila, badakizue. Ezertarako balio ez tuten idiskoak, kapatu behar dira. Behiak eskapatzen uzten dituzten zezenak, idi bihurtu.

### BIGARREN HORDIA

Gizon askorekin ere, hori berbera egin behar litzake sarritan, baina ez bakarrik toberan eta gezurrez, baizik egiaz eta benetan ere bai.

### LEHEN HORDIA

Barreak! Deabrukeria! Ongi asmatzen zituen gure Beñatek komediak! Zikiratzaileak bere lana akabatu ondoren, bere zer eginaren etekina erakutsi zion jenteari. Zer, eztaizue? Artilezko mataza pare bat, lehengo egunean herriko dendan honek erosi zuena! Barreak! Deabrukeriak!.

*Kapitainak eta Mandatariak barre egitea baizik beste erremediorik ezta dukate. Baina Mandatariaren aurpegia laster bihurtzen da seriotasunaren jela.*

### MANDATARIA

Eta esaidazue, jente ona nun dagoen orain zuen lagun hori....  
Beñat Larresoroko hori. Honelako mutil argi bat ezagutzeko gutizia haundian bainago.

### LEHEN HORDIA

Hilerrian urrikaria, gurutze baten azpian.

### BIGARREN HORDIA

Lehen aipatu dizugu, nola hil zuen basoan soldado harek.

## MANDATARIA

Ez, soldado harek ez. Ordenamentu berezia dadukate gure soldadoek, eztezaten inor hil, eztare bizitza defenditzeko. Personon bizitzen eta heriotzen gainean erabakitzeko, izentatuak gara Buruzagitza Nagusiak bidalirikako Mandatari Bereziak.

## LEHEN HORDIA

Hala, Mugarteko hiri nagusietan gertatuko da, baina Mugaldeko herrizka koxkor eta ttiki hauetan, bestela konprenitzen da zuzenbidea.

## MANDATARIA

Nola konprenitu zuen, bada zuzenbidea, soldado harek?

## LEHEN HORDIA

Oso mindurik geratu zen toberarekin, eta Beñat mendira egurketa joan zen behin....

*Lehengo soldado biak agertzen dira, eta lehenbizikoak agur egiten dio Kapitainari.*

## LEHEN SOLDADOA

Kapitaina, hor hartu ditugu alkatea, apaiza, maisua eta medikua, guztiak preso.

## MANDATARIA

Iguriki dezatela! (*Oso hasarraturik geratu da soldadoen sarreragatik.*) Zuk, jarraiki! Beñat mendira joan zen behin...

## LEHEN HORDIA

Soldadoarekin egin zuen topo...

## BIGARREN HORDIA

„eta honek, arrenkurak eraginik....

## LEHEN HORDIA

... eskuetan fusila harturik...

BIGARREN HORDIA

... tiro batez zilatu zion burua! ...

LEHEN HORDIA

Mendekantza zikina!

BIGARREN HORDIA

Bihotz gogorra!

LEHEN HORDIA

Pagu zikoitza!

BIGARREN HORDIA

Honela eraile doilorrek, heriotza merezi dute!

LEHEN HORDIA

Gainera....

BIGARREN HORDIA

.. hala diote, eta badirudi egia dela....

LEHEN HORDIA

.. beste zauri lotsagarriago bat zedukan mutilak sabelaren azpian...

BIGARREN HORDIA

.. eta haragizko bolak imini zizkion eraileak esku artean.

LEHEN HORDIA

... toberan txantxetan eta burla burlaka Beñatek asmatu zuen egintza, besteak egun guztietako bizi modura eramane zuen.

MANDATARIA

Eta soldadoa, nola hil zen?

*Mutu geratzen dira mozkorti biak.*

MANDATARIA

*(Oso hasarratzen da; deiadarrez mintzatzen da.)* Nork hil zuen?

BIAK

Eztakigu, jauna.

MANDATARIA

*(Lehen Hordia lepotik hartuz)* Zu izan zinen? Nola hil zenuen?  
*(Gogorki astintzen dio burua.)* Kanibet batekin edo pistola batekin? Aitor! Konfesa!

LEHEN HORDIA

Ni ez naiz kulpaduan, jauna. Horren gainean eztaikit ezertxo ere; zin egiten dizut, jauna.

MANDATARIA

Soldadoak: preso eramán astokilo bi hauek! Eztitezela eskapa!  
Eta arno franko emaezue, edaten.

SOLDADOAK

Kapitain jaunaren aginduetara!

MANDATARIA

Eta etor ditezila lau gizon hoek!

SOLDADOA

Kapitain jaunaren aginduetara!

*Bakarrik geratzen dira Kapitaina eta Mandataria.*

MANDATARIA

Zoazte, zoazte, arineketan, aguro, denporarik galdu gabe!

KAPITAINA

Zer deritzazu gauzari?

MANDATARIA

Zesarrek bezela esan dezaket: ueni, uidi, uinci. Allega, ikus eta ben-tzu. Zerbait egin dugu ordu erdi honetan.

KAPITAINA

Oso trebea izan zara galderekin.

MANDATARIA

Gure Errepublikako soldado bat! Ezin esan dezakegu gizon pres-

tua izan zela. Baina halare, martiri bat izan balitz bezela judikatu behar dugu hauzia. Bestela, alferrikakoak izanen lirake gure zer egin guztiak. Errepublikak alferrik proklamatu genuen. Gure depurazioak alferrik. Erregearen familia guztiaren afusilamentua alferrik. Guztiak alferrik. Badakit, beharbada judizio honetako azken epaiarekin, ezkarela zuzeneko bidetik ibiliko. Justizian, gehiengotan, ezpaita zuzenbiderik kausitzen.

#### KAPITAINA

Bai. Problema gaitz baten aurrean zara aurkitzen.

#### MANDATARIA

Justizi partitzalearen ofizioa ezta erreza, ezta atsegina. Kulpak baten aurrean ikusten garenean, bi sentimentuk egiten du burrukan gure barnean: alde batetik, kastiguaren premia altxatzen da Rodaseko koloso bortiz eta poterotsu baten antzean, eta bestetik, birjina dultze baten moduan, bere balagoak eta lausenguak esaten dizkigu, emaro eta poliki, birtute nardagarri batek: urrikalmentuak. Gizon bat da, okerreko bidetik abiatu dena, eta zuzeneko bidera itzul arazi behar dioguna. Judikatzaleak, bat edo beste hautatu behar du, bi konponketa hoek etsaiak eta kontrarioak baitira. Orduan bildur izugarri batek asaldatzen gaitu: komeni den konponketa hautatuko dea? Kulpadunaz urrikaltzen baldin bada, eta gero hau okerreko bidera itzultzen, damuak eta dolamentuak pisatuko du judikatzalearen buruaren gainetik, ezpaitzuen erroten atera, garau pozoatsu ate zornetsu hura. Eta aldrebes gertatzen baldin bada, damua geratuko zaio barnean, urrikalmentu pizka batekin beharbada, kondenatua bere bizitza guztian gizon prestu bat izanen litzakeena.

#### KAPITAINA

Ez litzaidake zure buru barnean egoterik gustatuko. Bortitz izan behar duzue. Barneko gatazka eta burrukaldi hori ezta deseagarria.



## MANDATARIA

Gero jenteak, beti pentsatzen du interesak daduzkagula. Pagatzaile hoberenari saltzen gatzaizukiola. Eta ezta kite gure ofizioa eztela munduko urre eta zilar guztiarekin pagatzen.

## KAPITAINA

Zugan ongi ikusten da hori; erreboluzioak judikatzaileari ematen dien soldata ezpaita aberatsegia, eta zu soldata horrek eskeintzen duen bizitza moldearen arauera bizi zara.

## MANDATARIA

Batzutan, ofizio hau uzteko gutizia etortzen zait burura eta arimara. Ni, pozik izanen nintzake, zu bezelako soldado bat. Ofizio horretan ez da duda haundiegirik presentatzen: obedientziarekin aski eta sobera da. Edo laboraria izanen nintzake, fruitua ongi etortzen baldin bada, benedikatua izan dedila Jainkoa, eta txarki baldin badator, benedikatua orduan ere. Baina gu gabe, ezlitzake erreboluziorik egonen. Gizartearen giltzarria gara, mundua sostengatzen duen oinarria, aberatsen segurantza eta pobreaken esperantza. Hau pentsatzen dudanean, ez, ez tut nire ofizioa utzi nahi. Bai, nire pentsamentu eta asperkunde gaizto guztiak joaten dira berehala nirengatik. (Karrika kantoi batetik soldadoak eta herriko agintariak agertzen dira.) Baina utz dezaiogun filosofia aspergarri horri, hor baidatortza gure gizonak. Herri gobernarien izenean, agur guztiori.

## ALKATEA

*(Gizon gaztea da, euskaldun baserritar aberats baten moduan jantzirik dago.)* Egun on dizuela, zuek biori. Mugaldeko herriaren izenean ongi etorria ematen dizuet. Egonaldi ederra eduki dezuela gure artean.

## MANDATARIA

Ni naiz Buruzagitza Nagusiaren Mandatari Berezia. Jakinen

duzue oraingotz, gure soldadotzak herri honetako kargua hartu duela. Hemen presentatzen dizuet gure kapitain jauna.

ALKATEA

Urte askotarako. Hemen gure apaiz jauna, hemengo bikarioa.

MANDATARIA

Nunbait ikusiak gara lehen.

APAIZA

Infernuan ez behintzat. Ni ez naiz han sekulare egon.

MANDATARIA

Ni bai, zuek eta zuen adiskide eta gogaide aberats eta haundikiek pobrearentzat antolaturikako eta apaindurikako infernuan. Suskoa ez ezikan, bai gosez eta hotzezko infernu batean. Orain desegintzen dugun infernu haretan.

ALKATEA

Hau da medikua.

MANDATARIA

Osasun, mediku jauna.

MEDIKUA

Ordua zen, inor etor zedin.

MANDATARIA

Zertan etor?

MEDIKUA

Urak erre kara bihurtzera.

MANDATARIA

Madretik atera al ziren inoiz?

MEDIKUA

Hemengo urek erreka bat zer den ere ez takite. Izungura geldu batean pozoatzen dira.

MANDATARIA

Uste dut ederki entendituko garela.

MEDIKUA

Nik eztut horrela uste. Asunto honetan eztadukat ez entradarik ez salidarik.

MANDATARIA

Orduan, badakizu zerta etorri garen?

MEDIKUA

Eta zeinek eztaki?

MANDATARIA

Zure lekukotasuna laguntza haundikoa izanen zaigu.

MEDIKUA

Begira, mandatari jauna, nire errespeto guztiak daduzkazu. Baina bizitza honetan hainitz lezio hartu dut, itsu eta sogor izaten irakatsi didana. Nik badakit zer gertatu zen hemen, baina ez nola. Oihanean tigre eta lehoien artean gudaldia baldin badago, nori eskatu zaio lekukotasuna? Hegaztinari eta hienari, duda gabe, ez inoiz satorrari; hau lurpean dabil itsurik. Ni naiz satorra, ezertaz enteratu eztena.

ALKATEA

Eta azkenean, Mandatari jauna, zilegi izan bekit gure eskola maisua presenta dizazudan.

MAISUA

Zilegi izan bekit niri ere, Mandatari jaun agurgarria, nire kunplimentuak presenta dizakizudan zuri, nire diosalik egiatiena, nire deseorik hoberena, erreboluzioak herriaren alde eta arrazoiaren fabore egiten hari den lan haundiagatik. Premiazko, beharrezko, derrizgorrezkoa zen erreboluzioa, eta jende xeha haren zai eta haidura zegoen. Permitti izadazu, Madatari jauna....

MANDATARIA

Zuk eztakizu gauza bat, maisu laguna. Erreboluzioaren aldekoak garenok, ez kara mintzatzen, obratu egiten dugu. Gehienetan, hitz

ederrak ahoan, korapiloa golkoan, zuk bezela hitz egiten duenak, zerbait ezkutatu nahi du.

MAISUA

Mundu guztiak daki herri honetan, jauna, nola ni hasieratik bertatik aitortu nintzen gobernu zaharraren kontrako eta berriaren aldeko. Nahiko tristura kostatu dit nire ihardukeriak.

MANDATARIA

Guzti hori bere garaiz probatuko duzu.

ALKATEA

Anartean, jaunak, esperatzen dugu egoera gogarakoa edukiko duzuela gure artean, eta zuen hemengo egoitzak eztuela gure herriaren bizitza normalari oztoporik ipiniko.

MANDATARIA

Zuk, alkate jauna, sinets arazi nahi diguzu, ilargitik etorri zarela oraintze. Ez al dakizu zertan etorri garen?

ALKATEA

Maliobrak edo?

MANDATARIA

Maliobrak!

ALKATEA

Edo inbasio baten bildur al da?

MANDATARIA

Ez, alkate jauna, ez. Oso aurpegi inozenta ipintzen duzu, baina zure bildots larruaren azpitik otso belarria ikusten zaizu. Ezkaitzuz engainatzen; ez.

ALKATEA

Eztut nik inoiz gezurrik asmatu.

MANDATARIA

Bai, badadukat zure berri. Eztuzula sekulare gezurrik asmatu, baina hala eta guzti ere eztuzula sekulare batere egiarik esan. Bi

uren artean iheri dagoen arraia bezelakoxea zara zu. Kandela bat Jainkoari eta beste bat deabruari. Guztien lagun, eta ez inoren etsai.

#### ALKATEA

Mandataria jauna, ezin onart dezaket horrelako irainik. Herri hone-tako alkatea naizela...

#### MANDATARIA

Orain eztago herri honetan alkaterik. Zure kargutik dimititzen duzu, eta Buruzagitza Nagusiak onartu egiten dizu dimisioa. Herri hau, soldadotzaren agintaritzan pean geratzen da. Gerra lege-aren azpian. Ezta inor hemendik ez sartuko ez aterako. Zuek lau-  
rok, kapitain jaunaren jagotza pean geratuko zarete.

#### ALKATEA

Protestatu egin behar dut, mandataria jauna.

#### MANDATARIA

Etzera zure protestez baliatuko. Nire ordenamentuak kunplimen-tatuko dituzu, kapitain jauna. Lau gizon hauek eztute inorekin hitz eginen, eztare elkarren artean. Ezta inor bere etxetik aterako. Karrikatik ezta inor paseatuko. Eliza eta Herri etxea zarratuko dira, hala nola eskola ere. Eztu inork eri edo gaisorik egoteko eskubiderik edukiko. Jente guztia prets egonen da nire deiari erantzuteko. Bots minutuko igurikierarik ere, ezta permitituko. Eta judizioa arratsaldeko ordu bietan zelebratuko da, plaza hone-tan. Egin dezatela soldadoek, etxe zahar horren aurrean zuleria bat, dotorezia eta edertasuna prestatzeko.

#### KAPITAINA

Zure ordenamentuak kunplituak izanen dira.

#### MANDATARIA

Obedi bedi, bada.

*Teloia jatsirik, aurreneko erdia akabatzen da.*

## AZKENEKO ZATIA

*Mugaldeko plaza, egun bereko ordu bietan. Erdiko etxe zahar eta noblea, girlandaz eta galardoaz dago horniturik, eta haren aurrean, metro eta laurdeneko zuleria bat, teatruaren erdia okupatzen duena. Mugarteko bandera gorri urdinarekin apaindua. Teloia altxatzen denean, hutsik dago teatrua; hurrutik atabal baten soinua entzuten da, geroago eta haundiagoa egiten dena, atabalaria teatruan sartzen den arte.*

### ATABALARIA

*(Atabala jotzeari utzirik.)* Herri honetako gizon andre, agure-atso eta neska-mutil guztiek jakin bezate, berehala emanen zaiola hasiera judizioari. *(Kapitaina eta Mandataria sartzen dira. Zuleriara iganik, bertan esertzen dira.)*

### KAPITAINA

Atabalari laguna, soldadoak sar ditezila.

### ATABALARIA

*(Atabala joz.)* Soldadoak etor ditezila. *(Lau soldado sartzen dira.)*

### KAPITAINA

Soldadoak, apaiza ekar zazue. *(Badoa soldado bat; beste bi zulerian aldeetan geratzen dira, eta laugarrena Mandatariaren atzean.)*

### MANDATARIA

Egiaren erdia dadukagu.

### KAPITAINA

Beste erdia ere, zure habileziarekin, laster edukiko dugu.

### MANDATARIA

Eztago niretzako horren gainean batere dudarik; orain bakarrik, zehaztasun bat geratzen zaigu, zer argi.

KAPITAINA

Eta zein da hori?

MANDATARIA

Nor izan zen lintxamentua proposatu zuena.

KAPITAINA

Zehaztasun horrek alda dezake judizioaren sententzia?

MANDATARIA

Bertan datza gauzaren funtsa. Hori izanen litzake herri honen salbazioa. Hura eta harekin egon zirenak urkatzearekin, kito. Honela, hamabi urkatukin, hemengo gure beharra kunpliturik geratuko litzake.

KAPITAINA

Eta bestela?

MANDATARIA

Bestela, ezlegoke urkamendirik, ez legoke hilik. Baina epaia latzagoa izanen litzake. Hor dator apaiza. Txarki probatu zaio gartzelamentua. (Apaiza eta soldadoa sartzen dira. Aurrenekoak kolpe bat daduka begian, mōratua.)

APAIZA

Eliz Ama Santuaren izenean protestatzen dut, Jainkoaren ministro bat, lapur bat balitz bezela, tratatzen duzuelako, baina nire kontsolamentua da hala tratatu zutela fariseoek Jesukristo gure Jauna bera ere.

MANDATARIA

Lege Berriaren aurrean, gizon guztiak dira berdin. Gizon klaserik eztago. Ez eska, bada, merezitzen eztuzun eskubiderik.

APAIZA

Jainko bat dago, eta hura da bortitz eta errespetagarri. Hala nola tratatzen nauzuen ni, hala tratatzen duzue hura ere. Nigan egiten

duzuen gaitza, harengan ere egiten duzue.

MANDATARIA

Hitzak eta hitzak. Ederki egiten dituzue sermoiak, pronuak eta predikuak. Gauza bat da predikatzea, eta beste bat oso diferentea ogia ematea. Gizonak obragatik neutzen ditugu guk. Hala, ez sermoirik guri kulpituan ezpaitzaude. Gure galderari ihardetsiko diozu egiarekin, eta hala nola den ihardukiera, hala izanen da zure tramentua ere. Ez ahatz hori. Konpreni duzu? Legearen aurrean zaude, eta zure apaizgoa alde batera utzirik, zure gizontasuna judikatuko dugu, eta gizon prestu bat zarela erabakitzen baldin badugu, gizon prestuek merezi duten errespetoa eta tratamentua eskeiniko dizugu. Konforme?

APAIZA

Bai, zuekin beste erremediorik ezpaitago.

MANDATARIA

Orduan, erantzun. Zenbat urte daramazkitzu Mugalden bikario?

APAIZA

Hogei.

MANDATARIA

Orduan, ederki ezagutuko duzu hemengo jentea, ezta?

APAIZA

Bai, hemengo jenteak, kristau onak dira, eta nirekin konfesatzen dira hilero.

MANDATARIA

Elizan kontatu zaizkitzun ipuien gainean, eztizugu ezer galdetuko. Bakarrik eliz kanpoan ikusi dituzun gauzen gainean. Beñat Larresoroko ezagutu zenuen?

APAIZA

Bai, mutil ona.



MANDATARIA

Bai, Joanategi soldadoak hil zuen.

MANDATARIA

Zer da tobera bat?

APAIZA

Herriko norbaitek bizitza ez ona daramanean, eta senar emazte arteko har emanetan gauza itsusi bat dagonean, mutilek haiengatik burla egiten dute. Bertsolari bat ekarri, egiak esaten dizkiote. Askotan, bertsolariak bertso papera ateratzen du. Hori egiten dute, andre alargun bat mutil gazte batekin ezkontzen denean. Andreak bide okerra hartzen duenean, mutilek toberak ateratzen dizkiote gizonari, eta honek erremedio bilatzen ezpadio egoerari, haren zezen adarrekin kontent geratzen baldin bada, orduan tobera mustra bat muntatzen zaio.

MANDATARIA

Eta hemen, Mugalden, sarri egiten al da honelako gauzarik?

APAIZA

Toberak bai, sarritan kantatzen dira. Motibo bat edo bestegatikan, urte guztietan lauretan edo bostetan. Tobera mustrak berriz oso guttitan. Aurkientza honetan, haran honetako hamabots herrietan, azken hogeitaz urte honetan, hiru tobera mustra muntatu dira bakarrik.

MANDATARIA

Hemen, Mugalden, inoiz muntatu al da tobera mustarren bat?

APAIZA

Nik dakidanez, behin bakarrik.

MANDATARIA

Bai, badakit, Joanategi soldadoaren andrearen ihardukieragatik, Beñat Larresoroko batek muntatua. Zer diritzazu zuk toberari?

APAIZA

Gehienetan eztiote inori kalterik egiten, eta bai askotan fabore haundia. Tobera bertsoak oso piper haundikoak dira, baina bada-kizu zer gertatzen den basoko herri hauetan, jenteak ttikitandik daki jaiotzearen eta heriotzearen arrazoia, eta eztira ezkandalagariak. Jente gaztea libertitzen da, ezkonduak hobeki portatzen dira bildur arren. Funtsuean toberak eztira onak, baina kalte baino fabore gehiago ekarten diote gizarteari.

MANDATARIA

Eta tobera mustrak?

APAIZA

Hori beste erresinula baten kantua da. Beti izan naiz ni haien etsaia. Ihaz oso kontrakoa jarri nintzen haien aurrean. Elizan sarrera debekatu nien.

MANDATARIA

Kalte haundia dakarte orduan.

APAIZA

Bai, fabore baino. Orduan grinak soltatzen dirade, eta beti akabatzen da guztia parte txarrean. Deabruak asmaturiko gauza da, eta deabruak eramaten du guztia azken finean.

MANDATARIA

Zer pasatu zen ihaz, bada?

APAIZA

Ni ez nintzen presente egon.

MANDATARIA

Eta zein izan zen toberaren ondorioa?

APAIZA

Guztiek dakite. Joanetegi soldadoak, kontrabandoaren aitzakiarekin, portuetan hil zuen Beñat gurea. Mendekantza zikina.

MANDATARIA

Eta zer gertatu zitzaion gero Joanetegiri?

APAIZA

Gauza itsusia, nik benedika eztezakedana.

MANDATARIA

Etzuen atzerrira ihesi egin, orduan?

APAIZA

Bai, mugarako bidea hartu zuen, bere andrearen atzean. Gau haretan baserri batetik nentorren ni, kristau bati oilioak ematetik, Joanetegirekin topo egin nuenean. Esan zidan andrea maitale batekin eskapatu zitzaiola bestekaldera, eta atzean zoakola ea ebaki ahal zezaiokeen ihesia. Inor ez hiltzeko agindu nion eta erantzun zidan kulpadunak punituak izanen zirakeela. Ezer egin ahal ukan gabe, herrirat bihurtu nintzen, eta eliz aurrean Beñaten andregaiia topatu nuen, izuak eta ikarak aurpegitik zerizkila. Hitz egin ere ezin zuen, bakarrikan deiadar egin, zoro baten antzean, eta herri guztiak irten zuen kalera. Ze iskanbila, ze zarata! Azkenean konprenitu nuen, konprenitu genuen, zer geratu zen. Enamoratu pare ak, Beñat eta Belen, oihanean igaro zuten eguna, ziza bila, eta soldadoarekin egin zuten topo, harekin aurkitu ziren, maitale enga nagarrien bila zoanean. Soldadoak esan zuen kulpadunak punituko zituela, eta Beñat ikusi zuen eta berehala, fusila jaso zuen aurpegira, eta tiro bat bota zion. Belen mintzatzen bukatu zuenean, mendekantza eskatzen zuten deiadarrak entzun ziren jentearen artean. Arteak galdu zituzten, eta adimentua eta zentzu ona bihur arazitzeko egiten nituen egin ahal guztiak, alferrikakoak ziren. Mundu guztia abiatu zen mendira, Neskak eta mutilak, gizonak eta andreak, hutsik geratu zen herria, bakarrik geratu ginen Belen eta biak. Elizan sartu ginen, ezer gerta etzedin, jainkoari errezatzer, Ama Birjina Doloretakoari otoitz egitera. Baina goian etzuten

gure erregurik entzun nahi ukan. Beharbada entenditu zuten Paradisokoek gure orazioak ahozkoak zirela bakarrik, eta ez bihotzezkoak. Gu urrikari bekatariok! Handik ordu betera, iskanbilak eta aldarriak entzu ziren plazan. Belenek, zoro batek bezela, elizatik egin zuen alde, baina ni barnean geratu nintzen, zarata guztia isildu zer arte. Orduan kanpora abiatu nintzen ni ere baina ez nuen inor ikusi, bakarrik arbola horretatik zintzilik, Joanetegiren gorputz urkatua. Aize haundia egiten zuen, eta hilotzak, aize arrosaren moduan, iparrera ta hegorat egiten zuen jira eta bira. Zer neindikeen nik haren alde? Arbolaren adarretik jatsi eta damuz, baina hurrengo goizaldean, biharamuneko zazpiretan, hilotza etzegoen nik utzi nuen lekuan. Etzuen lur santurik hartu, mendiko ezkutuan ehortzi zuten, eztakit nork, eztakit nun. Nire galdera eta azterketa guztiak alferrik izan dira. Isiltasunezko kapusai bat hedatu da nire ardienean. Hori da dakidan guztia. Egia esan dizut, egia osoa, eta egia ezten gauzarik eztitut esan.

#### MANDATARIA

Ederki. Herritar prestu bat bezala portatu zara. Zure prestutasunaren premio, libre geratzen zara, eta judizio osoan hemen presente egotea zilegi izanen zaitzu.

#### APAIZA

Asko estimatzen dizut. Artzaiak jakin behar du zer gertatzen den bere artaldean.

#### MANDATARIA

Medikua sar dedila. Zu, apaiz laguna, eser zaitetz nunbait.

*Medikua sartezen da.*

#### MANDATARIA

Ea zabaldu zaizkan begiak satorrari.

MEDIKUA

Hemen nadukazu berriz ere, jauna.

MANDATARIA

Bai, ikusten zaitugu.

MEDIKUA

Ez naiz kexatzen, eztut protestatzen.

MANDATARIA

Badadukazu zergatik kexa, zergatik protesta?

MEDIKUA

Zer esanen dut? Baietz esanen banu, orduan kexatuko nintzake, eta ezetz esanen banu, ez nintzake kexatuko.

MANDATARIA

Bai konprenitzen dizut, kexatu, baina ez kexatu, zara egiten.

MEDIKUA

Ez nuen ezer ikusi, ez nuen ezer jakin. Heriotze bi zertifikatu nituen, hemen dakarzkiz zertifikatu biak. Hauen kopiak Hiri Nagusian daduzkate. (*Paper bi ateratzen ditu, eta Mandatariari luzatzen dizkio. Honek irakurtzen ditu.*)

MANDATARIA

...autopsia egienaz geroz... berunezko bala bat garako hutsunean... (*Bestea irakurririk*)... aire falta... seinale more asko gorputzean... (*Paltrikan gordetzen ditu bi paperak.*) Ederki, txit ongi... Bai, bai, bai, bai... Gorde eginen ditugu... Lekukotasuneko proba gertuak dira... Baina honekin etzoazi aurrera; lehengo lekuan bertan geratzen zara. Gauzaren bat egonen da, zure buru barnean ezkutatua, antsiarik eman eztiotzuna, gure hauzian argitasuna emanen duena. Hola pasatzen da askotan. Egun batean ikusten duzu nola... (*Kapitainari.*) Kapitain jauna: Ekar dezatela berehala eskola maisua eta alka-tea. Eta zortzi soldado haien fusilekin. Izan ditezela tiratzaile

onak. (*Kapitaina joan eta sartu egiten da teatrutik.*) Bai, mediku jauna. Bai Bizia garratza da. Eztakigu etorkizunaren berri. Zuk behintzat. Nik bai. Oro dakit. Zer gertatuko den eta zer ezten gertatuko. Nire aginduetara dago dena hemen. Zer dodan, hura betetzen da. Bihar goizeko hamarretan eginen duen beroa ere esan dizazuket, termometroak berak ere niri obeditzen didalako. Eta sinisten ezpadidazu... dudatik etzera aterako. Eztakizu? Tiratzale onak ekarri ditugu gurekin. Nun begi, hara tiroa. Pikete buruzagiaren aginduak baino gehiago etzenuke zuk iraunen. Nik nahi nukeen momentuan bertan hilen zineke. Dudarik eztadukazu ezta? Orduan zergatik dudatu duzu bihar termometroak nik guratzen dudan beroa markatuko duela? Ederki, ederki, txit ongi, arras ongi... Esaten genuen... Nola batzutan ikusten dugun gauza bat... eta ezkara konturatzen... Beste gauza askorekin baikaude arduratirik... eta arduratzen garen gauzen azpian hamiltzen eta ehortzen da ikusten dugun beste gauza hura... Zure buru barnean aurkitzen da nik behar dudana.

#### MEDIKUA

Eta gogoratzen ezpanaiz?

#### MANDATARIA

Beste bat gogoratuko da. Begira, hor datortza maisua eta alkatea. Gure artean, inter nos, laguna. Aleginak egiten ezpadituzu... (*Soldadoak, maisua eta alkatea sartzan dira.*).. beste batek eginen ditu. Eta beste honek bere bizitza salbatuko du. Begira eskola maisua, nola ikaraz eta dardar datorren. Hau, bere haurtzaroan entzun zuen lehenbiziko hitzaz oroituko da. Ez ukan bildurrik. Maisu jauna, hurbil zaitezi. Zenbat urte dituzu?

#### MAISUA

... Hogeitamar, jauna.

## MANDATARIA

Edade ederra, bai, oso ederra, osagarri onarekin bizi izateko, halegia. Baina soldadoak oso gogorrak dira, astokilo koadrila bat direla esanen nuke. Nik esaten diet: gizon honi konfesa arazi zaiozue, eta nola niri, eztidan nola konfesa arazitzen dioten batere axolarik, haiek, beren metoduak enplegatzen dituzte. Esanen dizute, anka biak heda itzazu, eta gero ipini bi eskuak lurraren gainean. Hala paratzen dira mutilak zapoketan egiteko. Baina gerta liteke "Hain basatiak baitira soldadoak!", soldado batek ostikada bat emanen dizula atzetik ankarrean. Hori egiten, zaleak dira soldadoak. Batez ere, hordirik daudenean. Eta nik soldadoeri, konfesa arazitzea hasten dutenean, arnoa ematen diet. Batzutan, alegre nagoenean, koinaka ematen diet. Badakit nire bekatua dela. Baina zer eginen dut? Atsegin dut. Eta horrelako ostikada bat sufritu ezker, zertarako ikusiko dugu andreen edertasuna? Beste batek gozatuko du. Guk ez genuke gozatzeko Indarrik edukiko. Baina dena dela, hobe da nolabait bizi izatea, ez inola ere ez bizi izatea baino. Hobeki egoten da lurraren gainean, lurraren azpian baino. Ezta hala? Erretira zaitezi. Apaizaren aldean eser zaitezi, ezer esan gaberik. Entera?

## APAIZA

*(Bere lekutikan altxatzen da.)* Mandatari jauna: Goiko jaunaren izenean, eta Zuzenbidearen izenean, agintzen dizut, eztezazun gaiztakeriarik egin. Asmoak ikusten dizkizut. Badakit nora zoazen, eta ikusten dut bertara ailegatzeko edozein bide hartzeko zaudela prest. Eztezala, jauna, odol inozentak paga, odol doilorraren bidegabea.

## MANDATARIA

Kapitain jauna, gizon hori berriz mintzatzen bada, bistatik kendu didazu. Eztit axola nora eramaten duzun, gartzela edo urkamen-

dira. Berdin dit.

#### KAPITAINA

Nire iritzian hobeki egonen litzake eliz barnean. Eliz gizonak begiratzera bakarrik atera beharko lirake mundura, hala nola mundu gizonak bakarrik begiratzera sartu beharko lirakeen elizan.

#### MANDATARIA

Begira, Kapitaina. Hemen ditugu gizon bi. Esan didate hauek direla herriaren alderdi bien arimak. Medikutiarrak eta alkatia-rrak. Ezta hemen ezer gertatzen hauen ezagutzarik gabe. Kontrol izugarria daramate hemengo bizitzaren gainean, eta ezta hemen ezer ere mugitzen, ez eta hegatzina baten hegalak, hauen baimendurik gabe. Hemen medikuak dio, berak eztakiela deus gure zer eginaren gainean. Ederki jokutzen du satorraren ofizioa. Kargutik dimiti arazi diogulako, gure kontra dago alkatea, gurekin oso hasarraturik dago, baina hasarre horren ostean, zer ezkutatzen da? Martiariaren ofizioa jokutzen du ederki. Eta bere martiritzaren gibelean, bere haserrearen gibelean, arima oso beltz bat ezkutatzen da, bere aurpegi ilunaren atzean gaiztakeria ilun bat. Zer deritzazu?

#### KAPITAINA

Eztago batere dudarik, niri behintzat etzait apurrena ere kabitzen, aferaren funtsa gizon bi hauetatik batengan dagoela sustraiturik. Bat urkatu behar dugu. Baina zein?

#### MANDATARIA

Biak urkatzen baditugu, erruduna geratuko da kastigaturik.

#### KAPITAINA

Baina bestea inozenta da, ezta duka errurik. Inozent bat kastigatuko duzu.



MANDATARIA

Inozentziak eztu premiorik merezi.

KAPITAINA

Baina zergatik mereziko du kastigu hori?

MANDATARIA

Isiltzen den inozent bat, inozent tonto bat da. Eta tonterriak kastigoa merezitzen du. Biak urkatzen edo afusilatzen baditugu... kriminal bat eta tonto bat afusilatuko ditugu. Munduak eta gobernuak gure ekintza estimatuko dute.

KAPITAINA

Orduan, haiek erabaki dezatela, demostra dezatela tontoak ezirela.

MANDATARIA

Jaunak, hurbil zaitezte! Zuek zer diozue? Nahi duguna, bilatzen duguna esplikatuko duzue?

MEDIKUA

Nik eztakit deus.

MANDATARIA

Eta zuk, alkate jauna?

ALKATEA

Are guttiago.

MANDATARIA

Beren buruak kondenatu dituzte. Nik haien epaiaren eta sententziaren azpian firmatu beste, ez tut egiten. Afusila detzatela.

*Soldaduen artean ateratzen dira Medikua eta Alkatea. Minutu erdi baten buruan tiro batzuek entzuten dirade.*

APAIZA

Jaunak, edo zuen izaera bere izenez aipatzearren: animaliak. Lehen mehatxatu nauzue, berriz edekitzen badut ahoa, aldez edo

moldez isilduko nauzela. Eztik neri ez aldeak ez moldeak axolarik, baina nire deskontentamentua, nire protesta esan behar dut. Edozeim gauza daidikezue enekin, baina eznaiz isilik geratuko. Zerriak eta hienak baino zikinagoak zarete. Zuek egiten duzuen egiten duenak, ezta gizonaren izenik merezi.

MANDATARIA

Kapitain jauna, honela sartzen baldin badira oro gure zer egitekoa, ezta hau sekulare bukatuko. Leku apartatu batera eramanez duzu aho zabal hau, eztezadan sekula berriz ikus. Gero mintzatu gara harekin, beharbada.

KAPITAINA

Ederki. (*Apaizarekin ateratzen da.*)

MANDATARIA

Eskola maisua, hurbil zaitezi, faborez, elkar hizketa luzea eduki behar baitugu. Esan, esan... Badakizu zuk zer jakin nahi dugun, ezta?

MAISUA

Mesede bat eskatuko dizut, jauna.

MANDATARIA

Ezta mesederik, esan.

MAISUA

Nik hemen deklaratu dudana guztia egia izanen da. Baina egia dioena ezta beti sinetsia. Horregatik, nik diodana egiaztatzeke, beste pertsona bat etor dadila eskatzera ausartuko nintzake. Deklarazioak aparte hartuko zaizkigu, hari eta niri. Deklarazio biak berdinak badira, ze beste proba nahi duzue, egia diogula?

MANDATARIA

Arazoiarekin mintzatzen zara. Nor da, bada, beste pertsona hori?

MAISUA

Haren inguruan gertatu ziren hemengo gertaera guztiak. Inork

mundu honetan errurik baldin ezpaduka, inor mundu honetan elurra baino egiatiagoa baldin bada, nik ekarriko dizut honera. Haren ezpainetatik ezta gezurrik aterako, hala nola hodeietatik ezten ur zikinik eroriko. Eta norbaitek asunto honekin sufritu badu, bera da hori.

MANDATARIA

Eta haren izena. Belen da, ezta?

MAISUA

Nola dakizu?

MANDATARIA

Gauza gutti dago, nik eztakidanik.

MAISUA

Orduan, zertarako judikatzen gaituzu?

MANDATARI

Ederki. Hari ere hartuko diogu deklarazioa, eta erreboluzioaren bandera gorri eta urdinagatik zin egiten dizut, harek esaten badi-gu zuk eztoskuzun gauza, aurkientza honetan aurki litekeen haritz artezenetik urkatuko zaitudala. Konforme?

MAISUA

Bai, akort nator zurekin.

MANDATARIA

Kapitain jauna, bila dezatela edonundik Belen hori.

*Badoa kapitaina.*

MANDATARIA

Has zaitezi.

MAISUA

Nundik?

MANDATARIA

Bere hasiera eduki zuen munduak ere.

MAISUA

Baina hasiera guztiak bezelaxe gogorra izan zen hasiera hura ere.

MANDATARIA

Esazu nola ezagutu zeneun Belen hori.

MAISUA

Ni eznaiz hemengoa, jauna, Mugarteko hegoaldean jaioa naiz, baina herri honetako maisutza eman zidatenetik, hemen bizi izana nago, eta mugaldear bat gehiago konsideratzen naiz.

MANDATARIA

Ez ibili errametatik.

MAISUA

Esan nahi dut, jauna, herri honek bere espiritua dadukala, nik asko maitatzen dudana. Eta Mugalde maitatzen duenak, Belen maitatu behar du.

MANDATARIA

Ongi, ongi, arras ongi. Ederra, maitagarria eta errekaldeko lamiak baina liluragarriagoa izanez gainera, ze deabru eta ze arraio gertatzen da neska horrekin?

MAISUA

Udaberriko lorea, sasi harteko pospolina, hamabi ostoko krabelina, ilargi beheran botilatu den txakolina, txakolina gozoa eta biguna, herrian zegoen galairik zelebratuenak hartu zuen andre gai. Hori izan zen bere zoritxarra. Lehen lorea zena, orain orbela da. Tristerik dabil munduetatik orain Jainkoak kreatu zuen izakirik alegreena.

MANDATARIA

Eta Maria Joanategi, nor zen?

MAISUA

Pentsa litekeen sorginik itsusiena. Begizkoa egin zion Beleni, eta oso osasun txarrarekin ibili zen hau haur denporan. Egun batean,

Beñat Larresorokok, ur benedikatuz busti zuen Mariaren gorputz guztia, eta gero asunarekin legortu zion. Gero makila lodi batekin hezur guztiak hautsirik, aurrerantzean inori begizkorik ez egiteko agindu zion sorginari. Orduan, Belenen gorputza kimatzen eta loratzen hasi zen, eta florea ailegatu zitzaionean, hemendik ikusi den zitroirik doratuena zen.

MANDATARIA

Nun dago orain Maria Joanategi hori?

MAISUA

Mugandira, atzerrira ihes egin zuen.

MANDATARIA

Eta ezin deklaratu dezake. Uste dut haren deklarazioa ez litzakeela zurearen parekoa.

MAISUA

Haren ahotik beti ateratzen da pozoia eta zornea; aker kirastun batekin sartuko nintzake ni, harekin baino lehenago.

MANDATARIA

Etzaizu gustatzen?

MAISUA

Gusta? Hura niri gusta? Amorante lizuna! Herri aldeko mozkorti eta arlote guztiak gozatu dute haren larrua. Sats eta zimaur gehiago aurki liteke haren gorputzean, munduko zerritegirik zikinenean baino.

MANDATARIA

Mozkortu zara zu inoiz?

MAISUA

Ni mozkor honekin esan nahi duzu ea inoiz izan den hura nire amorantea?

## MANDATARIA

Bai.

## MAISUA

Eztizut esan, bada, eztagola inor herri aldean, harek liluratu eztuena? Sorgina zen. Enkantamentua zedukan. Haien belar eta ungentuekin, gizonen deseok zorutzen zituen. Baina batekin etzion baliorik ukan haren sorgin izateak. Eznintzen ni hura izan, ez. Beñat Larresoroko izan zen. Bortitza zen mutila, gogorra, indartsua. Aurpegira barre egiten zion, sorgina, atsoa, ahardia eta puta deitzen zion.

## MANDATARIA

Eta soldadoak, bien bitartean, zer egiten zuen?

## MAISUA

Etzen ezertaz enteratzen, hura baitzen gizon guztirik atzipetuena, engainatuena, liluratuena, zoratuena eta enkantatuena. Eztuzu sekula ikusi txori errusinola bat, sugearen aurrean? Sugea igaten da errametatik, txoria kantari eta txirriokari dagoen lekura; sugea geldiro doa; erramen artean beste errama bat dirudi. Txoria dagoen lekura heltzen denean, haren aurrean plantatzen da, lepoa altzaturik, txistu egiten hasten da. Txoria ezta mugitzen, ezta atrebitzen. Zer kostatuko litzaioke urrikariari, hegalkak airean hedatu eta astindurik, hegaldatzera abaitzea? Ezer ez. Baina ezta mugitzen, ezta atrebitzen. Hipnosia deitzen zaio horri. Eta hala gertatzen zitzaion Joanetegiri. Sugea eta txoria. Izen polita komedia batentzat.

## MANDATARIA

Ipui ederra, komedia ederra asmatu duzu. Gero sugeak bere burua eta mihin pozoatsua jaurtikitzen du txoriaren kontra. Hala gertatu zen?

MAISUA

Ez hola. Egun batean sugea aspertzen da, pentsatzen du txoria eztela mokadu egokia, haren sabel eta tripa haundia ez asetzeko adinekoa, eta beste baten gainean imintzen ditu begiak. Harekin eskapatu zen, herri honetan jadanik inork kasorik egiten etziolako.

MANDATARIA

Bai?

MAISUA

Begira. Parabolak alde batera utzirik, gauzak gertatu ziren bezelaxe esanen dizkizut. Begira. Mariaren bizioak eta eskandaloak haundiegiak ziren, baina are haundiagoa zen haren senarraren lotsa falta. Orduan erabaki zen, mundu guztiak jakin zezala nolakoa zen gure andrea, mundu guzti horretatik Juanategi soldadoa kendu gabe. Eta toberak muntatu ziren.

MANDATARIA

Bai, tobera mustra sekulakoak zelebratu zinituzten.

MAISUA

Joanategi komitatu genuen. Han zegoen bera, aurreneko hilaran, eta asko gustatu zitzaion komedia; asko barre egin zuen, eta jentek gehiago barre egin zion Joanetegiren barreari, toberari baino. Joanetegiren andrea ez omen zen handik agertu, beharbada alde zurretik zekielako, han zer gertatuko zen. Toberak egin ziren, bai, eta hurrengo egunetan etzen aldakuntza haundirik Joanetegiren bizi moldean egin, baina andrearenean, bai, haundia, toberek gizon guztien begiak argitu zituztelako, eta etzedukan sorginak nor ohera eraman.

MANDATARIA

Bai, bai, bai. Segi eta jarrai.

MAISUA

Orduan, tristezia eta haserrea egin zen sorginaren bihotzean. Eta

hortaz bai konturatu zen soldadoa. Honen pentsaera geldia zen, baina segurua. Dudak sartu zitzaizkan buruan, eta andrearen joan etorriez arduratu zen. Hau gaizki zebilen, eta nola inork etzion kasorik egiten, herrian zegoen mutilik gizarajoenarengan imini zituen begiak.

#### MANDATARIA

Bai, bai, bai. Segi eta jarrai.

#### MAISUA

Amoranteak egin ziren, eta egun batean, Joanetegi tabernan zegoen orduan, plazatik agertu ziren, gurdi batekin, eta mugara bidea harturik, arinki abiatu ziren ihesi. Zergatik hautatu zuten egunaren argia beren eskapua egiteko? Inork eztaki. Gau iluna hauta zezaketen, eta hola etzen inor, ordu batzu igaran artean, enteratuko. Baina ez, honelako gauza bat egiteko, desordurik desegokiena hautatu zuten. Eta laster ailegatu zitzaion berria Joanetegiri. Guztiok pentsatu genuen horregatik hautatu zutela eguerdia ihes egiteko, edonork ikusi zuelako, maleta eta fardel guztien gaintik. Fusil bat Joanetegik bere zamarian hartu zuen. Biraoka zoan, eta norbait hilen zuela zin egin zuen. Nik banenkien norbait hilen zuela, norbait horrek hura hiltzen ezpazuen lehenago. Eta norbait hil zuen ez guk pentsatzen genuena.

#### MANDATARIA

Bai, guzti hori badakit nik. Nola andreak muga eta portua alkantzatu zuen, eta nola agertu zen herrian Belen zure prenda galant hori, intziriaka eta negarrez, Joanetegik bere senargaia hil zuelarik. Eta nola jentea abiatu zen soldadoaren bila. Baina jakin nahi nuke nor izan zen haren bila lehendabizi abiatu zena.

#### MAISUA

Jenteak deiadar eta aldarri egiten zuen, zer egin jakin gabe. Mediku jaunak bere behorra hartu zuen, eta inori ezer esan gabe,



mendiru bidean abiatu zen. Ezkenuen ikusi zelatik zintzilik haren tresna maleta, eta pentsatu genuen mendeku bila zoala.

MANDATARIA

Orduan?

MAISUA

Orduan alkateak jenteari esan zion, medikuarekin joan behar genukeela denek, eta hara joan ginen. Joanetegi harrapatu genuen. Portuan zegoen hau, muga igaratera ausartu gabe, eta bere fusilarekin tiratzen zuen, amoranteak desagertu ziren lekura. Haserrearen zororik zegoen, aurpegia aldaturik, mutu.

MANDATARIA

Herrira ekarri zenuten.

MAISUA

Bai, alkateak bere zamariaren zelara lotu zuen soka luze batekin. Eta honerat heldu ginenean, nola jakin gabe, arbola horretatik urkatu genuen.

MANDATARIA

Nork imini zion soka lepora?

MAISUA

Eztakigu. Denak geuden gorrotoarren itsurik. Nor izan zen? Eztakit. Beharbada ni. Beharbada beste, norbait. Herri guztia, oro, bakoitza. Baina krimenaren egiazko erruduna, ezkinen gu izan. Maria Joanetegi izan zen. Desordu desegoki hura hautatu zuelako. Bazekien harek Beñat Larresokorekin eginen zuela Joanetegik topo bidean, haren atzetik abiatzen baldin bazen. Gainerako guztia igarririk zedukan. Hura kulpaduna.

MANDATARIA

Orain, Belen zoragarri horri galdetuko diogu. Etor dadila (*Belen agertzen da.*) Maisu jauna, zuzen zeuden. Lore ederra da gure Belen, arrosa polita, krabelina zoragarria. Hurbil zaitezi honera, ez ukan bil-

durrik. Hemen zure amaren magalean baino preziatuagoa zara. Belen, Belen. Izen ederra dontzeila batentzako. Zenbat urte dituzu?

BELEN

Hogei jauna.

MANDATARIA

Edaderik xarmangarriena.

BELEN

Deklarazioa emateko edade guztiak dira onak, jaunak, edadea ezpadio deklaratzaileri buruko argia kendu.

MANDATARIA

Aurpegi edera eta mihin zorrotza. Honelakoak dira andrerik gaitzenak, andrerik deseatuena. Baina niri, andre kontuetan, arriskua gustatzen zait. (*Kapitainari hitz egiten dio.*) Kapitain jauna, neskatxa honen deklarazioa sekretua izanen da. Ikusle eta entzule guztiak, zu aurretik egonik, hemendik joanen dira.

MAISUA

Jauna hori ezta zilegi.

MANDATARIA

Zergatik?

MAISUA

Badakit zure asmoa. Gure judizioaren gaian etzara harekin mintzatuko. Herrian hedatu da zure berria, nolako agure linburi eta haragi zalea zaren.

MANDATARIA

Isil zaitezi!

MAISUA

Eragotzi dizut zuri, aker adurri horri. Eztuzu zure adurrarekin lore usain gozoko hori zikinduko.

MANDATARIA

Kapitaina, alde egin zazue orok hemendik berehalaxe. Eta honi

mihin luze honi, lotsa gabeko honi, ehun zihor kolpe emaikiozue nire partez, erregaloa. (*Oro joaten dira.*) Zu, Belen, ez, etzaitezi joan, nirekin geratuko zara, mintzatu behar baitugu biok.

BELEN

Ez, utz zaidazu niri ere joaten.

MANDATARIA

Gera, gera zaitezi. Zuk zure ama edukiko duzu, edo zure aita bat, neba edo ahizpa. Pentsa zazu, haien bizi modua, haien bizitza ere nire eskuetan dagoela.

BELEN

Etzaitut konprenitzen.

MANDATARIA

Asko gustatu naiz zurekin, neska, nire bihotza prendatu duzu. (*Belenek alde guztietara begiratzen du, eta zuleriatik jeitsi nahi du arinki, baina Mandataria hura baino arinagoa da, eta eskutik harturik, lurrera botatzen du neskatxa.*) Begira, neska, nirekin artez ibil... Eztut nik txatntxetan ibili nahi. Horregatik gauza argiro esanen dizkitzut. Herri honen etorkizuna nire eskuetan dago. Eztuzu ikusi nola afusilatu diren oraintxe gizon bi? Honela afusilatuko dotut hemengo gizon andre guztiak nire gutiziari amore ematen ezpadiozu. Entzun? (*Mutil gazte bat sartzen da deiadarrrez.*)

I.MUTILA

Sorgina! Sorgina etorri da! (*Badoa.*)

MANDATARIA

Ze arraiio gertatzen da? (*Bigarren mutil bat sartzen da.*)

II. MUTILA

Sorgina, sorgina, sorgina, sorgina. (*Badoa.*)

MANDATARIA

Kapitaina! Ager zaitezi! (*Hordi biak agertzen dira.*)

LEHEN HORDIA

Mandataria jauna!

MANDATARIA

Nola demonio atera zarete presondegitik?

LEHEN HORDIA

Bertsolari bi giltzapean edukitzeko, gartzela naikoa haundirik eztago. Badakizu zer gertatu den? Sorgina etorri da! Maria Joanetegi zori gaiztokoa! Orain justizia egin dezakezu!

MANDATARIA

Bai? Eta nola?

LEHEN HORDIA

Herri osoak deklaratuko du haren kontra. (*Kapitaina, soldadoak, herriko jentea, apaiza, maisua, sartzen dira. Eta guztien aurretik, andre eder eta urtetsu bat.*) Mandataria, hor duzu erruduna. Zabal ditezila zeruak! Ilun dadila eguzkia, zuk hura kastigatzen ezpaduzu!

MARIA

(*Mandatariari.*) jauna! Maria Joanetegi naiz. Nire gizona, nire gizon maitea, herri honetan izan zen hila. Eta egiak deklaratzera etorri naiz.

MANDATARIA

Zer esan dezakezu zure alde?

MARIA

Ihes egin nuen hemendik, jauna, etzezaten nirekin egin, nire gizonarekin lehen egin zutena. Gure soldadotza honera etorri zela jakin nuen bezain laster, berehala etorri naiz honera ni ere.

MANDATARIA

Maisu jauna!

MAISUA

Esan!

MANDATARIA

Ezagutzen duzu andre hau?

MAISUA

Bai.

MANDATARIA

Nor da?

MAISUA

Bere gizonaren erailea!

MANDATARIA

Maria Joanetegi andrea! Nork hil zuen zure gizona?

MARIA

Herri honetako gizon andreek!

MANDATARIA

Jainkoaren izen sakratua! Baldintza hauetan nola liteke inor judikatzaile justu eta zuzena izan? Zer dakit nik orain? Hauk dira nahastaile galantak! Baina nolabait erabaki behar da hau! Zer egiten dut? (*Jentearen eta soldadoen artean paseatzen da.*) Norbait izanen da kastigatua! Andrea hala herria. Niri berdin dit. Eztut herri honetan egun bat pasatu, eta asperturik nago jadanikan. Mugarteko bidean paratu behar naiz gau honetan nire Belenekin, basoko lore koloretsu hau ikus dezaten hirian. Nik erabaki nahi eztudana, sorteak erabakiko du!

MARIA

Ez! Justizia parti!

HERRIA

Zorterik ez! Zuk erabaki zazu!

MANDATARIA

Aurpegia ematen baldin badu, urkatua izanen da Maria. Gurutzea ematen baldin badu, herriko etxe guztiak, eliza, pilota tokiak eta edozer gauza lurrarekin berdindua izanen da. Zortea. Hau izanen

da erabakitzele, juezik artezena.

MUNDU GUZTIA

Ez.

Ez,

Ez.

Ez.

Ez.

Ez.

MANDATARIA

Diru ona da, erregearen diru zaharra, zilarra. (*Diru moeta bat jaurtikitzen du airean, jira eta biraka.*) Aurpegia ala gurutzea? Justiziarik ederrena! (*Kolpe bortitz batekin, oholaen gainean erortzen da dirua. Jentea aldarrika intziriaka abiatzen da. Mandataria kanpora abiatzen da Belenekin, baina desagertu baino lehen, kapitainari diotsa.*) Kapitain jauna, nire sententzia kunpli bedi! (*Badoazi, Kapitaina lurrera makurtzen da, dirua hartzeko.*)

TELOIA KORRITURIK, KOMEDIA HAU AKABATZEN

DA



## **JUSTIZIA TXISTULARI BI ZATITAN KONPONDUTAKO ANTZERKIA**

### **Justizia txistulari bi zatitan konpondutako antzerkia**

Antzerki honen gaia "Belaunaren eskubidea" da eta gaiari buruz gaztea jakinaren gainean egoteko, azalpen laburra egingo dugu.

### **Belaunaren eskubidea**

Ukaezina da, erdi-Aroko menpekotasun formen Artean Gorputz zama zenbaiten existentzia. Katalunian, Pierre Bonnassie-k ikertutako erregioan, XI. Mende bukaeratik, nekazaria morrontza pertsonalari lotua zegoen, erabilera desegokien arau orokorren menpean, guztia lurrari atxikia egotean zehazten zen. Bonnassie-k beste batzuen artean ondokoak aipatzen ditu; testamentua ezin ematea, jauntxoarekiko menpekotasuna jaurerrietik kanpoko ezkontzarako, eta abar...(1) Gaztelan, garai berean behetria edo talde sarreren fenomenoak ematen da, bertan herrixka osoa jaun bati gomendatzen da. Ildefonso fausto Arocenak Astigarrako (Gipuzkoa) "encomienda" ikertu du, non bertako nekazariak feudal izae-rako betebeharrak zehatzak zor zizkieten lekuko jaunei, San Millango Markesei (2).

Dirudienez Europa Mendebalde erdialdeko erregioetan lortu zuen feudalismoak bere garapen handiena eta izaera klasikoena. Katalunia horrelako erregio bat izan zen, gaztela baino zentralizazio handiagoa beteaz, eta zer esanik ez Euskal Herria baino. Honek ez luke esanahi ondoren deskribatuko ditugun forma feudal garratzenak ez direla eman aipatu azken bi erregioetan. Baina badirudi forma propioak eman zirela forma klasikoekin bat ez zetozenak.



1202.ko Cerverako Korteek jauntxoei bere nekazariengan tratu txarrez baliatzeko eskubidea onartzen zien, "*ius maletractandi*". Gaztelara eskubide hau ez zen 1356-ko korteak arte iritxi.

Horrela ba beste batzuen artean jauntxo Katalanek **belaun eskubide** zuten. Historialari Katalanek eskubide honetaz baieztu dute, nahiz eta badirudien Katalunian ez zela aplikatu, jaunak ezkontz gaua nekazarien emaztearekin igarotzeko eskubidea zela. Hau ekonomi arloko ordainketa baten truke alda zitekeen eta zeremonia sinbolikoan jauntxoak bere zangoa ezkontz ohean ezartzen zuen. Nahiz eta birritan garaiko sindikoeak aitortutako erreklamazioa dela (3). Baieztu duten historialari hauek.

Beste historialari batzuk, hala nola Paul Eric Blanrue, berrikuspen jarrerarekin, nahiz eta eskubidearen existentzia aitortu dudan jartzen du beraren praktikara eramatea. Alde batetik dio eskubide hau gaurko gizarteak gogoratzen du eta egungo sexu gehiegirikien aurretikoa bezela edo taldearen inskonzientean iraun duela mendeetan zehar. Frantseses "*Droit de cuissage*" bezala ezagutzen den mota juridikoa, Blanrue-ren arabera Dupin liberalarengaitik berasmatu izan zen 1854-ean bere antiklerikanismoa arrazoitzeko. Aurrez aurre ultra katolikoak, Louis Veullet aintzindari zutela, defendatzen dute "*Droit de cuissage*" expresioaren agerpenak aintzinako testu batean ez duela frogatzen bere existentzia. Ikusi dugu erdiaroko sindikoa katalanen erreklamazioetan agertzen dela, agertzen da, baita XII. Mendeko testu frantses satirikoaren batean nahiz Normandia, Picardia eta Bearn jatorrizko beste hiru dokumentotan. Lehenengo bi erregioak Frantzia iparraldekoak Euskal Herritik urrun daude. Hala ere Bearn-ek aintzinako Nafarroako erreinuarekiko mugakide izanik, kultural nahiz era guztietarako harreman estuak mantentzen ditu berarekin.

## ONDORIOAK

Ezin badugu ere gure artean bere existentzi praktikoa ziurtatu, "Belaun-eskubidea" erdi-Aroan zehar kodifikatua egon zen Frantzia Hegoaldeko eta Kataluinako erregioetan.

Onartua dago erregio hauek, zeinak feudalismoaren erdigunetzat jo ditzakegun, feudalismoa den organizazio sozial eta ekonomikoaren izaerak inngurunera zabaltzen dituztela, hauen artean erdiaroko Euskal eta Napar erregioa koka dezakegu. Honek, dudarik gabe, eragin hauek jaso eta bereganatzen ditu, Behe erdi-aro arte, gaztelar koroako beste zonaldeetan bezala, praktika horiek gure komunitateetatik urrun mantendu zien. Hala ere, beste banatze elementuek, menpekotasun pertsonalak eta tratu txar orokortuek Euskal Erdi-Aroan buru izan ziren alderdien borroketan, baieztatu dezakete "Belaun-eskubidea"k Euskal Herriko Erdi-Aroan birtualitatea eduki ahal izatea, (Hau lan literarioetan ikertu liteke).

## BIBLIOGRAFIA

AROCENA, Fausto "Linajes y bandos, En Historia General del Pais Vasco. Dr. Caro Baroja, J. San Sebastian c.1980.

BARROS, Carlos (...) en revista Historia Social años 95 o 96.

BONNASSIE, P. *Vocabulario Básico de la Historia Medieval*, ser vidunbre, Critica, Barna. 1983.

GURRUTXAGA, ildefonso. "La Encomienda de Astigarraga" RIEV, c. 1934.

RUQOI: "La mujer mediaval, el final de un mito, Historia. 16, n° 21, Enero 1978

VV.AA.: *Els pagesos de Remença. Commemoració del 500 ani versari de la mort de Francesc Vernatallat, cabdill de remença*, Barcelona. 1999

**OHARRA:**

Belaun-eskubideari buruzko lan hau, Jose Gabriel ZURBANO Melero jaunak propio antzerki honen gaia argitzeko prestatu du. Imanol Garziak euskeratua eta irakurlearen gozamenerako osorik eskeintzen dut.

## **Justizia txistulari bi zatitan konpondutako antzerkia**

Oiartzungo teatrogile guztiei

**OHARRA:** Komedia honetako azken redakzioa-lana (aditza, ortografia eta hitz askoren propietasuna: nire euskera baldarraren azken orraztutze herrikorra), Oiartzungo makin-idazlearen eskuetan geratu zen. Har beza bere responsabilitadea, nik nerea hartzen dudan bezala.

### **LEHEN ZATIA**

*(Igande goiz bateko lehen orduak dira. Jauregi eta eliza daude. Egunentiko eguzkiaren dizdizerak argitzen du lekua. Gabon-EDER bakarrik.)*

**EDER**

*( Bost koplak hauek kantatzen ditu, doinu triste, bigun eta zahar batean.)*

#### **I**

*Nola da nere bihotza  
Egun honetan hain hotza.  
Bihotz honeri mundu guztiak  
Ez tristatzeko diotsa.*

#### **II**

*Jaun konde eta apaiza  
nere atzetik dabilta.  
Eskurik esku artu nai naute.  
Ardi gaixoaren gisa.*

III

*Pobreak gera esklabo  
Libertadea akabo.  
Nola idiak uztarripean  
Euskaldun herria dago.*

IV

*Aire zaida faltatu  
Deabrua dut aipatu.  
Il arteraino egin behar det  
Txordon Pilota maitatu.*

V

*Zeruan ez da izarrik  
Maitea bezain Eder-ik.  
Gabon Eder-ek izan behar du  
Maitearentzat bakarrik.*

*Ixildu egiten da. Ager-tokian beraren aita agertzen da. Perrando Txistu, alaba kantatzeetik gelditu baino lehen sartu da. Eta azken koplak hori bukatu ondoren bertan, Txistua jotzen hasten da, beste melodia trixte eta bihotz-erdi-bikor batean. Gabon-Eder-ek Txistuaren soimura dantzaten du: ikustaleak ez du jakin behar dantzarisaren pausoa nolakoa dan, aingeru inozente batena edo infernupeko liluragarri bateana.*

*Apur-apurka, eta Txistuaren doinu tristea amaitzen den bitartean, egunaren argia zabaldu da guztiz. Agirian dago Perrando Txistu gizon baserritar bat besterik ez dela, bere maneretan eta begiradetan oso torpe eta desabilia. Gabon-Eder bazter batean deskantsatzen dago, eta ez da enkantuan eta dantzan iraun duan artean bezelako lamia enkantagarria, herriko alaba deseagarri bat baizik.*

TXISTU

Zertara etorri zera herriko plazara horren goiz, alaba? Etxetik ateratzen ez zaitut sentitu, eta ohean zinela uste nuen.

EDER

Aita, sekretu bat aitortu behar dizut.

TXISTU

Bai, alaba?

EDER

Entzun zaidazu, aita. Zure etxean ez nauzu beti edukiko, debalde mantentzen. Zuk haur banintz bezela begiratzen nauzu, baina ez naiz horren haurra. Andretu egin naiz, aita.

TXISTU

Aita bati asko kostatzen zaio holakorik ezagutzea, baina zure gerri liraina ikustean, ez det batere dudarik.

EDER

Famili bat eduki nahi dut, nerea. Haur asko ekarri nahi ditut mundu honetara. Eta gizon bat nahi dut famili horren buru izateko.

TXISTU

Bai, ongi dago, Goiz edo berandu ordu hori etorriko zela banakien. Baina ez zaitetz kezkatu. Zuretzat oso dote on bat tajutu det ama hil ondoren bizi izandu geran urte hauetan. Perratzaile batek gutxi irabazten du anketik ankera lanian, eta horregatik ikasi nuan Txistua jotzen. Jai eta pesta guzietara deitu naute bailarako herri guztietatik, eta probintzia guztian zabaldu zen nere trebetasunaren sona eta fama ona. Perratokitik ateratakoarekin eguneroko ogia jan degu, eta Txistuaren soinetatik ateratako urre eta zilar guztiak ongi gorderik daduzkat etxeko kutxa fuerte batean, lapur guztietatik hurruti, zu ezkonduko zinan egunaren zai. Dote eder horrekin oso gauza erreza izango degu behar bezelako senar egoki bat aurkitzea. Ez zaitetz horregatik arduratu, alaba. Aitak

asko maite zaitu eta aurkituko dizu mutil egoki bat.

EDER

Bainan aita, mintza eta mintza ez zera gelditzen eta hitzegiten ez didazu uzten. Senar bat aurkitzeko ez dut zure beharrik. Nik bakarririk topa dezaket nere gustoko mutil on bat.

TXISTU

Bila zazu, bada, eta etzazu bazterrik nastu.

EDER

Aurkitu dut, aita.

TXISTU

Aurkitu dezula?

EDER

Bai. Aita; hau zen nere sekretua.

TXISTU

Ederra atera zait oloitegitik oilanda. Eta honetarako bizi izan naiz ni hainbeste urtetan ardo goxotik eta amodio gazitik aparte? Nire txanponak behar ziren egunean baliorik ez izateko?

EDER

Balioko dute, aita.

TXISTU

Eta nor da, nire alaba lapurtu nahi didan animarik gabeko gizon hori?

EDER

Benetan pentsatzen al dezu esaten dezuna, aita, edo ni haserretze-agatik hitzegiten dezu modu eskas horretan? Hainbeste oztopo kontrario dauzkagunean, jaun kondearen abariziaren kontra eta erretore jaunaren lizunkeriaren kontra burrukatzen dugunean, nere aita bera, orain artean hainbeste maite izan nauzun nere aita bera, zu ere gure kontra aterako al zera?

TXISTU

*(Erdi-parrezka.)* Alaba...

EDER

Ala gertatzen baldin bada, nerea etxea madarikatuko dut, gure izena aldatuko dut, zure diruak despreziatuko ditut, eta orain arte-rainoko nere bizitzatik gauza bat bakarrik gordeko det animaren barrenean, nere ama zenaren oroitzapen maitagarria. Hori bakarrrik gordeko dut, eta gainera, nere bihotzean samintasun mingots bat, min garratz bat nere bularraren barrenean, gehien behar izan detan orduan nere laguntzarik bortitzenak utsegin didalako. Bainan ondo entzun eidazu, aita, zabal itzazu ahalik eta zabalen zure belarriak, mundu honetan ez bainau ezerk, ezerk, entzuten duzu?, ezerk ez bainau nere Txordon-Pilota-ren amodiotik aparatatuko

TXISTU

*(Parra egiten du.)* Ja, ja, jai, jai!

EDER

Eta gainera, neri parra egiten didazu?

*Txistuk lehertu arte egiten du parra.*

EDER

Ai, ni errukagarria! Ai, ni trixtea! (Elizaruntz dijoa, eta bertan makurtzen du burua negar egiteko.)

TXISTU

*(Ez du parrerik egiten. Bere aurpegiak aldaketa haundi bat sufritu du, serio alabarengana dijoa.)* Alaba....

EDER

Zer nahi dezu orain?



TXISTU

Barka zaidazu. Badakizu nolako humore bihurria dadukan zure aitak. Begi hoietatik negarra irten arazi detalako damu naiz. Bainan zin egiten dizut, etzen hori nere asmoa. (Eder-ek bere begitartea altxatzen du.) Ez, alaba, etzan hori nere asmoa. Badakizu gauza bat, nere sekretu bat? Nik ere sekreto bat badaukat.... Nere sekretua jakin nahi dezu, alabatxo?

EDER

*(Oraindik paretan kontra makurturik, buruko ileak apartatzen ditu aurpegitik, eta negarraren artean hortzak agertzen ditu, irribarrez.)*  
Zuk sekretu bat, aita?

TXISTU

Bai.

EDER

Eta zer da? Zein da zure sekretua?

TXISTU

Gaizki portatu zera. Zure aita ez dezula ezagutzen aditzera eman dezu. Eta hori ez nizun barkatuko....

EDER

Ez, zenidan barkatuko...

TXISTU

Ez, ez nizun barkatuko, nere txori polita, nere krabelin usain gozokoa, ez nizun barkatuko hainbeste maite ez bazinduket.

EDER

Mesedez, aita, zure sekretua esaidazu.

TXISTU

Gaizki portatu zera?

EDER

Gaizki portatu naiz, baina mesedez, aita, zure sekretua aitoren zaidazu, bestela jakin-nahiak jango nau.

TXISTU

Merezia zenuke. Nere sekretua.... (*Gelditzen da. Eztul egiten du.*)

EDER

Esan aita!

TXISTU

Baina ez dakit nere sekretua jakitea merezi dezun. Zure aitaz etzera fio izan. Oso gaiztoa izan zera, eta...

EDER

Gaiztoa zu zera, berehala esaten ez badidazu, berriz haserretuko naiz, eta haserreturik, begiak itxutu egingo zaizkit, eta ez dut jakingo zer egin eta haserre golpe batean burua apurtuko dizut...

TXISTU

(*Parreka.*) Zerekin apurtuko didazu burua?

EDER

(*Parrez hau ere.*) Mailu eta biolarekin.

*Biak parra egiten dute.*

TXISTU

(*Parreka*) Zure maitasuna ezagutzen nuen zuk esan baino lehen, alaba.

EDER

Ba-zenekiela guztia?

TXISTU

Bai, maite. Txordon-ek zu ezagutu baino lehen kortejatzeko baimena eskatu zidan. Oso pozik eman nion, oso nere gustokoa baita mutila. Eta badakit zertara etorri zeraten biok gaur goizean goizik honera. TXORDON-ek esan zidan.

EDER

Eta zer uste dezu, aita? Konde jaunak bere eskubidea saldu nahi

izango duala?

TXISTU

Konde jauna oso diru-zalea da. Ni ezkondu nitzanean urre batzuren truke saldu zuen bere eskubidea, eta orduan orain baino hogeita hamar urte gazteagoa zan. Zu oso ederra zera, eta konterri guzian zu bezain nekatx egokirik ez omen dago, baina, hau mundu guztiakk daki, zure amaren ondoan atxo itxusi bat zenidurike. Hura zen ederra, hura! Haren ederraren edertasun ederra probintzia guzian ezaguna zen. Eta hala eta guztiz ere lurralde hauetan sortu den emazterik galanten eta politen aukeran eduki arren, bere eskubidea saldu zuen. Bere belaun-eskubidea saldu zidan. Ez dago, beraz orain bestela egingo duela pentsatzeko motiburik.

EDER

Eta zergatik, aita? Zergatik gizon batek, gure etxearen eta bizitzaren jabe baldin bada ere, zergatik izan behar du bere konterriko neska ezkondu berriak estreinatzeko eskubidea?

TXISTU

Jainkoak emandako eskubideak dira. Galde zaiozu erretore jaunari, eta argi eta garbi esaango dizu: Bera gure nagusia dela, hemengo lur, etxe eta eskubide guziak bereak dituela.

EDER

Baina aita, gu ez gera abereak. Gure etxe eta gure lurren jabe izango da, baina ez dut ikusten zergatik izan behar duen gure eskubideen jabe. Hori ez da erretoreak elizan erakusten diguna. Berak dio Jainkoak gizonarentzat egin zuela andrea, eta andrearentzat gizona. Ezkontzako sakramentuaz mintzatzen zaigunean, gure senarra zerbitu, maitatu eta oneratu behar degula dio, eta mila kate, debeku eta uztarri jartzen dizkigu. Eta gauza hauek guztiak esaten dizkigun momentu berean, hartu eta kendu, konde jaunaren

jauregira bultzatzen du andre ezkon-berria, zezenarengana eramaten den txalaren antzean. Hori ongi al dago, aita, ongi al dago?

TXISTU

Alaba, utzi urak zubi-azpitik igarotzen, eta eliz-gizonentzat elizarenak diran gauzak. Elizak baditu bere jakintsuak. Dena dela, horretarako bildu ditu zure aitak bere urreak eta zilarrak txistua-  
ren golpez eta indarrez herririk herri. Jaun kondearen gorputz ustelarekin kutsa zaitezen ez dago batere arriskurik. (*jauregiko ateak irikitzen dira.*) Ara or dator Txordon Pilota. Erregate ederra izango zuan konde jaunarekin denbora asko pasa du ta. (*jauregitik Txordon Pilota agertzen da.*) Txordon, Txordon goazen etxera, zuen ezkontzaren berri herri guztira zabaltzearen, munduko festarik ederrrena apaindu behar baitugu gaur gaberako.

PILOTA

(*Serio, txit serio, aurrera dator; gaztea da, zimela, indartsua, ederra, baina zaplada baten marka aurpegian daramala esan diteke.*) Ez.

TXISTU

Ez?

PILOTA

Ez.

EDER

Ez?

PILOTA

Ez.

EDER

Ez du saldu nahi?

PILOTA

Ez du saldu nahi?

EDER

Zergatik? Ze arrazoi eman du?

PILOTA

Zurekin seme baztardo bat izan nahi du.

*Ixil-une latz eta mingarria.*

EDER

Txordon.

PILOTA

Zer, maite.

EDER

Ihes egin dezagun hemendik. Aitak baditu txanpon ederrak. Zaldiak eros ditzagun, eta kondearen soldaduak kontura ditezten baino lehen Kastillan aurkituko gera. Bertako herririk herri ez gaituzte bilatuko.

PILOTA

Ez.

EDER

Zer egin behar degu bestela?

PILOTA

Hauzi hau legez konponduko da.

TXISTU

Legez, Txordon? Lurralde honetan jaun kondea da jabe eta lege. Nora jo dezakegu beraren kontra?

PILOTA

Horrera! (Eliza seinalatzen du)

TXISTU

Eta zer egin dezake erretore jaun urrikagarriak?

PILOTA

Bera da hemen Elizaren ministroa. Eta gizonen legearen gainetik beste lege sendoago bat badago, Jainkoarena. Berak agintzen du bere lege santuan, lagun hurkoaren andrea ezin desiatu litekela. Eta pizti zikin horrek, konde jaun mixerable eta madarikatu horrek, nere andrea desiatzen du. Erretoreak aldi honetan kondetaren kontra burukatu beharko du. Orain artean beti izandu da bere zerbitzari eta mutil lehiala, baina Ebanjelioan eskribiturik dago ezin zerbitu litezkela bi jaun batera, ezin zerbitu litezkeela kondea eta jainkoa batera. Belaunaren eskubidea, neskatx ezkondu berriaren gorputza gozatzeko eskubidea, gizon doilor eta etoi batzuren legea baldin bada, erretore jaunak aitortu beharko du hori ez dela Jesukristok bere Ebanjelioan utzi zigun dotrina.

EDER

Eta ezer lortuko al degu?

PILOTA

Ez dakit. Baina nola nahi ere gure alde burukatu beharko du.

EDER

Ez al-litzake hobe izango, Txordon, lehen esan detana egitea? Ihes egin dezagun!

PILOTA

Ez, gure alde burukatu beharko du.

TXISTU

Txordon, nik ez dakit zuk diozuna egia den ala ez, baina beti erakutsi izan zaigu eskubide izugarri hori Jainkoak emandako eskubidea dela. Zuk diozuna egia izango da, baina hemen, konterri honetan, bestela da. Nik zuk diozuna ez dut ukatzen, baina nik diodana ere zuk ezin uka dezakezu. Badakizu erretorea nork pagatu duen? Kondeak.

PILOTA

Ez, eta mila bider ez. Lege bat dago zeruan, eta hura kunplituko da.

TXISTU

Txordon, Txordon... Gazte zera. Entzun zazu neri urteak erakutsi didaten lezioa. Nere buruaren gaineko ile urdinak ez dira alperri-kakoak. Jaun kondearen kutiziari burla egiteko ba daude mila modu eta medio.

EDER

Bai, aita? Esan.

TXISTU

Errezena hau da: gazteak zerate, eta konde jauna ezin balia ditek bere eskubideaz elkarrekin ezkontzen ez zeraten bitartean. Eta zergatik ezkondu? Gure etxean hartuko zaitugu ostatuz, eta bitartean jaioko diran haurrak bastardo geratuko dira konde jauna hil arte, edo haren desioa bukatu arte. Gainera urreak aurreratuko ditugu, eta bizi-modu lasaiagoa edukiko dute nere ilobak. (*Zalantza.*) Bestela bi ezta egin ditezke, estreinakoa elizan eta biharamonean etxean bestea. Neskatx bat ez da aurreneko gauan ernari gelditzen. Nola nahi ere, famili barreanean kondearen seme bat edukitzea ez da hain gauza txarra gertatzen. Beraren herentziazatik zenbait dukat beti eskapatzen dira. Eta gainera, hau da elizako aurrekaldeko aulkietan jartzeko geratzen zaigun bide bakarra. Bestela badakigu zerk itxaroten digun, alaba. Bizitza estu bat, beti elizako atzeko aulkietan, hauzokoen burlarekin. Zer egin dezakegu? Gaur egunean halakoa da mundu guztian behartsuaren bizitza.

PILOTA

Ez, ez eta ez. Orain ikasiko du kondeak herri honetan nola defenditzen den justizia. Abere likitxa! Urde zikina! Judu zekena! Ikustekoak ikusiko dituzu, azeri maltzurra!

*Ukabila astintzen du jauregiaren kontra.*

EDER

Txordon, geldi, arren ez zaitez horrela kejatu.

PILOTA

Kejatu? Hasarratu? (*Elizara urbiltzen da eta bertako atea jo-tzen du.*) Erretore jauna! (*Gogorrago jotzen du.*) Erretore jauna! (*Pixka bat zabaltzen da atea. Zirrikitian Marika beltza agertzen da.*) Aizu, atxo zaharra, nun dago zure patroia? Atera dedila berehala, aurrez aurre ikusi nahi baitut berarren aurpegi zimela!

MARIKA

Jaun erretorea oso lanpeturik dago gaurko mezarekin. Jaun kondeak bere presentzia prometituta du, eta berak erregalatutako kalizari briloa atera nahi diogu, urrezkoa ez dela jendia konturatu ez dedin.

PILOTA

Zer kaliza eta zer demonio! Esaiozu berehala ateratzeko, bestela nik bizkar ezurra berotuko dizut!

MARIKA

Zure mingaina lotu zazu. Ez al dakizu jainkoaren atea jotzen dezula?

PILOTA

Jainkoaren atea jo eta beraren atzetik infernutar atxo beltz bat atera zait.

MARIKA

Erretoreak parte emango dio kondearen probestuari.

PILOTA

Parte edo nahi duana ematea berdin zait.

MARIKA

Joan zaitezte hemendik. (*Atea itxi nahi du.*)



PILOTA

*(Zirrikituan anka sartu eta ez dio itxitzen uzten.)* Bera ateratzeko, edo bestela ni sartuko naizela beraren bila.

*Baina atea guztiz zabaltzen da, eta bertan MOSEN Bertran agertzen da, urte askotako apaiz zaharra.*

MOSEN

Zer gertatzen da hemen?

PILOTA

MOSEN Bertran.....

MOSEN

Ze eskandalo da hau?

PILOTA

Zurekin mintzatu nahi dugu.

MOSEN

Eta seme batek bere aitarekin mintzatzeko hainbeste zarata atera behar al du?

TXISTU

Barka zaiozu TXORDON Pilota-ri bere haserre bizia. Badakizu nolakoa dan gazte jendea, beti sutsu eta minkor. Guk zaharrok hobeki konprendituko dugu elkar, eta hobeki tratatuko dugu gaur honera gakarzkien asunto iluna.

MOSEN

Eta zerk ekarri zaitue, zu Fernando TXISTU, zure alaba eta pelotari sutsu horri?

TXISTU

Begira zazu, jauna; hemen gazte hauek elkarretaz enamoratu dira. Elizak agintzen duen bezela ezkondu nahi dute.

MOSEN

Bendizioa emango diegu eta kito.

TXISTU

Bainan oztopo txiki baten aurrean aurkitzen gera.

MOSEN

Bai? Jaun kondearen eskubidea erosteko dirurik ez al dezue?

TXISTU

Hor dago, ba, kakoa. Ez du saldu nahi.

MOSEN

Eta zergatik?

TXISTU

Nere iloba baten aita izan nahi du.

MOSEN

Ene! Hainbeste urtetan ez da nere artaldean holakorik gertatu.

TXISTU

Horregatik gatoz, bada zuregana.

MOSEN

Eta zer egin behar dut nik?

TXISTU

Belaunaren eskubidea ez da orain artean diskutitu inoiz. Baina oraingo gazteria oso ideia aldrebesakin dator. Nik ez dakit egia izango den ala ez, baina nere alabaren senargaiak Jesukristo Gure Jaunaren Legea agirira atera nahi du; Beraren hamar mandamentuak aipatzen ditu, eta bat hain bereiziki. Nik ez dakit mandamentu horrek jaun kondearekin zer ikusirik dadukanik. Jaunaren Legea gizon guzientzat berdin emana baita. Baina ala baldin bada, badirudi nere alabaren senargaiak arrazoi pixka bat dadukala, aipatzen duen jaunaren Legeko mandamentun hori, lagun urkoaren andrerik ez desiatzeko diguna baita; eta agirian dago, eta guztiz garbi, konde jaunak berea ez den andre hau desiatzen

duela, bere egiazko andrea denok ezagutzen dugun konndesa guztiz noblea baita... zer diozu, erretore jauna?

MOSEN

Hauzi ederra dakartzue, lagunak.

PILOTA

Bai, hauzi ederra, laixter ikusiko baita zeinen zerbitzaria zeran.

MOSEN

Zer esan nahi dezu?

PILOTA

Gure alde daukagula Jaunaren Legea, eta gure kontra egiten badezu, Jainkoaren kontra egingo dezula.

MOSEN

Bai, zuzen zaude, seme, baina barka zazu jendea dator mezetara, eta hauzi hau ez da jendearen haurrean diskutitzekoa. (*Jendea alde guzietatik agertzen da, eta elizan sartzetakoan gure lau lagunei agur egiten diete. Hauek erantzun egiten dute.*) Bai, seme alabak, diplomazia haundia behar da honelako hauzi estu batean. Legea zuen alde dago, baina badakizue indarra bere alde dagoela. Ez da? Gainera ez dago presarik, ez dago batere presarik. Bihar ez zarate ezkonduko noski. Itxoin zazue. Eta gainera nola tratatuko degu hauzi nahastu hori hemen bertan, jendearen aurrean, kalearen erdian?

PILOTA

(*Erretorea beso batetik eutsirik alde batera darama.*) Gauza bat esaten dizut, eta ala da fede nere amak mundura bilutsik bota nindun bezela, kunplitu egingo detala. Marika luze, zure serora beltz horrek berak esan digu gaur ez zerala zu kondearen jauregira meza ematera joango, baizik bera etorriko dala gure artera herriko elizan meza entzutera. Bera jauregitik ateratzen danean, eta gainera elizan sartu baino lehen, gure hauzia planteatu behar

diozu, eta ongi planteatu gainera. Bestela Kalaorra-ko Obispoaren gana joko dugu, eta gutxi baderitzaizu, Erromak-ko Aita Saindu beraren gana.

MOSEN

Eta entzun nahi ez badit?

PILOTA

Entzun nahi ez badizu? Badakizu zer egingo detan. Aldarearen ondoan itxoingo dizut, eta beraren erantzuna eman beharko didazu. Gainera esan behar dizut bere baimendurik edo eskubiderik ez degula erosi nahi. Konprenitzen dezu? Ez degula sosik emango. Berak ez baitu eskubide hori. Arrazoa kenduko diozu, eta ezetz baldin badio, orduan, mezerdian, zuk aldarearen aurrean Jaunaren Gorputz eta Odol Saindua jasotzerakoan, nik kulpitorea igo, eta Jainkoari eta herri guziari salatuko diot kondearen portera.

MOSEN

Txordon, seme maitea, ez zaitez, arren, horrela sutu. Hori ez da noble bat konbatitzeko modua. Indarra eta soldaduak bere alde ditu, eta horrela jokatzeko badezu, kateak aurkituko dituzu kalabozoaren barruan. Diplomazia beharko da, diplomazia eta esku ezkerra. Utzi nere eskuetan zuen asuntua, portu honera eramango baitut.

PILOTA

Bainan oroitu zaitez haren baimena ekartzen ez badidazu mezerdian zer egingo detan.

MOSEN

Bai.... Bai... Holakorik ez dezu egingo. Jaunaren etxea horrela zikintzera etzera atrebituko.

PILOTA

Jainkoa jartzen det testigu.

Gabon-Eder eta Fernando Txistu atzean doazkiolarik jentearekin batera sartzen da elizan.

MOSEN

Zuzen dago, ezin zerbitu litezke bi jaun... baina horra nerea nun datorren. (*Jauregiko ateak zabaldu dira, eta bertatik konde jauna agertuko da, bere ondoan makina bat zerbitzari, gerlari eta ezkurtari daramazkila.*) Gure jauna, ondo errezibitua izan bedi beraren herriko plazan, ondo errezibitua izan bedi gu guztion aitaren etxean. Eta berorren emazte seinora kondesak ez gaitu bere presentziarekin atseginduko?

KONDEA

Zer egiten dezu hemen? Zergatik ez zaude eliz barruan? Dagoeneko, aldarearen aurrean egon behar zenuke, nik pagatu ditudan jantziz jantzirik, mezari hasera emateko nere zai. Eta kondesa andreaz zer interes dezu zuk? Kontuz zer diozun.

MOSEN

Nere jaunak barkatuko dit. Artalde bat ongi gobernatzeko, artzaiak mila kuidado artu behar ditu bere ardiekin. Horregatik atzeratu da gaurko meza. Horregatik pixka batean itxoiteko pazientzia eduki beharko du gure jaunak.

KONDEA

Hea, ongi dago, utzi berriketari eta barrura sar zaitetz, badakizu ta herri zikinarekin nere burua nahastutzea ez zaidala gustatzen.

MOSEN

Gure jaunak beste apur batean itxoiteko mesedea egingo dit. Hauzi bat dakarkit, nere ardi batzuek jarria, berehala juzgatu behar duguna. Oso hauzi delikatua da, eta ez det uste inoren aurrean tratatu ditekeenik. Gainera ahalik eta laisterren bilatu behar diogu atera-bide bat. Horrela ba, gure jaunak zerbitzariak eliz barrura bialtzeko mesedea egiten badit, momentu labur bate-

an bukatuko degu.

KONDEA

Hea, ongi dago. Zuek barrura joan zaitezte. (*Ahalik eta laisterren elizan sartzen dira*) Esan.

MOSEN

Ba... Esan behar dizut... Gaur nere hiru ardi hurbildu zaizkit... oso agindu aldrebes batekin... Jainkoaren izenean mintzatzeko ego-kiera balia ez banezake, ez nintzake ni inola ere hauzi hau gure jaunaren aurrean ateratzera atrebituko.

KONDEA

Alde batera erretolika luze hori, eta bota laburki zer dakarzun.

MOSEN

Gure jaunaren familiak beti izan ditu oso aspalditik bere basailo-en gainean zenbait eskubide. Bat dago bereziki, gure jaunak inoiz gozatu nahi izan ez duena. Bere gizalege haundiarekin, gure jaunak beti galerazi du Eliza Amak bere printzipioen kontra jokatu behar izatea. Bainan esan didatenez, gure jaunak ez omen du aurrerantzean orain artean bezela jokatu.

KONDEA

Ikusten detenez, txistularia eta pelotaria zuregana etorri dira.

MOSEN

Gure jaunak bere adimen zorrotza probatzen du.

KONDEA

Baina zuk ez dirudizu hain adimen zorrotzik daukazunik.

MOSEN

Zer esan nahi digu gure jaunak?

KONDEA

Erretore, begira horrera. Zer da hori?

MOSEN

Gure jaunaren jauregia.

KONDEA

Erantzun doblea eman nahi didazu; bainan jakin behar dezu, bai, Goiko Jaunarena dela, egia, baina Goiko Jaunak hemen dagoen guztia neri eman didala, adimentu haundiz dena gobernatu dezadan. Eliza ere nerea da, eta barrenean dagoen guztia, aldarea, pulpituia, pilareak koloretako leioak, liburuak, jantziak, kaliza eta gainerako guztia. Zuk daramazun bonetea ere nerea da. Eta Elizatik kanpora ere dena da nerea, lurrak eta soroak, etxeak, estalpeak eta mandioak, errota, ola eta perratokia, arbolak beren fruituak, abuztuko uztak, errekaen barreneko arraiak, basoko ehizak eta baita eguardian zeruan argitzen den eguzkia bera ere. Jabetasun hau, propietade hau, ezin diskutitu liteke. Eta nik nere soldaduak ditudan bitartean ez da diskutituko. konprenitzen duzu?

MOSEN

Bai, jauna.

KONDEA

Azken urte pare hauetan etzera nere gogoz portatu. Basailoekin konfiantza haundiak izan dituzu. Eta hau ez da nere gustokoa. Aurrerantzean zerbitzari obedienteagoa ez bazera, badakizu zer egin beharko detan.

MOSEN

Bai, jauna.

KONDEA

Herejatzat juzgatu, galereta bialdu eta Obispoari erretore berri bat eskatu.

MOSEN

Badaki gure jaunak ni baino zerbitzari leialagorik ez dadukala.

KONDEA

Gaizki gobernatu dezu zure artaldea. Esan didate hor perratzaile

bat badagoela. Ez orain izena nola duen gogoratzen. Zu oroitzen ote zera? Nola deritza?

MOSEN

Perrando Txistu.

KONDEA

A, bai, Perrando Txistu. Esan didate Zugarramurdiko akelarretik ateratako txistu bat jotzen duela eta beraren soinu liluragarri eta enkantagarriari eskerrak, herriko jendeak dantzako bizioari emanak daudela.

MOSEN

Bai, jauna?

KONDEA

Gainera entzun det alaba bat baduela sorgin zahar horrek aita bezela sorgin bera ere. Aitaren soinuak dirala medio, maistra tre-bea omen da dantzako arte zikinetan. Dantzatzen ikusi dutenak esan didate Herodias eta Salomeren enkantuekin lilurutzen omen dituela gizon gazteak, eta pekatu izugarrietara eramaten dituela.

MOSEN

Egia esateagatik, nik ez nuen pentsatu inoiz pekatu inor eraman zezakeenik.

KONDEA

Jaun kondearen belarrietara herriko gauza guztiak etortzen dira. Ni hemen gertatzen diran gauza guzien jakinaren gainean egoten naiz. Zuzmurra dabil hortik, Marika Beltza, zure serora, despatxatu egin nahi dezula, beraren lekuan dantzarisa hori jartzeko. Orain artean ipui horrerik ez diot sinisterik eman. Bainan orain hoiene alde ateratzen zera, eta ez dakit zer pentsa ere.

MOSEN

Jauna, ni ez naiz enteratu ere dantzarisa hori bazenik....



KONDEA

Ala sinistu nahi dut. Baina esan didate elizan sartzea ez diezula ukatu.

MOSEN

Ez nekien, jauna, hori gure jaunaren desio zenik.

KONDEA

Ez da nere desioa, zure obligazioa baizik.

MOSEN

Kunplitua izango da.

KONDEA

Beste gauza bat. Esan ere esan didate hortik bizi dela holako itzai morrosko bat, pilota jokoan oso trebea, txistularien alabarekin ezkondu nahi duena. Alegia, asmo horrekin jarraitzen duen bitartean ez da elizan sartuko. Gero, bein zentzutzen denean, pelota-jokoa kristau herriarentzat kaltegarria den ala ez den erabakiko degu.

MOSEN

Bai, jauna.

KONDEA

Jauregitik atera naizenean, hirurak elizan sartzen ikustea iruditu zait. Orain ni ere barrura sartuko naiz, eta nere lekuan jartzen naizen momentuan bertan, mezaren sakrifizioari hasera eman baino lehen, hirurak boteak eta jaurtikiak izan behar dute Jainkoaren etxetik.

MOSEN

Bai, jauna.

KONDEA

Erretore berririk ez detala beharko espero dut. (*Geldi-geldi, eliza-ren barrenean sartzen da.*)

MOSEN

Orain, egitera nijoana ez da nere atseginekoa, baina ala ere egin beharra da; bi mendetako ez baigera, eta inork ez baititu mundo honetan bi bizitz, eta eguzki horren azpian geratzen zaizkidan urte pixarrak ez ditut galera batean arraun lodi bati katez lotuta igaro nahi. (*Geldi-geldi, elizako atera abiatzen da, eta biak zabalik jarririk, bere biriketako indar guztiarekin barreneko ilunpetan deadar egiten du.*) Anatema! Deskomunioa! Zeruko sua eror dedilla etxe sakratu honen gainera, bere azpitik deabruaren lagunak berehala ateratzen ez badira! Deabruaren lagunak! Jainkoaren etsaiak! Anatema! Deskomunioa

*(Bere deadarretan zenbait jende elizatik ateratzen da, guztian buru Marika Beltza, bere serora.)*

MARIKA

Zer gertatzen da, erretore jaun agurgarria? Nor da herejea? Nun dago?

MOSEN

Jaunaren presentzian bertan daude; beren zikinkeri ustelarekin Jaunaren etxea zitaltzen dute. Nere herrian ez al dago kristau leihalik? Hoiek, pizti likits hoiek elizatik ez al ditu inork botako? Edo soldadoei deitzeko premian aurkituko al naiz?

MARIKA

Ez, jauna. Hemen daude gizon zintzo hauek denak, zure aginduak borondatez betetzeko prets.

MOSEN

Prest zaudete?

BATZUK

Bai, agindu. Kanpora herejeak.

## MOSEN

Orduan entzun. (*Eztul egiten du, boza lodiago atera dakion.*)  
Elizama Santak nere ahotik gizon eta kristau desleial bat deskomulgatzen eta bere altzotik botatzen du. Herri honetan Zeruaren legeak eta munduaren legeak dituzten agintari nagusiak elkarrekin eta Jainkoaren Espirituarekin bildurik, halako pena izugarriara juzgatu eta kondenatu dute gizon hori, anatemaren eta deskomunioaren pena izugarria. Haren izena oso ezaguna eta preziatua izan da orain artean hemengo herrian eta aldameneko beste herrietan. Haren izena hau da: Perrando Txistu! Gizonaren itxura jator bat harturik, mundu guzia engainatu du, eta inor ez da konaturatu ere egin noraino heltzen zen bere zitalkeriaren eta zikintasunaren hondar ustela. Zugarramurdiko akelarretik ateratako txistu enkantagarri batekin gure gaztedi sana pozoitu du, eta dantzako bizioa nazkagarria gure gazte jendeak eraman ditu, bai neskak eta bai mutilak. Haren medioz, satan-en erreinu infernutarra gure buruez jabetzeko arrixkuan aurkitu gera. Bainan Jainkoaren ministroak zelatari eta erne egon behar du, eta horrela aurkitu ditu bizio eta pekatua zegozten lekuan bertan, eta sustraietik atera nahi ditu haserre sailduz beterik.

## BATZUK

Kanpora elizatik Luterotarrak. Kanpora elizatik herejeak!  
Kanpora elizatik sorgin madarikatua!

## MOSEN

Itxoin oraindik pixka batean. Hemendik aurrerantzean ez du inork herri honetan txistuaren soinura dantzatuko. Agindu hau hausten dutenak, txistulariaren zigorketa bera mereziko dute. Txistulariari bere deskomunioa ken dakiogun, bere txistua apurtu beharko du, herri guziaren aurrean konfesatu beharko da, eta gainera penitentzia bat jarriko zaio: Txistua jotzen herriz-herriri irabazi dituen

urrezko dukat eta zilarrezko diru guztiak elizari entregatu behar-  
ko dizkio, nik nere zuhurtasun haundiarekin pobreen artean  
limosna ugarietan partu ditzadan.

BATZUK

Bai, ongi esana. Atera dezagun elizatik pekatari zikina!

MOSEN

Baina itxoin, eduki ezazue oraindik pazientzi apur bat, gure tri-  
bunaletik ateratako sententzia guztiak ez baitira oraindik bukatu.

JENDEA

Herejeak kanpora! Sutara eramán ditzagun! Urkamendira!  
Kartzelera!

MOSEN

Mundu guziak ezagutzen du txistulariaren alaba eta nolako abili-  
dade zikinarekin dantzatu duen beti aitaren soinu eta kantuetara.  
Harentzat ere izan bedi gure deskomunioa. Hura ere elizatik kan-  
pora! Hura ere gure alkartasunetik aparte!

JENDEA

Fuera! Aparte! Kanpora! Kartzelera! Sutara!

MOSEN

Eta askok ez dakizue, bainan bada ere oraindik gauza grabeago  
bat. Dantzarisa horrek gure arteko mutil prestu bat liluratu du.  
Txordon Pilota etsai beraren sareetan erori da. Mendiak ikara  
bitez! Lurra ebaki bedi! Elizako pilariak amil bitez! Etxe guziak  
lurrarekin berdindu bitez! Sorgin gaztearekin ezkondu nahi du,  
elizaren barruan, aldarearen aurrean, pilarearen ondoan, eskuak  
liburuaren gainean! Hainbeste bidegakeri, hainbeste okerbide eta  
lotsagabekeri ametituko al-ditugu? Herria trankil eta lasai geratu-  
ko al da? Gure artean kristaurik ez ote dago? Guztiok barrura!  
Atera ditzagun jaunaren etxetik! Defendi ditzagun egitazko fedea

eta legea! Atozte nerekin, kristauak, Satan doakabearen obra bildurgarria desegitera.

*Baserritarrak oihu, deadar eta karraxika daudela, denak elizan sartzen dira, apaizaren onduan. Momentu batazutan utsik gelditzen da agertokia. Geroago, balantzaka eta arrastaka, elizatik ateratzen da Txordon Pilota, katapulta baten jaurtikia bezela, eta jauregiko paretaren kontra erortzen da lurrera. Apur bat geroago, Txordon-en moduan ateratzen da Gabon-Eder, eta Pilotariaren gainera erortzen da. Barruan zarata haundia, golpe otsa, karraxiak. Dena ixiltzen da, eta lau gizonak, bik hanketatik eta beste bik besoetatik eusten diotelarik, gure Perrando Txistu ateratzen dute, eta elizako atariaren aurrean bertan pausatzen dute golpean lurraren gainean. Barrura sarturik, atea ixten dituzte. Ixilik geratuko da dena momentu batzutan. Gero, bat batean, atea zabalduko da berriz ere, eta barrendik txistua botako dute, eta eger-tokiaren erdira eroriko da.*

*Lurpetik ostiko bat eman balio teke bezela, salto batean altxatzen da Txordon Pilota.)*

PILOTA

Nun dago justizia? Nola okertu da hain tankera desegokian zuzenbidea? Zer dira gaur eguneko apaizak? Aberetsen morroiak? Nobleen zerbitzariak?

EDER

*(Lurretik)* Oraindik badegu denbora, Txordon. Ihes egin dezagun,

PILOTA

Ihes?

TXISTU

Zaudete ixilik, aurrak.

PILOTA

Ixilik?

TXISTU

Bai. Ez al dezue ikusten zer irabazi degun gure jokabidearekin? Eta ez al dakizue zer esan nahi duen elizatik botatze honek? Infernuko atean aurkitzen gerala. Ez al zerate konturatzen? Elizatik kanpora hiltzen dena infernura dijoa, holakoak ez du salbaziorik!

PILOTA

Eta zeruko atearen giltzak nor ditu? Pedro deunak edo Jaun Garcia, Mujikako kondeak?

TXISTU

Elizak ditu, eta etzait inporta nork maniatzen ditun, sakramenturik gabe nola salbatuko gera? Nola barkatuko zaizkigu gure zorrak eta pekatuak?

EDER

Horrek ez du inporta, aita. Lurrean bizi gera, eta etorkizunaren berririk ez dakigu.

TXISTU

Etorkizunaren berririk ez daukagula? Nik bai, badakit zerk itxoi-ten didan. Betirako su gorriak. Satan beltzaren laguntza azkengabeak. Eta ba al dakizu zer pentsatzen detan? Kristau batentzat, animaren salbazioak duela inportantzirik haundiena; eta nik zuek eta neregatik begiratu behar dut. Apaizaren esanetara makurtuko naiz. Txistua puskatuko dut, eta berak jarritako penitentzia kumplituko dut. Nere diru guztia behartsuen artean zabalduko dut. Honela nere pekatuak barkatuak izango zaizkit. (*Lurrean belau-nikatzen da, elizara begira.*)

PILOTA

Eta gure ezkontza? Eta gure maitasuna? Esan, zer izango da gure

familiatz? Gozatutako lore bat entregatuko al zait nere esposarioan? Erantzun Txistu, erantzun! (*Baina Txistu-k ez du entzuten, ez du erantzuten, otoiz egiten du.*) Zer gertatzen zaizu? Orain errendituko al zera? Gure burrukaldia hasi behar degun orduan? Erantzun! (*Txistuk otoitz egiten du.*) Erantzun!!

EDER

Zaude ixilik, maite. Boz miragarri batzuek entzuten ditut. Aingeruak dira, zerutik lurrera gu salbatzera datozenak.

PILOTA

Baina erotu egin al zera?

EDER

Dantzara deitzen didate. Baina txisturik gabe ez dakit dantzan egiten.

PILOTA

Perrando, begira zure alabari zer gertatzen zaion. (*Txistuk otoitz egiten du.*) Eder, zer diozu? Zure senera bihurtu zaite! (*Eder zutik dago, eta tankera estraino bat hartu du, amets liluragarri batek hartu balu bezela.*) Baina zer da hau? Aita eta alaba, biak deabruak harrapatuak?

EDER

(*Geldi-geldi*) Nik txisturik gabe ez dakit dantza egiten. Nere aitak jo dezala txistua, aingeruekin batera zerura dantzan abiatu nadin. Aitak txistua jo dezala. (*Eta bere gelditasun estraino haretan ixilik gelditzen da.*)

PILOTA

(*Txistua hartzen du lurretik.*) Lurraren gainean edo zeruaren barrenean justizia apur bat inun baldin badago (*Txistua zerura astintzen du*). Goiko Jaunari esijitzen diot, ez eskatu, agindu eta mandatu egiten diot, nere Gabon-Eder maiteak zorion izpi bat izan dezan, txistu honek berez jo dezala, bildurrak eraginda bere alabaren mina arindu nahi ez duen aita bat munduan dagoen ezke-

ro. Ez eskatu, agindu egiten dut! Txistuak berez jo dezala!.

*Eta poliki-poliki, txistua bakarrik jotzen hasten da. Erreberentzia lurreraino egiten du Txordon Pilota-k, eta begiramendu haundiarekin txistua lurrean uzten du. Txistuaren soinuan Gabon-Eder dantzan hasten da. Perrando Txistu ez da mugitzen: otoitz egiten du. Elizatik jendea ateratzen da. Ikusten da nola Gabon-eder kale ixkinatik dantzan dijoan, eta jira eta bueltaka airean altxatzen den, hodei artean ezkutatzeko.*

MARIKA

Ikusten duzue zuek, jente onak nere begiak ikusten dutena? Gabon-Eder inork jotzen ez duen txistu baten soinuetara lurretik aidean altxatzen da, eta hodei artean dantzan, jira eta bueltaka, aigeruzko zeruetan barrena ezkututzen da. Hori miraria da!

MUNDU GUZTIAK

Miraria!!! —

KONDEA

Ez, hori deabrukeria da!

HERRIA

Miraria!

MOSEN

Infernukeria!

*Mundu guztia karraxika. Eta guztion gainetik, Txordon Pilota-ren boza entzuten da.*

PILOTA

Hor dezue justizia!

HERRIA

Jainkoaren miraria!



## AGINTARIAK

Deabrukeria!

## PILOTA

Justizia txistulari bihurtu da! ..

## TELOIA

## BIGARREN ZATIA

*Milagrua gertatu zenetik ilabete batzuek igaro dira. Lehen zatian ikusi genuen leku haretan bertan gaude. Kadira altu baten gainean ego-nik, palazioa aurkitzen da. Beraren gorputzera bilduko dira kolore guz-tietako farolen argiak.*

*Haren onduan, beste kadira ttipiagoa batean jarririk, Joane Doktore kausituko dugu, apainki jantzirik.*

*Haien inguruan, grupotan banaturik, komedia honetako pertso-naje guztiak aurkituko dira; grupo bakoitzak kolore bateko farola baten argitara jarria. Eta Arlote mintzatzen da.*

## ARLOTE

Doktore? Zu al zera Doktore? Joane Doktore famatua?

## DOKTORE

Jende zatarra, zerritokian jaioa. Ixildu zaitez.

## ARLOTE

Baina nun ikasi zenuen zuk medikutza, doktore izateko?

## DOKTORE

Nere doktoretza ez dator gaixoak hil-aratzitzeagatik!

## ARLOTE

Ze Unibertsidadetan eman zizuten titulo hori?

DOKTORE

Nere aitak eman zidan.

ARLOTE

Aitak emana?

DOKTORE

Eta herri honetan ostatu bat nun aurkitu liteke?

ARLOTE

Ai, laguna! Herri hau ez da gaur egunean denbora batean izandu zen bezain inportantea. Gaur gaurkoz, herri apartatu eta ahaztua da.

DOKTORE

Milagroak jende asko ekarri al du?

ARLOTE

Euskal Herri guztitik milaka etorri dira. Azkeneko egun pare hauetan ailegatu diran kastellano eta Aragoitarrak ere ez dira gutxi izandu. Akitaniatik eta Frantzi aldetik ere batzuen batzuk azaldu dira, Santiago bidetik etorriak.

DOKTORE

Eta zuk nola aurkitu zeneun lekua?

ARLOTE

Aita San Jose eta Maria Birjinaren moduan, ganadu portale batean akomodatu naiz.

DOKTORE

Zurekin eramango al nauzu?

ARLOTE

Lekua badago, baina ez dakit zure arropa eder eta dotore hoiek ez zikintzeko nola konponduko zeran. Lastoa ugari dago, bainan han bertan azienda oso garbia irudituko zaizu haiekin konparaturik. Bart arratsean auntz bat aurkitu nuen estalpe haretan.

DOKTORE

Eta seguro al zaude lo egiteko gelarik ez detala inun aurkituko?

ARLOTE

Bila zazu nunbaite. Alperrrik aspertuko zera.

DOKTORE

Orduan zure adiskidea izatea beste erremediorik etzait gelditzen.

ARLOTE

Mundu guzia izan da orain artean nere adiskidea.

DOKTORE

Zuk daramazun traza horrekin gauza zaila iruditzen zait.

ARLOTE

Kardenalak eta Printzeak ere izan ditut adiskide.

DOKTORE

Adarra jo nahi al didazu?

ARLOTE

Adarra jo? Nun dabil, ba, zure andrea?

DOKTORE

Ez det andrerik. Soltero nago.

ARLOTE

Eta deskuido batean noizbait harrapatzen bazaituzte, zer egin behar dezu?

DOKTORE

Deskuido batean harrapatzen banaute, ezkondu egingo naiz; baina ni aldarera eramango nauen amaren alabarik ez da mundu honetan jaio.

ARLOTE

Oso bide txarra daramazu, laguna.

DOKTORE

Bide txarra?

## ARLOTE

Bai, oso bide txarra. Gizonak garaiz ezkondu behar du, sasoiz dagoen bitartean. Orain, gazte zeran bitartean, oso ederki ibiliko zera neskamearen oihetik dukesaren oihera. Dibertsio polit hoiek oso ederki etortzen zaizkio gizonaren gorputzari; baina gazte den artean bakarrik. Gero gizona, gizon errukagarria, urteen buruan zahartu egiten da. Eta gauza hau gizon guztiei gertatzen zaie, bai pobre ta bai aberetsei. Ez al dakizu Luzaideko bertsolariak kantatu duena?

Kantari hasten da:

*Ene espirituan  
Ba zen zenbait bertsu  
Oraino den guzia  
Ez zeraut ustu  
Zertaz dudan solasa  
Emazue kasu  
Esplikatuko baitut  
Ahal bezain justu  
Zahar baina prestu  
Odola zait hoztu  
Bihotza ere lastu  
Gorputza hertsatu  
Oraino gazte banitz  
Banuke gustu.*

## DOKTORE

baina gizona, bertso hori kantatuko duen bertsolaria ez da Luzaiden jaioko. Bidarrainen jaioko da.

## ARLOTE

Bordel bertsolaria Bidarrain jaioko dela? Gizona, zu burutik egin

da zaude. Bordel nafarroa zaharreko Luzaiden jaioko da.

DOKTORE

Bai, badakit Bordel Luzaiden jaioko dela. Baina bertso hori kantatuko duen bertsolaria ez da Bordel izango. Otsalde izango da.

ARLOTE

Otsalde? Otsaldek bertso hori kantatu? Otsalde ez da bertsolaria izango. Otsalde bai al dakizu zer izango den? Poto ez besterik egingo duen bertsogile aldrebes bat. Bainan nork entzun du inoiz Frantzi aldean bertsolaririk dagoenik? Egiazko bertsolariak Nafarroan jaioko dira: Lasarte, Narbarte... eta beste mila.

DOKTORE

Bainan zer diozu, asta kirten horrek? Naparroan bertsolarien denporan ez da euskaldunik izango. Zenbait lekutan gordeko da euskera, baina Gipuzkoa eta lapurdiko inguruko herrietan bakarrik. Gainerakoan, Iruña inguru guztian erruz galduko da euskera, eta bertan ez da bertsolaririk jaioko, eta bertako jendeak Aragoi aldeko jota piperrak kantatzen besterik ez dute jakingo. Bai, lagun; hemendik laurehun urtera, Naparroa guztiz erderatua aurkituko da.

ARLOTE

Baina zuk nola dakizu etorkizunaren berri?

DOKTORE

Izena nundik datorkidala uste duzu, nere jakituria haunditik baizik?

ARLOTE

Bai; Joane Doktore haundia.

DOKTORE

Nere aita Elizako Doktore haundi bat zen

ARLOTE

Elizako doktore haundi baten semea?

DOKTORE

Bai, Italian jaioa.

ARLOTE

Nik gizon bat ezagutzen det, Elizako doktore baten semea hura ere; baino hura Ingalaterran jaioa da.

DOKTORE

Zure ezagun bat? Nola ezagutzen dezu zuk herriko seme bilau horrek, horrelako jende printzipala?

ARLOTE

Lehen ere esan dizut.

DOKTORE

Kardenalak ta printzeak zure lagun dirala?

ARLOTE

Bai jauna, oso adiskide haundiak.

DOKTORE

Eta nundik ezagutzen dezu Elizako doktore horren seme hori?

ARLOTE

Jaiotzatik. Elkarrekin jaio ginan. Gizon hura ni naiz.

DOKTORE

Gauza bakana da hori.

ARLOTE

Bai, benetan estrainua

DOKTORE

Sekulakoa.

ARLOTE

Oso gutxitan ikusitakoa.

DOKTORE

Nere aita Ingalaterran bizi izandu zen luzaro, eta Ingalaterran jaio zinan...

ARLOTE

Nere aita italianoa zen, eta zu Italian jaio zinan....

DOKTORE

Gainera zuk etorkizunaren liburua irakurtzen badakizu. Eta birtute hori Arlote jakintsu haundiaren semeeri bakarrik eman zaie....

ARLOTE

Nere izena horrela da.

DOKTORE

Nola?

ARLOTE

Petri Arlote.

DOKTORE

Eta nerea berriz

ARLOTE

Joane Doktore..

DOKTORE

Orduan gu biok....

ARLOTE

Anaiak gera!

DOKTORE

Elizako doktore Arlote Haundiaren....

ARLOTE

Semeak!

DOKTORE eta ARLOTE

Anaia!!! (*Besarkatzen dira*)

ARLOTE

(*Kantari*)

*Doktore eta Arlote dira*

*Jakin gaberik anaiak*

*Biok ekarri gaitu mundura*

*Italiako galaiak.*

*Orain artean ez gera izan  
oso profeta alaiak.  
Aurrerantzean behar ditugu  
Aurkitu bide zelaiak.*

DOKTORE

*(Kantuz)*

*Hemetxe gaude Petri Arlote  
Eta Joane Doktore.  
Gure aita zen Italiako  
Gizon on bat eta noble.  
Profeta gera gure denboran  
Eta ez bagina hobe.  
Kontu honekin dirua ateraz  
Ez gera biziko pobre.*

ARLOTE

Zer esan nahi dezu?

DOKTORE

Milagroetako herrira iritxi gerala esan nahi dut.

ARLOTE

Bai, milagro baten usaira etorri naiz ni ere.

DOKTORE

Eta zer gertatuko da hemen bi profeta jendearen etorkizuneko  
bizitza igarritzen hasten badira.

ARLOTE

Mundu guztiak sinistuko duela.

DOKTORE

Eta gainera ezkutu eta dukat ederrak pagatuko dituztela.

ARLOTE

Eta diru hiek gure sakelera etorriko dirala erdi-bana



DOKTORE

Bai, negozio biribila presentatu zaigu.

ARLOTE

Arront aberastuko gera.

DOKTORE

Gure pobretasuna behin eta betirako igesi joango da.

ARLOTE

Hemendik aurrerantzean zaldun nobleak izango gera.

DOKTORE

Santiago-ko ordenekoak izendatuko gaituzte.

ARLOTE

Eta ez dugu ostatu pobretik ostatu pobrera ibili beharrik izango.

DOKTORE

Ez, gizona. Baina ahalik eta laisterren hasi gaitezten.

ARLOTE

Zer egingo degu?

DOKTORE

Hortik dabilen jendeari dei egingo diogu. Zu mintza.

ARLOTE

Bai orixe. (*Hasten da.*) Mundu guztiak aditu beza! Urbil bedi mundu guztia gure esanetara. Hemen bi profeta daude. Italiatik etorri berriak. Etorkizuna axertatzen da. Ez beza inork zalantzarik eduki. Guk igarriko degun guztia pausorik pauso eta punturik puntu erremediorik gabe konplituko da. (*Argiak, jendea. Sei grupok: Gorria. Urdina. Oria. Berdea. Anila. Naranja. Kondea eta gerlariak. Marika Luze eta Perrando Txistu. Txordon Pilota eta mugimentuko mutilak. Inkisidore jaunaren zerbitzari eta kalonjeak. Kondesa andrea. Apaiza eta haren serorak.*) Mundu guztiak entzu beza! Mundu guztia urbil bedi gure esanetara! Hemen igertzen da munduaren ardatzak nola jirutzen duen, nundik eta nola

dabilen! Hemen estudiantzen da izarretako geometria, zuruaren alde batetik bestera nola mugitzen diran, eta pertsona bakoitzaren etorkizuna nola agertzen duten! Urbil zaitezte! Etor guregana! Hemen egi-egitazko bi profeta aurkituko dituzue: Petri Arlote eta Joane Doktore, biak Italiatik etorri berriak. Bertako gizon jakint-suekin ikasi genituen filosofia eta teologia. Eta gero Elizako Doktore famatuekin gure jakituria franko ugaritu zen! Elizako Doktoreak asko enkarinatu ziran gurekin, eta haien artean bat batez ere, guztietan famatuena eta jakintsuena, libururik lodienak eskribitu zituena, gure aita bera! Gure ama gaixoak munduko bi toki diferentetean ekarri gintuen mundura, eta horregatik bizi izandu gera gaur arte elkarrengandik aparte. Bainan gaur atzenik alkar topatu degu, eta hauxen bai dela milagroa, Gabon Eder-arena baino askotaz milagro haundiagoa. Hurbil zaitezte! Aditu zazue! Entzun itzazue gure esanak! Hemen etorkizuna igarritzen da! Italiatik Orientera joan ginan, eta bertako Errege Mago modernoen jakituria ikasi genuen! Adibidez: txori baten tripak begiratu, eta bertan ikusitakoarekin urteen buruan gertatuko diran gauza guztien arrastoak nola bilatu. Kartak nahastu, eta zer ordenetan ateratzen diran kontua edukirik oraindik gertatu ez diran gauzen kontu zehatz eta garbia nola eman. Urbil zaitezte! Gure aldamenara etorri! Orienteko jakituriak hartu ondoren, Afrikako beltzen artera joan ginan, eta bertako sorgin beltz osagileen jakituria guztia gureganatu genuen. Bertako lurrak utzi eta India herrietako Inperio zaharretara hartu genuen abiada. Gure begiok mundu guztian urratu dira gure jakituria nagusiaren azpian. Hemen bi profeta daude.

Neskatila

Zure senarra nolakoa izango den jakin nahi al dezu? Petri Arlotek

esango dizu.

Agure

Heriotzak konfesatua harrapatuko zaitin edo ez jakin nahi al dezu? Joane Doktorek igarriko dizu.

Gizona

Zure andrearen maitalearen izena jakin nahi al dezu? Petri Arlotek jakinaren gainean jarriko zaitu.

Andrea

Espero dezun haurra neska edo mutila izango den aldez aurretik jakin nahi al dezu? Joane Doktorek esango dizu.

Mutila

Datorren igandean zure xarmanta nun zai egongo zaizun igarri nahi al dezu? Petri Arlotek aditzera emango dizu.

Jaun andreak

Hona hemen bi egitazko bi profeta: Petri Arlote eta Joane Doktore. Matatias eta Nataniel gure aldean ikasle pare umil bat besterik etziren izandu. Jeremias eta Isaias, artzai ezjakin batzuek. Eta jaun andreak, zuen etorkizunaren berri jakitea bots dukat bes terik etzaizue kostako. Nun merkeago!

*Momentu batzutan ilun aldia. Argia berriz ere pixtutzen danean, agertokia betikoa izango da; ezkerrean eliza eta eskubian jauregia. Baina ikuslearen aurrean anakronismo haundi bat agertuko da. Plazaren erdi-erdian bulego-mahai moderno bat aurkitzen da. Haren alboetan kartel haundi pare bat; ezkerrekoak honela dio: Profetak: ETORKIZUNA IGARRITZEN DA. Eta eskubikoan: PROFEZIAREN PREZIOA: BOST-na DUKAT Mahaiaren onduan Arlote eta Doktore daude.*

*Argi anila. Andre Kondesa sartzan da, bakarrik.*

KONDESA

Jaunak, andre bati bere estuasun larri batean lagunduko al diozue?

ARLOTE

Zure zerbitzarien aurrean aurkitzen zera.

KONDESA

Inork ikusi gabe atera naiz jauregitik. Jaun Kondea zuek ikustera atera naizela konturatuko balitz, komentu batean monja sartuko ninduke, edo gaztelu batean preso.

ARLOTE

Gure ixiltasuna kanposantuetan aurkitu litekeenaren bezelakoa izango da.

KONDESA

Sekretua gordeko didazue? Zaldunaren itza ematen al didazue? Jesukristoren izenean zin egingo al zenuteke?

ARLOTE eta DOKTORE

Bai.

KONDESA

Ni emakume bat besterik ez naiz.

ARLOTE

Eta maitagarria.

KONDESA

Eskerrik asko, baina egia diot. Ni urrezko seaska batean jaio nintzan, eta beti esan didate nere jaiotzak obligazio haundi batzuek ekarri zizkidala. Obligazio haundiak eta eskubiderik batere ez.

ARLOTE

Mintza zaitte, faborez, oso pozik entzuten baizaitugu.

KONDESA

Komentu batean edukatu ninduten, eta Konde Jaunarekin ezkontzeko bakarrik handik atera ninduten eta kondearekin izan detan bizimodua ez da oso atsegina izan. Trankila bai; beti jauregian

sartua, dozenaka zerbitzarikin, gelatik jantokira eta jantokitik gelara.

DOKTORE

Bestelako tratamentua merezi zuen horrelako andre eder batek.

KONDESA

Ez nuen inoiz Konde Jauna maitatu. Harekin jarri zitzaidan obligazioa beti kunplitu izan dut, baina nere sakrifizioen ordainez, Zeruko Jaunak ez dit ama izatera irixteko grazia eskeini. Haurrik izan baldin banu, bestelakoa izango zen nere bizimodua; baina antzu sortu nintzan mundura, eta seme-alabarik ez dut izan. Horrela ba, nere bizitza eremu lehoer baten antzekoa izan da.

DOKTORE

Andre gaixoa.

KONDESA

Gero Kondea gerrara joan zen. Moroen kontra burukatu zuen, Kastilla eta Nafarroako erregeekin batera. Eta ez dakizue nolako irainarekin afrentatu ninduen... Etzuen uste izan haren etorrera garbi gordeko nuenik, eta atso zahar baten bijilantzia jarri zidan, beste gizon batekin amorerik izan ez nezan.....

ARLOTE

Akerraren adarrak merezi zituan madarikatuak.

KONDESA

Nik ez nion orduan inola ere adarrik jarriko baina bera etzen nitaz fio izan. Eta ordurarte maitasunik izan ez banion, handik aurrera gizonari behar zaion errespetoa ere galdu egin nion. Eta orduan egin zidan iraina egunen batean bengatzeko desioa sortu zitzaidan bihotzean....

ARLOTE

Hemen gaude gu, zuri laguntzeko prets.

KONDESA

Baina oraingo hau nere dignidadeak ezin soportatu dezake.

DOKTORE

Zer egin dizu, ba?

KONDESA

Orain artean leihaltasuna beti gorde izandu dit. Ez du beste andre-rik ezagutu. Behar bada eta seguru aski, andreak dirua kostatzen dutelako; edo ta, bestela, haiekin ez gozatzetik bere kutxara dirua sartzen zelako.

ARLOTE

Eta orain?

KONDESA

Orain zahartu egin da. Eta zahartzaroan, zeken guztiak ero. Neska gazte baten desioa pixtu zaio erraietan. Eta desio zikin horretatik mila okerbide atera dira: Txistulari zahar bat erretorearen seroraz enamoratu da, eta berarekin batera Ebanjelio berri bat predikatu nahi du munduan zehar. Erretoreak berriz, inun aurkitzen ez dituen sorginak erre nahi ditu, eta Logroñoko Inkisidore nagusiarri dei egin dio, eta hau bidean omen dator.

ARLOTE

Nola dakizu Inkisidorea bidean dagoela?

KONDESA

Nere senarrak esan zidan, eta gainera herri guztiak dakien gauza da.

ARLOTE

Eta Inkisidorea bidean dagoelarik, nola atrebitzen zera bi profeta-rengana etortzera? Ez al dakizu hura etortzean zure kontra saiaturiko dela?

KONDESA

Ez dit inporta. Gerokoak gero. Orain bestek arduratzen nau.

Pilotariaren suerte trixteak. Pelotaria eta Txistulariaren alaba elkarrekin ezkontzekoak ziran. Eta nere senarrak, bere eskubideaz baliatuz, neskatxaren gorputza gozatu nahi izan zuan. Baina orain bestela gertatu da. Eta orain gertatukoak hil arte negarretan egotea merezi du. Neska mundu honetatik itzali egin da....

ARLOTE

Milagroa omen da.

KONDESA

Erretoreak deabrukeria dela dio. Horregatik deitu dio Inkisidoreari. Milagro dela diona, Erretorearen serora zaharra da, orain ebanjelio berria predikatzen dabilena. Baina ba daude gertakizun honetan mundutik kanpora ezer ikusten ez dutenak. Hoietakoa bat nere senarra da. Bera seguru dago Gabon Eder bere senargaiak nunbait gorderik dadukala, honela kondearen eskubideari amurrik ez emateko. Txordon Pilota ere iritzi berdinekoa da. Hau seguru dago Kondeak Gabon Eder berarekin nunbaitera eramana duela, horrela bere gorputza nahi haina gozatzeko. Baina Gabon Eder ez dago mundu honetan.

ARLOTE

Orduan beste munduko indarrak parte hartu zuten hura zerura edo infernura eramateko.

KONDESA

Nik ez dakit hori, baina seguru nago Txordon Pilota engainu batean dagoela, nere senarrak ez baizuan beraren andregai harrapatu. Eta seguru nago, ez dakit zergatik, baina seguru nago Txordon Pilota-k ere ez duala ezer ikustekorik Gabon Eder-en izkutatzearekin. Bestela ez litzake nere gizonaren soldaduen kontra mendirik mendi burrukan ibiliko, mutil euskaldun batzuek berakin daramazkiela.

DOKTORE

Ederki. Diozun guztia oso ederki dago, baina esaiguzu honera zerk zakarzkien.

KONDESA

Txordon Pilota-ren desgraziak. Bera da gizon aproposa, bera! Belaun eskubidearen tratua nere senarrarekin diskutitzera jauregi-ra etorri zanean, berarekin ikustaldi bat izandu zuan. Gero kortinen atzetik biok esandako guztia entzun nuen, eta egia diot, bera da nere ametsetako gizon desiatua. Dontzeila denbora komentuan igaro nuanean, horrelako gizon batekin gauero amets egiten nuan.... Gero kondea tokatu zitzaidan, eta nere zoritxarra horrela hasi zen.

ARLOTE

Eta zer nahi dezu?

KONDESA

Hea zuek Txordon Pilota nun topa dezaketan esaten didazuen. Hura kontsolatu nahi det. Eta batez ere gerra zaletasuna kendu nahi diot. Ez dut nahi bera mendirik mendi gerran ibili dedin. Alperrik izango da. Gabon Eder ez da horregatik beste mundutik berriz etorriko. Bere maitasuna galdu du, eta nire kontsolamentua eskeini nahi diot.

DOKTORE

Informe hori ematea gure eskuetan dago.

KONDESA

Bai? Informe hori ematen badidazue, munduko mesederik haundiena egingo didazue.

ARLOTE

Bai al dakizu Aitzpitarteko mendia nun dagoen?

KONDESA

Bai, gutxi gora-behera.



ARLOTE

Bere egalean errota bat dago.

KONDĒSA

Morroi batek eramango nau hara.

ARLOTE

Bihar goizean eraman zaitzala. Goizeko zazpiretan Txordon Pilota han aurkituko dezu.

KONDESA

Mila esker. Ba noa, kanpoan egon naizela jauregian inor konturatu dedin baino lehen. Zenbat zor dizuet profeziagatik?

DOKTORE

Andreai ez diogu kobratzen.

KONDESA

Mila esker, eta agur. Eta badakizue. Itza eman didazue. Zin egin didazue. Dena sekretua izango da?

ARLOTE

Dena sekretua izango da.

DOKTORE

Ilobietako ahotsa izango da gurea.

*Badoa Kondesa eta ilun aldia. Argi berdea. Hiru mutil sartzen dira. Gazteak, pizkorrak, indartsuak.*

1º MUTILA

Geldi hor zuek, ez zaitezte munitu!

ARLOTE

Zer gertatzen da!

DOKTORE

Nortzuk zerate zuek?

2º MUTILA

Zuek profetak al zarete?

DOKTORE

Bai, eta zuek? Zer nahi dezue?

3º MUTILA

Gu nor geran zuri etzaizu inporta.

1º MUTILA

Libertadiaren burrukalariak gera gu. Euskalerrria konde zikoitz eta apaiz kobarde guztien uztarritik libratuko degu.

ARLOTE

Libratu zazue ba. Baina beren tratua azkar egin nahi duten merkatarieri bakean utzi.

3º MUTILA

Gurekin ez dago pakerik, adiskide.

2º MUTILA

Alde edo kontra. Gure adiskideak ez bazerate, gure etsaiak izanngo zerate. Herri honetan ez dago pakerik.

1º MUTILA

Bai, ala da. Zuen laguntza behar dugu. Ematen ez badiguzue, ba dakizue zuen eztarria zerekin topatuko den. (*Ezpata erakusten du.*)

3º MUTILA

Ezpata zorrotz batekin.

ARLOTE

Baina guk, tratulari pobre hauek, zer egin dezakegu hain soldadu azkar eta korajetsu batzuen alde?

1º MUTILA

Zuek profezi saltzaileak zerate.

DOKTORE

Bai, horretarako ereki degu gure denda. Gure profezia ondo

pagatzen badezue...

ARLOTE

Etorkizuna igarriko dizuegu.

1º MUTILA

Zuen bizitza maite al duzue?

DOKTORE

Jainkoa bezela, munduko gauza guztien gainetik.

2º MUTILA

Gaur gezurra esaten baldin badezue, bihar ez da zuentzat eskaporik egongo.

3º MUTILA

Kanposantuko ilobi bat izango dezue bihar arratseko zuen ohia.

2º MUTILA

Edo ta bestela, gurekin egon zeratela inori aitortzen badiozute, badakizue zer izango den zuen biharko bazkari gozoa.

1º MUTILA

Gurutzearen azpiko lur mokadu legor bat!

ARLOTE

Bost-na dukat pagatzen badituzue, gure lehialtasunarekin kontazenezakete.

1º MUTILA

Ez da pagamenturik izango

2º MUTILA

Bizitza barkatzen dizuegu, eta gainera dirua kobratu nahi dezue?

3º MUTILA

Zer aukeratzen dezue? Gure adiskidetasuna edo gure etsaitasuna? Aguro! Azkar! Alperrik galtzeko denborarik ez daukagu! Aukeratu!.

ARLOTE

Ez dezue, alajainkoa, aukera haundirik uzten.

## DOKTORE

Gauzak presentatu dituzuen bezela presentatu ezkerro ez dirudi guretzat zuen adiskidetasuna beste erremediorik dagoenik.

### 1º MUTILA

Bain ahaztu gabe, gero. Herri gaztea armetan mendira atera da. Zuen promesa hausten baduzue, bihar probintziako mutil gazteak zuen kontra etorriko dira.

## ARLOTE

Zer nahi duzue?

### 1º MUTILA

Beste batek esango dizu!

### 3º MUTILA

Txordon! Ator

*Txordon agertzen da.*

## TXORDON

Konforme al daude?

### 2º MUTILA

Ala dirudi.

## TXORDON

Orduan zuek, Joane Doktore eta Petri Arlote profetak, entzun. Kondearen kontra rebelatu da herria. Eta gerra honetako lehenengo pausoa orain eman behar degu. Kondeak nere andregaia preso daduka, eta neska hori erreskatatu behar degu. Ez dizuet nun dagoen galdetuko. Nun dagoen bagenek ere berdín izango litza-ke, kondearen armada gure baino indartsuagoa baita. Beste gauza bat behar degu zuengatik.

ARLOTE

Bai? Eta zein da?

TXORDON

Guk ere norbait hartu nahi degu preso.

DOKTORE

Zertarako?

TXORDON

Nere andregaiaren truke kanbiatzeko.

ARLOTE

Eta nor da harrapatu nahi dezuten hori?

TXORDON

Kondeari asko inporta zaion norbait. Beraren andrea bera, beraren emaztea! Kondesa andrea behar degu!!

DOKTORE

Arrote esaiozu Kondesa andrea bihar goizean nun harrapatu lezaken, eta pakean joan ditezela.

ARLOTE

Bai, hobe izango da.

TXORDON

Azkar mintza zaitte, komeni bazaizue. Komeni ez-bazaizue, kupidarik gabe hilko zaituztet biok.

ARLOTE

Bihar, Aitzpitarteko errotan. Goizeko zazpiretan. Ez dakigu nola edo zergatik han egongo dan. Seguru asko maitale baten zai. Seguru asko, zure zai... Maite omen zaitu.

TXORDON

Zu erotu egin zera.

ARLOTE

Horrela dio etorkizunaren bozak! Maite zaitu. Kontsolatu egin

nahi zaitu. Eta zuk ere ordu betean maitatu egin behar dezu. Ordu betean gutxienez. Bestela ez dezu zure Gabon Eder atzera zure besoartean edukiko. Hori da etorkizunaren bozak diona. Zure zoriona eta bentura ona traizio baten gainean finkatuko dira.

#### TXORDON

Ez dakit egia diozun. Ez dakit ez ote nauzun engainatu nahi. Erotu egin zerala uste dut. Baina kaso egingo dizut. Agur. (*Badoa.*)

#### 1º MUTILA

Gure presentzia inori salatzen badiozue, bihar goizean kanposantuan esnatuko zerate. Agur. (*Badoa.*)

#### 2º MUTILA

Gure asmoak jendeari aitortzen ba dizkiozue, etziko eguzkiak etzaitue argituko. (*Badoa.*)

#### 3º MUTILA

Gezurra esan badezue, zuen bizitza hemen bukatuko da. (*Badoa.*)

*Arlotek eta Doktorek alkarri irribarra egiten doite. Ilun aldia. Argi gorria. Juan Garzia, Mujikako kondea, eta bere zerbitzariak sartzen dira.*

#### KONDEA

Nere etorkizuna igarri behar didazue.

#### DOKTORE

Egunen batean hil egingo zera. Eta badakizu aintzinako esaera zaharrak zer dion: "Gilen, bihar hilen, etzi ehortziren eta etzidamu eternidade guziko ahantziren". Hortik ez dago eskaporik.

#### KONDEA

Bai, bai. Hori badakit. Eta tranze gogor hori noiz gertatuko den jakitea etzait inporta.

ARLOTE

Zer jakin nahi dezu, ba?

KONDEA

Ez dakit jakingo dezun. Baina herri honetan egintza estraino xamar batzuek suertatu dira azken bolara honetan.

DOKTORE

Zerbait entzun dugu.

KONDEA

Bai. Agirian dago, eta beleak sarraskiaren usaira bezela abiatu zerate biok honera. Erreka nahastuetako arrantzale traza hartzen dizuet.

ARLOTE

Jauna, guk gure negozio prestua zabaldu besterik ez degu egin. Gure dendara sartu bazera, etzaitetz insultatzera sartu. Bestela badakizu kaleko atea nun dagoen eta bertatik joan zinezke.

KONDEA

Hea, hea. *"Egiak motz eta labur min dezake edozein zakur"* Ez zaitetz horregatik aserratu.

ARLOTE

Utzi dezagun arrazoi hori, eta esan zerk zakarzkien.

KONDEA

Ni konterri honetako kondea naiz.

DOKTORE

Izena mesedez?

KONDEA

Juan Garzia, Mujikakoa.

ARLOTE

Aurrera.

KONDEA

Konterri honetan beti izan degu belaunaren eskubidea.

Badakizue: neskatz bat ezkontzen zenean nerekin pasa behar zuen lehenengo gaua.

DOKTORE

Etzera gizon tontoa, alajaina!

KONDEA

Etzazula uste, adiskide, etzazula uste. Neretzat hainbeste neska estreinatzea gauza nekagarria izaten zen.

ARLOTE

Eta zure atzaparretatik lasai eskapatzen uzten al zenituen?

DOKTORE

Gure Konde jaunak ez daki bizitza atsegina zer den.

ARLOTE

Nik horrelako eskubide bat izan banu, ez nuen neskarik debalde eskapatzen utziko. Hirugarren urterako hilko banitzan ere, aukera etortzen zitzaizkidan guztiak aprobeztatuko nituan.

KONDEA

Ez nituan hain debalde uzten.

ARLOTE

Ez?

KONDEA

Ez. Senargaiak, aurrenekoa izateko eskubideagatik, sari bat pagatu behar izaten zidan. Batzutan, herriko- seme pobregiak ziranean, etzuten dirurik izaten, eta neska itsusi xamarra baldin bazen erretolikarik gabe eskubidea ematen nion eta kito. Polita baldin bazen, orduan izaten ziran kontuak.

ARLOTE

Eta zer jakin nahi dezu?

KONDEA

Ez al dakizue nola hemen milagro bat gertatu den?



ARLOTE

Bai, zerbait entzun dut, Gabon Eder izeneko dantzarisia bat zerura igo zala aingeruak eramana.

KONDEA

Holako milagroak ere konpontzen dira.

DOKTORE

Bai.

KONDEA

Begira; milagrua gertatu zanean ni presente nengoen, eta nere begiekin ikusi nuen guztia; bai lehenengoan hala iruditu zitzaidan, milagroa zela. Txordon Pilotak eskuetan hartu zuen Perrando jo nahi etzuen txistua, eta txistua ezpainetara eramane gabe, baka-rrik jotzen hasi zen.

DOKTORE

Orain artean, denbora askoz atzera gertatuko gauzetaz besterik ez dezu hitzegin, eta guk etorkizunaren berri ematen degu.

ARLOTE

Bai, mintzatu zaite gerokoaz, ez aspaldi gertatu denaz.

KONDEA

Barka zazue, baina nere arrazoiak esplikatatu behar ditut.

ARLOTE

Bai, ala da; horrek zerbait lagunduko gaitu.

KONDEA

Ikusi nuen, bai nola hodei artean neska ezkutatu zen. Hura gertatu zenean, deabruaren obra zela iruditu zitzaidan, baina geroztik luzaro eta sakonki pentsatzen egondu naiz, eta gertaera horreri esplikazio bakar bat aurkitzen diot. Hemen gertatutako guztia engainu bat besterik etzen izandu. Ongi montatutako truko eder bat.

ARLOTE

Bai?

KONDEA

Bai. Bi gizon haiek ederki preparatu zuten guztia.

DOKTORE

Zeintzuk?

KONDEA

Txistulariak eta Pelotariak. Eta milagroaren aitzakiarekin, neska eder hura eskuetatik lapurtu didate. Orain gauza bat galdetu nahi dizuet. Nun aurkitzen da neska hori? Gabon Eder hori?

ARLOTE

Ez dakigu....

KONDEA

Baina ez al dezue esan dena axertatzen dezuela?

ARLOTE

Etorkizuna bakarrik.

KONDEA

Orduan bere galdera bestela egingo dizuet. Bihar goizean, egun sentian, oilarrak lehenengo kukurrukua kantatzen duanean, nere Gabon Eder desiatua nun aurkituko da? Galdera horri erantzunik emango al diozue?

DOKTORE

Bai.

ARLOTE

Baina kondizio ttiki bat jarrita.

KONDEA

Zer kondizio?

ARLOTE

Dirua pagatu behar dezula!

KONDEA

Holako traturik ez da inun ikusi. Lana egin baino lehen dirua pagatu! Eta engainatu nahi baldin banauzue?

DOKTORE

Arrisku hori jokatu behar dezu. Arriskatzen ez denak ez du sekulan ezer irabazten.

ARLOTE

Galdetu dezuna jakiteko interesik baldin badezu, pagatu. Bestela joan zaitez! Jende gehiago zai daukagu ta.

KONDEA

Ez zaitez harrotu. Pagatuko dizuet (*Patrikatik boltsa bat ateratzen du.*) Hemen dagozte bost dukatak.

ARLOTE

Barkatu, bainan irakurtzen ez al dakizu? (*Kartela seinalatzen dio.*)

KONDEA

Bai; hor dio honera datorren bakoitzak bost dukat ordaidu behar dituala.

ARLOTE

Ez; hor dio bost-na dukat ordaindu behar dituala. Joane Doktore-ri bost, eta Petri Arlote-ri beste bost.

KONDEA

Baina hau dirua lapurtzeko modu egoki bat besterik ez da!

ARLOTE

Nahi badezu pagatu eta bestela utzi!

KONDEA

(*Beste bost dukat ateratzen ditu.*) Hea, hea. Nere galderari erantzun zaiozue. Bihar goizean goiz Gabon Eder nun egongo da?

ARLOTE

Gogoratzen al zera Aitzpitarteko mendiaren hegalean errota zahar

abandonatu bat nola dagoen?

KONDEA

Bai.

ARLOTE

Bihar goizeko zortziretan bertan egon.

KONDEA

Gabon Eder han aurki dezakedala...

ARLOTE

Hala izan dedila.

*Badoaz kondea eta zerbitzariak. Argi urdina. Serora batzuek sartzen dira.)*

SERORA BAT

Zuek profetak al zerate?

ARLOTE

Bai.

SERORA BAT

Elias bezela?

DOKTORE

Hainbeste ez, baina, tira, hor nunbait.

SERORA BAT

Etorkizuna axertatzen al dezue.

DOKTORE

Saiatzen gera behintzat.

SERORA BAT

Eta ez al zerate inoiz deskuidatzen?

DOKTORE

Orain artean ez degu utsik egin.

SERORA BAT

Jaun printzipal bat errezibituko al zenuteke?

ARLOTE

Jaun haundiak eta Jaun ttikiak, denak errezibitzen ditugu.

SERORA BAT

Baina oso jaun printzipal bat errezibituko al zenuteke batere eragozpenik jarri gabe?

DOKTORE

Kondea baino inportanteagoa?

SERORA BAT

Ez da hainbeste, baina.....

DOKTORE

Jaun kondea oraintxe bertan despatxatu degu.

ARLOTE

Diru preskua pagatu du, eta etorkizuna igarri diogu.

SERORA BAT

Jaun Kondea zuengana?

ARLOTE

Bai. Eta zu erretoreak bidali zaitu.

SERORA BAT

Nola dakizu?

DOKTORE

Profetak gera. Baina profezi horregatik ez dizugu ezer kobratuko. Bai; datorrela erretorea.

*Erretorea sartzen da.*

ERRETORE

Ez dakit egiazko profetak izango zeraten.

ARLOTE

Ikustera etorri zera behintzat.

ERRETOREA

Bai. Baina profeta faltso asko dabil mundu honetan zehar, eta....

DOKTORE

Gezurrezkoak ala egitazkoak geran jakitea hamar dukat kostatko zaizu.

ERRETOREA

Nola hamar dukat?

ARLOTE

Bai, nere lagunari bost eta neri beste bost.

ERRETOREA

Hori ez da kartel horrek diona.

DOKTORE

Bai, jauna. Horrela dio. Bost-na dukat.

ERRETOREA

Bueno, ondo dago. Tori bost-na dukat bakoitzarentzat. Nere pol-tsa pixkanbat arinduko da, baina nolako profetak zeraten jakin nahi det. (*Dirua atera eta pagatzen du.*)

ARLOTE

Zer jakin nahi dezu?

ERRETOREA

Badakizue nola hemen milagru bat gertatu zen. Nik deabrukeria dela diot. Logroñoeko Inkisidoreari horregaitik deitu diot. Orain bidean dago.

ARLOTE

Eta bihar goizean hemen izango dira.

ERRETOREA

Nola dakizu?

DOKTORE

Itxoin bihar arte.

ERRETOREA

Bai? Eta zer gertatuko da? Zer erabaki dute azkenean? Milagroa zeinen obra izan da? Zeruarena ala deabruarena?

ARLOTE

Erretore.... Erretore.....

ERRETOREA

Nola! Zer?

ARLOTE

Egun txit ilunak ikusten ditut zure etorkizunean.

ERRETOREA

Egun ilunak?

ARLOTE

Bai... galerak... arraun lodi bati katez lotuta agure zahar bat preso ikusten dut. Eta agure horrek zure aurpegia daduka. Oso zaharturik, azala eta hezurak besterik atzaizkio gelditzen. Zu zera, dudarik gabe, zu zera.

ERRETOREA

Eta nola iritxi naiz hain tranze gogor batera?

ARLOTE

Inkisidoreak gure artean daude. Gabon Eder-i gartatua Jainkoaren obra dela erabaki dute. Eta zu, deabrukeria izan dela esateagatik, fedea-ren eta Legearen etsaitzat juzgatu eta kondenatu zaituzte....

ERRETOREA

Eta eskaporik ez al dago?

ARLOTE

Eskaporik ez dago. Gauza argirik ez dut ikusten, baina seguro nago orain ihes egingo bazenuke ere, nik esandakoa berdin gerta-

tuko litzakela.

ERRETOREA

Hori gezurra da! Gezurra da!

ARLOTE

Bihar artean itxoin, eta orduan ikusiko degu.

ERRETOREA

Inkisiadoreari denuntziatuko zaituztet, zuek etzeratela profetak, zuek sorgin jentilak zeratela.

ARLOTE

Horrekin ez dezu ezer irabaziko. Baina zaude pixka batean. Oraindik gehiago ikusten dut: zu zoazen ontzia beste batekin burrukan hasi da. Burrukaldi haundi bat dago itxas-ontzien artean. Eta atzenean zuena ur azpira dijoa, eta bertan dauden arraunlari kondenatuak itxas olatuetan itotzen dira.

ERRETOREA

Ez. Zaude ixilik!

ARLOTE

Gainera....

ERRETOREA

Ni banoa. Banoa herri honetatik...*(Korrika mutis egiten du. Illun aldia)*

*Argi gorria. Marika Luze eta Perrando Txistu.*

DOKTORE

Zuek ere guregana al zatozte?

MARIKA

Ezagutzen al gaituzue?

DOKTORE

Zuen etorkizuna argi iuksten da zuen aurpegietan.



MARIKA

Baina zer ikusten da?

DOKTORE

Su haundi bat. Biok sutan erreak izango zerate.

MARIKA

Baina zergatik?

DOKTORE

Zuek herejeak zerate. Deabruaren egintza Jainkoak egindako bezela hartzen dezue, eta inkisidoreak sorgintzak juzgatu, kondenatu eta erre egingo zaituzte!

PERRANDO

Goazen, goazen hemendik beste nunbaitera gure Ebanjelioa predikatzerara!

ARLOTE

Gauza bat falta da.

MARIKA

Zein?

ARLOTE

Guk etorkizuna axertatzen dizuegu, eta zuek pagatu behar dezue!

PERRANDO

Hil eta pagatu? Ez gaude horren ero!

DOKTORE

Soldaduei deituko diegu.

PERRANDO

Zertarako? Azkarrago hil gaitzaten? (Badoaz ilun aldia)

*Argi naranja. Jende egoki batzuek sartzen dira. Inkisidorearen zaldun eta kalonjeak dira. Haietako bat bi profeteri urbiltzen zaie.*

KALONJEA

Barkatu zuen fama onaren sona gure belarrietara iritxi da.

ARLOTE

Eta zer nahi dezue?

KALONJEA

Zerbait igarri behar dezue.

DOKTORE

Aurretik ordaindu. Oraintxe bertan eskapatu zaizkigu bi pagatu gabe, eta orain zuen saria eta haiena ordaidu beharko dezue.

KALONJEA

Zenbat da?

ARLOTE

Horren jende inportanteari hamabost dukat besterik ez dizkiogu kobratuko.

DOKTORE

Gaurko eguna ez da txarra izango. Ja! Ja! Jende listoa ederki bizi liteke tontoen kontura.

ARLOTE

Baina kontuak egin baino lehen, igarri dezagun jende aberats hau zertara datorren guregana.

DOKTORE

Hori gauza erreza da guretzat.

ARLOTE

Bai, hauek erenegun atera ziran Logroñotik eta Bitorian igaro zuten gaua.

DOKTORE

Hauek inkisidore jaunaren konpainia dira.

ARLOTE

Inkisidore jaun hoiiek nola dute izena?

DOKTORE

Batek Manso Zuñiga.

ARLOTE

Bai. Eta besteak Bezerro Ganboa.

DOKTORE

Eta atzoko eguna itzali zenean, Manso Zuñiga eta Bezerro Ganboa etziran inundik ere agertu.

ARLOTE

Bilatu bai egin dituzte, baina beren arrastorik ez dute inun aurkitu.

DOKTORE

Hemen aurkituko dituztelako esperantzetan honera abiatu dira. Bainan hemen ez diete beren nagusiaren arrazoirik eman.

ARLOTE

Eta herrian bi profeta daudela jakinik, guregana abiatu zerate, guk jakituri ezkutuaren bitartez haien berririk ematen ote dizuegun edo. Ez al da hala?

KALONJEA

Bai hala da. Eta gaua erori baino lehen zuen medioz aurkitzen baditugu, oparo ordainduak izango zerate.

ARLOTE

Belarriak erne jarri, jaunak; begiak zabaldu, gizonak! Orienteko majiaren aurrean zaudete. Begira zazue gizon hori. (Joane Doktore seinalatzen du.) Gizon hori orain artean herri honetan Joane Doktore bezela ezagutu dezue, baina ondo begira zaziozue. Zein da, beraz gizon hori...?

KALONJEA

Manso Zuñiga!

ARLOTE

Begira zazue gizon hau. (Bere burua senalatzen du.) Gizon hori

orain artean herri honetan Petri Arlote bezela ezagutu nauzue,  
baina ongi begiratu zaidazue. Nere egitazko izena...

KALONJEA

Bezerro Ganboa!!

ARLOTE

Bezerro Ganboa!

GUZTIAK

Inkisidore jaunak!! ( *Belaunikatzen dira*)

ZUÑIGA

Orain erretiratu zaitezte.

GANBOA

Bai. Deliberatu egin behar degu.

*Ilun aldia. Argi normala.*

ZUÑIGA

Hiru egun dira herri honetan gaudela.

GANBOA

Juizioa erabakia dago.

ZUÑIGA

Kondenatuak agertu bitez.

KALONJEA

Jaun Garcia, Mujikako kondea.

*Agertzen da.*

ZUÑIGA

Zure eskubidea kentzen zaizu.

GANBOA

Neskatxa ezkonberrien gainean ez dezu hemendik aurrera auke-

rarik izango.

ZUÑIGA

Horren ordez, ezkontzen direnean diru kantidade bat emango dizute.

GANBOA

Eta emateko dirurik ez badute, ez dizute emango, eta kitto.

ZUÑIGA

Erretira zaitez.

*Badoa kondea*

KALONJEA

Agertu bedi Mujikako kondesa andrea.

*Kondesa agertzen da.*

ZUÑIGA

Zure senarra ez den gizon baten besoetan egon zeralako, hemen-dik aurrera eta heriotzeko eguna arte zure senarraren aurpegia bakarrik ikustera kondenatzen zaitugu.

GANBOA

Erretiratu zaitez.

KALONJEA

Txordon Pilota ager bedi.

*Ez da agertzen.*

GANBOA

Juizio honetara ez etortzeko pekatuagatik, soldaduak aurkitzen

duten lekuan bertan hil dezatela.

#### KALONJEA

Agertu bedi Gabon Eder.

*Ez da agertzen*

#### GANBOA

Juizio honetara ez etortzeko eta deabruaren esanetara makurtzeko bi pekatu hoiengatik, etermidade guztirako inperura kondenatzen degu Gabon Eder.

#### KALONJEA

Perrando Txistu ager bedi.

*Perrando Txistu agertzen da.*

#### GANBOA

Tontoa eta kobardea izateko pekatuagatik, atso zahar batekin ezkontzera kondenatzen zaitugu. Hari kate haundi batez lotuta biziko zera.

#### ZUÑIGA

Erretira bedi Perrando Txistu.

*Badoa Perrando Txistu.*

#### KALONJEA

Ager bedi Marika Luze.

*Marika Luze agertzen da.*

ZUÑIGA

Okerra eta zikoitza izan zeralako, agure zahar batekin ezkontzera kondenatzen zaitugu. Hari kate batez lepotik lotuta biziko zera zure bizi guzian.

GANBOA

Erretiratu bedi Marika Luze.

*Badoa.*

KALONJEA

Ager bedi Mosen Bertran

*Mosen Bertran agertzen da.*

GANBOA

Jaunaren apaiz dollor eta kristau epel ta gezurrezko bat izan zeralako, galeretara kondenatzen zaitugu.

ZUÑIGA

Erretira zaitez.

*Badoa.*

GANBOA

Eta orain egiazko erruduna kondenatuko dugu.

ZUÑIGA

Deabruak aukeratu zuen tresna.

GANBOA

Satan Beltzaren instrumentua.

ZUÑIGA

Txistua!

GANBOA

Deabruak jo zuen txistua

ZUÑIGA

Neska bat sorgindu zuen txistua.

GANBOA

Ekarri bezate.

*Bat txistuarekin agertzen da.*

ZUÑIGA

Sua ere ekarri bezate.

*Ontzi bat dakarte. Bertatik sua ateratzen da.*


GANBOA

Txistua sutara bota bezate.

*Botatzen dute, eta erortzen den momentuan bertan , su-gar haundi bat atera bedi.*

**TELOIA**





## **GABRIEL ARESTIREN BIBIOGRAFIAKO ZENBAIT PASARTE**

1933.urriaren 14ean jaiotzen da, Bilboko Barrueta Aldamar kaleko 2eko 6.pisuan eta bi egunera San Vicente Martir de Abando deritzan elizan bataiatzen dute "Gabriel Maria" izenarekin.

1945. urte honetan dirudi Aresti euskara mundura hurbiltzen eta ikasten hasi zela.

1953.urtean Perito mercantil ikasketak amaitu zituen. Urte honetan Orixe Euskal herrira itzultzen da, Santurtziko portutik, eta bertara hiru gizon ongi etorria ematera joaten zaizkio Labayen; Irigoien eta Aresti. Arrazoi batengatik edo besteengatik Orixerekin ez dute portu honetan topo egiten, baina Atxuriko gelditokian aurkitzen dira lauak.

1954. urte honetatik aurrera "Euzko Gogoa" aldizkarian Arestiren lanak argitaratzen hasten dira.

1957.urtean Euskaltzaindiako kide egiten du. Agirian honela dio " Gabriel Aresti jauna euskeraren alde orain arte egin dituan lanei esker ona erakutsiz eta aurrerakoen pozgarri dakion urgazletzat artu du".

1959. urteko irailaren 13an, "Malda behera" poema sariztatzen dute.

1960. Meli, Basurtuko neskatxa gaztearekin ezkontzen da.

1961. urtean "Mugaldeko herrian eginiko tobera" antzerkiarekin,

T. Alzaga saria irabazten du.

1962.urtean "Harri eta herri" poemarekin, Orixe saria irabazten du. Urte berean, bigarren eta hirugarren antzerkiak idazten ditu "....eta gure heriotzeko orduan". eta "Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua".

1963.urtean "*Oilarganeko etxola batean*" antzerkia idazten du.

1964 urtean "*Beste mundukoak eta zoro bat*" eta urte bereko abenduaren 13an Donostiako Antzoki Zaharrean Jarrai antzerki taldeak taularatzen du.

1965.urtean "*Justizia txistulari*" antzerkia idazten du eta Oiartzunen urte berean taularatzen du Lartaun antzerki taldeak, Xabier Lete kudeatzailea zelarik. Antzerki honi aipamena berezia eskeintzen diote Euskal Herriko komunisten "Arragua" aldizkarian.


1966.urtean "Euskal harria" poemarekin Orixe saria irabazten du.

1971.urtean Oskorri taldeak, Deustuko Unibertsitatean beste kantuen artean Arestiren letrekin egindako zenbait kantu eskeintzen ditu.

1972.urtean gaxotasunaren presentzia nabaritzen hasten da.

1973.urtean Ea herrixkara bizitzera joaten da, gaxotasuna arintzearren, eta baita Gipuzkoako Aurrezki Kutxak diru laguntza bat eskaintzen dio euskal hiztegi bat osatzeko.

1975.urteko maiatzaren 27an operatzen dute eta ekainaren 5ean, hepatitis insufizientzia batek jota hiltzen da. Eta Aitarek Etxea defendituzeko hemen gelditzen zaizkigu Meli, Guria, Nerea eta Andere.











# EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

**A Z P E I T I A**

## ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.  
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.  
• ARKOTXA ANAIK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGLI.  
"GARBIÑE"  
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.  
Maria Arizmendi/Janamari Malharitu/Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).  
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).  
Antzerkiak: Laño ta Izar.  
Bi aizpak.  
Ezkondur ezin ziteken mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE.  
OROITUZ.  
• AITA JOSE ANCHIETA  
(S.J.) Dohatsua.
- 1998 • A. ARZELUS eta A. M<sup>a</sup> LABAYEN  
Belaunaldiko antzerkilariak
- 1999 • NEMESIO ETXANIZ  
Teatrozaleen gogoan
- 2000 • GABRIEL ARÉSTI SEGUROLA  
Euskal Antzerian, Biola eta mailuarekin